


ttipi-ttapa



MODA GEHIGARRIA / 32



JARDUNALDI JARRAITUA VS ZATITUA

TTIPI-TTAPAREN Hegoaldeko eremuan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 31 ikastetxe daude. Horien artean 21etan eskolaldi jarraituarekin hasi dute ikasturtea eta gainerakoetan jardunaldi zatituta bueltatu dira. Eredu bakoitzaren alde onez eta txarrez aritu dira irakasleak eta gurasoak TTIPI-TTAPAREKIN. / 10

Erdiz bizirik mantentzeko aldarria

'Erdiz bizirik nahi dugu! Lurraren osasuna, gure etorkizuna' lelopean manifestazioa egingen dute urriaren 12an; eta galdeketa 23an / 44

SINADURAK



Nafarroan ahuakatea ekoizten lehena izan nahi du Xixo Aiestaranek / 8



Usoa Urrutia Iruritako zakur hezitzailearekin kontu kontari / 46

Gaztainari buruzko topaketa antolatu dute urriaren 11n Arantzan / 23

Bortz Kirol txapelketa antolatu du Doneztebeko Erreka elkarteak / 54


ZOKKETA / 37

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



 euskaltzateen topagunea
  Gobierno de Navarra
  Nafarroako Gobernua
  2030




 euskaraldia.eus

BERA

LESAKA

Agenda 2022

URRIA




www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus




| | | |
|---|---|--|
| <p>IKUSKIZUNAK GURE ZIRKUA BERAN URRIAREN 7TIK 15ERA</p> <p>Agerrako futbol zelaira Sarrerak: www.gurezirkua.eus Prezioa: 13€</p>  <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p> | <p>13 ORTZEGUNA</p> <p>AURKEZPENA HISTORIA IDENTITATEA OROTIMENA VITAGRAMA</p> <p>19:00 Udal Pleno Aretoa</p>  <p style="text-align: center; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESAKA</p> | <p>15 LARUNBATA</p> <p>BERAKO ONDAREA PLAZARA KAULEKO LARRAINA EZAGUTZEA</p> <p>KAULEKO LARRAINA EZAGUTZEKO IBILBIDEA: Elementu megalitikoak, burruak, ubidea, kizubasa, zentrala, errota... 10:00 Altzateko plaza Adia guztietako egokia Hizkuntzak: Euskara, gaztelania eta frantsesa. Antolatzaileak: Mugerri elkarteak, Jakintza elkarteak eta Berako Udala.</p> <p style="text-align: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p> |
| <p>7 ORTZIRALEA</p> <p>FILMA TIPULAREN SEHASKA KANTA</p> <p>18:30 Kultur Etxean</p> <p style="text-align: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p> | <p>14 ORTZIRALEA</p> <p>BERAKO ONDAREA PLAZARA KAULEKO LARRAINA EZAGUTZEA</p> <p>SOLASALDIA: Lizunagatik Kuleara, arrastoen bilera. (Ondaria: Paul Badiola (Jakintza elkarteak)) Hizkuntzak: Frantsesa eta euskara Antolatzaileak: Mugerri elkarteak, Jakintza elkarteak eta Berako Udala.</p> <p style="text-align: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">BERA</p> | <p>16 IGANDEA</p> <p>AZOKA ARTISAU AZOKA</p> <p>ARGITSU ARTISAU ELKARTEA 10:00-14:00 Behoko Plaza</p>  <p style="text-align: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px;">LESAKA</p> |



NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

Urria

Urria. Zer datorkizu burura urria hitza entzundakoa? Batzuri udazkena etorriko zaie. Askori perretxiko eta ondo bila joatea etorriko zaio gogora. Inori orain bost urte Kataluniako erreferendumaren harira urriaren 1eko kale-protesta eta liskarrak etorri dakizkioke burura. Bertsozaleenari lau urtean behingo txapelketaren burrunba sartuko zaio barruraino, astebururoko hara-honaka ibiltzea, saioz saio. Altsasun ez zuten urri gozorik bizi. 2016an, ostatu batean gertatutako liskarretik ateratako muntaia polizialak, inoizko urriaren 15ik beltzena ekarri zuen. 2019an, berriz, sententzia atera zen, urriaren 9an. Urriaren 12an Hispanitatearen Eguna ospatzen dute batzuk. Beste batzuok borroka eguntzat daukagu. Aurten, urriaren 8an, Sareren ekitaldi eta mobilizazio handiak daukagu Donostian, ekimenari bukaera emanez. Nola ez ahaztu urriaren 19an «ospatzen» den Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna. Beste inoren urtebetetze eguna izanen da, eta hori ere, beretzat garrantzitsua. Herri honetan, onerako edo txarrerako, urririk ez dator urri. Ea zer dakarren datorren honek.

**«HERRI HONETAN
URRIK EZ DATOR
URRI. EA HONEK
ZER DAKARREN»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Niri bortz... kirol

Joko olinpikoen garaiko edo berrikiago herri kirolean indartu den pentatloia gogoan, pilotan ere Bortz Kirol txapelketa antolatu du Errekak, gurean hain ezagunak ez diren tresnak ere ezagutarazteko. Ez da ideia txarra. Izan ere, igandero esku pilota partidak telebistan ikusten ditugun aunitzentzat arrantzarako tresna bertzerik ez da sharea edo mandatuak egitekoa saskia.

NABARMENTZEKOAK



JOANES
ILLARREGI
BERTSOLARIA



JOXEAN
ETXEBERRIA
AIZKOLARIA

Bere lehenengo Txapelketa Nagusia bikain hasi du Joanes Illarregik. Arrasateko saioa irabazita, urriaren 22ko Elizondoko finalurrekora zuzenean sailkatu da.

Sasoian dagoela erakutsi eta azaroaren 27an Bilbon jokatu den Euskal Herriko Lehenengo Mailako Aizkolari Txapelketako finalean ariko da Zigako Joxean Etxeberria.

GIBELERA BEGIRA



2022-10-04 · TTIPI-TTAPA · 575 zk.

Elisa Arretxearekin eskubaloia mintzagai

Itxako Lizarrako taldeak fitxatu zuen duela hamar urte Elisa Arretxea Elizondoko eskubaloia jokalaria. Itxakoren deiarekin «amets bat» bete zaiola kontatu zion TTIPI-TTAPAri: «Ttikititik Ohorezko Mailan aritzea ametsa izan da, eta orain, ametsa egia bihurtu da». Itxakorekin aritzea «ardura handia» zela azaldu zuen, ordura arte «dena irabazi zuten jokalaria hoberenak» arituak baitziren taldean. «Ez dugu jaiotzez horiek izan duten kalitaterik, baina lanarekin gauza aunitz lor ditzakegu». Horretarako «arras entrenamendu» gogorrek egiten zituztela erran zuen, eta hori gainera lanarekin eta ikasketarekin uztartzen zituela. BKT, herriko taldea ere gogoan izan zuen: «Nire betiko taldea izan da eta izanen da. Haiei esker nago Itxakon».



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 42€
Leitza 33€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 98€
Amerika eta Australia 147€





KOLABORAZIOAK

MIXEL GEREKA ZELAIA

H... Hitza

«Hizkuntza batean esanahia duen forma beregain txikiena. Forma horren adierazpide idatzia». Hori da hitzaren esanahia Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera.

Gu geu gara hitza eta ezer gutxi bilakatu hitzik gabe. Hitzen bitartez gizarteratzen gara eta hitzen bidez ikasi, ahoz, idatziz edo keinuz, esanahia duen hori sortu eta ondokoei helaraziz.

Izena duenak izana du dio, gu, euskaldunon esaera zaharrak, eta izena *hitza* da. Eta gu izen. Hitzek bertakotzen gaituzte eta hitzek lotu bizimolde batera edo bestera, eta belarri fina izanez gero, laster nabaritzen dugu aldamenean entzuten –edo irakurri ala keinuka ikusi– ditugun hitz horien hiztuna gure artaldekoa den edo beste larreren batetik etorria den.

Batzuetan urrutiko larreko hitz ezezagunak guretzat, esanahia ezin asmatu eta hitzak ez diren hotsak bihurtutakoak gure belarri edo begietara. Besteetan, berriz, beste artalde bateko hiztuna entzun eta, ñabardurak ñabardura, di-da batean asmatzen dugu hiztun horren jatorria, herria zein auzoa ere identifikatuz, eta zeozer estutuz gero, baita bere atautxiren hitzek utzi zituzten beste nonbaiteko arrastoa ere.

Hitza da animalengandik desberdintzen gaituen elementu nabarmenetako bat, eta halere, egon badaude benetako animaliak bihurtu diren hiztunak. Hiztunak bai, baina,

«BATZUETAN HITZAK, HITZAK BESTERIK EZ DIRA»

ahuntzaren gauerdiko eztlua baino hitz hutsen jabeak. Zerrenda luzea osatuko nuke.

Hitzak hitz. *Euskaldun* hitza. Euskara duen hiztuna. Artalde bat. Eta euskara ez duenak izan al daiteke euskaldun? Gure artaldeko

hitza da *euskaldun* eta gorago aipatu bezala, izena duenak izana du.

Hitzak abestuz, zera zioen Mikel Laboak: «Gure hitzak esan berriz esan, ez daitezela ahaztu ez daitezela gal, elur gainean txori hanka arinek utzitako arrasto sail ederra bezalaxe».

Gure hitzak esan Laboak eta *singing words, words, between the lines of age* (hitza abestuz, hitzak, adinaren marren tartean) Neil Young-ek.

Sarritan entzuten dugu «hitza haizeak eramaten ditu» esapidea, idatzita dagoen hitzak ahozkoaren balioa gutxituz. Idatziak iraupena dakar berarekin, lekukotasun fidagarria. Halere, euskaldunon artean «hitz ematea», ahozko hitza, asko esatea da eta makina bat borroken iturburu izan da emandako hitza ez betetzea.

Halere, eta idatzi hau da horren lekuko, batzuetan hitzak, hitzak besterik ez dira, gure solasaldietarako hitzak. Mina Mazzini eta Alberto Lupu italiarren kanta famatuak zioen moduan: «*parole, parole, parole, soltanto parole, parole tra noi*».

Bukatzeko, *H* hizkiaren buelta inguruan, Joxean Artze poeta handiaren hitzak uzten dizkizuet hausnarketarako: «OTX!, ATX!, UTX! HOTZAREN HATSA ote da HITZA ala HUTSAREN aurka altxatuko HOTSA, edo HITSA hauste arren UTZITAKO HATZA».



IRATXE MUXIKA KARRION

Hasierak

Orokorrean, zerbait bukatu behar dela onartzea bezain astuna egiten zait zerbait hasi behar dela ikustea. Ateak ireki eta itxi. Bideak hasi eta bukatu. Betikoa.

Uda bukatu baino aste batzuk lehenago hasi nintzen udazkenean pentsatzen, bertigoz edo antzeko sentimendu batez. Udazkena hasteak erran nahi zuen klaseak hastea, Bilbora bueltatzea eta haize freskoa sumatzea orkatiletatik sartzen.

Egun batetik bertzera, neure burua errealitatera ekarri nahian edo, sandaliak gorde eta zamarra goxo-goxo bat erosi nuen. Ez zen hainbertzerako, baina horrelaxe agertu nintzen Bilboko etxe beheitik betiko ostatura, eta: «Hara, bueltan zarie!», aditu nuen barra barrenetik.

Orduantxe hasi zen udazkena, niretzat.

Kurtso hasierak errutinara ekarri nau bueltan, baina uste dut aurtengo irailak hasiera bat baino gehiago dakartzala, eta tentuz errepara beharko geniokeela etapa honi.

Txapelketa. Bertsolari Txapelketa Nagusia. Hamaika aldiz txapelketa sistema kritikatu izanagatik ere, lau urtetik behin gurean den fenomeno hau gozatzeko aukerarik ezin da galdu. Porra egin, aditu, ikusi, porra aldatu. Hasiera polita da, irailetik abendura arte irauten duen arren urte osoan horren

«USTE DUT HEIN HAUNDI BATEAN NI ERE POZTU NAIZELA BUELTATZEAZ»

inguruan solastatzeko adina mami ematen duelako, gainera.

Euria eta haize freskoa. Hemendik gutira eguraldiaren kontra ariko naizen arren, gaur-gaurkoz hagitz kontentu nago euri

tantek ilea heze utzi didatelako, eta portaletik atera bezain laster kremlera goitiraino itxi behar izan dudalako.

Liburu berria hasi dut. Gustatzen zait liburuak hastea, batez ere eleberriari nire bizitzaren tankera hartzen diodanean, edo protagonistak nik eginen nukeen zerbait egiten duenean. Ez zait anitzetan pasatzen, baina lo hartu aitzinetik kapitulu bat eta bi irakurri nahi izatea aski hasiera polita iruditzen zait liburu batentzat, eta zer erranik ez etapa batentzat.

Horretaz gain, kantu bat dut etengabe buruan, jira eta bira, isildu gabe. Badakit kantu batekin nazkatzeko arrisku handia dagoela hura gehiegi adituta, baina abesti batekin *engantxatzeak* erran nahi du doinu hori automatikoki bizitzako pasarte honen sintonia bilakatuko dela, eta momentu honekin oroituko naizela aspaldiko partez kantu hori adituko dudanetan. Hasiera bakoitzak bere sintonia behar du, zalantzarik gabe.

Etxe beheitiko ostatuko zerbitzariari azaldu nion baietz, bueltan ginela berriz ere, eta pozten zela erran zidan, kafesnea prestatzen zidan bitartean. Uste dut hein haundi batean ni ere poztu egin naizela bueltatzeaz, eta hasierak berak nahiko poztasun eman didala.

11 GALDERA LABUR

ARANTXA BLANCO GARDE UKL-REN ANTOLATZAILEA

«Lasterketarako afizioa haunditzen ari da Urdazubin»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Pertsona aktibo eta geldiezina naiz, gauza berriak probatzea eta ekimenak burutzea gustuko duena.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola egitea aunitz gustatzen zait; mendian oinez, lasterka, bizikletarekin... baita bidaia-tzea eta kuadrillarekin egotea ere.

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketako antolaketan zaude. Noiztik egiten da?

Laster 20. edizioa eginen dugu. Non du bere jatorria?

Mendi lasterketak gustuko duten herritarren egitasmoa izan zen, herriak duen kontrabandoaren historiarekin elkartuta ekimen berri bat sortzeko.

Lan haundia da?

Bai, ordu aunitz ematen ditugu antolakuntzan, aurten batez ere; hainbat herritar ibilbidea garbitzen aritu dira eta arras polita gelditu da. Gainera, kudeaketa lanak, parte-hartzaileen zerrendak, babesleen bilaketa eta eguneko lanak ere egin behar dira. Herritarrak aunitz laguntzen dute eta eskertzekoa da.

Jende aunitz espero duzue?

Joan den urtean 100 bat lasterkari izan ziren eta aurten berdintsu edo gehiago espero ditugu.

Berrikuntzarik izanen da?

Bai, maratoi erdiko ibilbidea guztiz aldatu dugu. Gainera, Nafarroako Mendi Federazioari esker aurtengo maratoia Nafarroako Mendi Lasterke-



tako Kluben Txapelketa izanen da, eta horrek ezagutzera ematen lagunduko digu.

Horrelako ekimenetan parte hartzea gustuko duzu?

Bai, aunitz. Ekimen hauetan gustura parte hartzen dut eta horregatik uste dut garrantzitsua dela noizbehinka antolakuntzan ibiltzea, bertzeek ere goza ditzaten.

Zaletasun haundia dago herrian?

Bai, Urdazubin mendirako zaletasun haundia dago eta geroz eta jende gehiago aritzen

da lasterketetan. Horrelako ekimenek aunitz laguntzen dute afizioa zabaltzen.

Zure asmoak epe motzera?

Lasterketa egunean dena ongi ateratzea, jendeak ongi pasatzeko eta hurrengo edizioetan errepikatzeko.

Eta epe luzera?

Arizkunen Mugarki kirol gunea sortzen ari gara hainbat herritarren artean, rokodromo eta gimnasioarekin, eta lasterketa bukatuta horretan arituko gara.



Bilduma berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Herri lurren ordenantza berria dela eta, Goizuetako Baserriarren Batzordearen hausnarketak eta alegazioak

JUANJO ELIZALDE USARRAGA

GOIZUETAKO BASERRITARREN BATZORDEKO KOORDINATZAILEA

Goizuetako Baserriarren Batzordeak, gai honetan adituak direnen laguntzarekin, udalak proposatu duen herri lurren ordenantzaren zirriborroari alegazioak jarri dizkiogu. Laburtuta, hemen segidan daude gure hausnarketak eta alegazioak.

Hasteko, argi eduki behar dugu herri lurren kudeaketa on bat egiteko, aurrenik, Herri lurrak Kudeatzeko Plana (*Plan de Gestión de Comunales*) egoki eta zuzen bat behar dugula.

Mendian dauden identifikatu gabeko aziendak istripu arrisku handia dute eta gaitz hedatzaile izan daitezke pertsonentzat edota beraien artean ere.

Behin eta berriz dio udalak jasotzen dugun dirulaguntzen zati bat modu batean edo bestean zergetan kenduko digula. Jakin behar dugu baserriarrak ditugun dirulaguntzak elikagaiak prezio duin bat izateko direla eta ezin direla desbideratu beste eginkizunetara.

Alegazioak:

Auzolanen harira, garbi utzi nahi dugu baserriarrei bakarrik behartzea eginkizun hau egitera ez dela zentzuzkoa eta egokia. Nafarroan badaude 100 herritik gora aziendak komunaletara bidaltzen dituztenak eta batean bakarrik egiten dute hori, nahiz eta baserriarrak kexatu ziren. Gehienetan, herri osoak parte hartzen du auzolanetan. Kontuan hartu behar

dugu gure aziendak mendiak garbitzen dituztela, beraiek mendira eramateagatik dirua ordaintzen dugu, baita hektarea ziurtagiriak lortzeko ere. Larreak erretzeko arrisku guztiak guk hartzen ditugu...

Honetaz gain, auzolanak bakarrik baserriarrei behartzea ez da onargarria.

Hektareak banatzeari dagokionez, legeak garbi dio azienden kopuruaren arabera proportzionalki banatu behar direla lurrak (6/90 Foru Legea, 190. artikulua). Denontzako ez bada iristen, azienta bakoitzeko hektarea gehien duenari, pixkanaka kentzen joatera eskatu dugu.

Mugen kontura, garbi dago legeak dioena: mendiak jaso dezakeen azienta kopurua egon behar du larreetan, ingurugiroari kalterik egin gabe eta aziendak jateko askirekin.

Beraz mugak jartzekotan, mendiak azienta gehiago jasan ezin duenean, ganaduari jarri behar zaie mugak eta inoiz ez hektareei, zirriborroan dioen bezala.

Tasen igoerari dagokionez, azienta bakoitzeko mendian izateagatik % 200 igotzera proposatzen digute eta % 50 hektareen ziurtagiriari dagokionez.

Nahiz eta ez dugun diru askorik ordaintzen, ez da momentua igoera hauek egiteko, batez ere materia primen prezioen igoera (% 45) dela eta. Kontutan hartu behar dugu herri askotan ez dutela ia ezer ordaintzen.

Alegazioak oso-osorik irakurri nahi duenak herriko panel informatiboetan daude zabalduak.

Denon artean ordenantza zuzen eta egokia sortuko dugulakoan gaude.

Beste aldera begira

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Espainiako prentsan, betidanik, kirola balitz bezala, inolako lotsarik eta mugarik gabe aritu izan dira euskaldunen eta Euskal Herriaren aurka. Euskal Herriaren existentzia bera ukatu digute, eta batzuk, oraindik ere, ukatzen ari dira. Sabino Aranaren asmakeria omen da. Madrilgo unibertsitatean ikasten ari den lagun baten semeak aurtengo ikasturtean irakasle bati entzundakoa da.

Orokorrean, historia manipulatu dago. Hori ez da berria, eta Euskal Herriarena ez da salbuespena; alderantziz, politikoki, gure etsaiak direnek idatzitakoa da maila guztietan, irakasten dena, unibertsitatea barne. Gaur egun, hezkuntza maila ofizialetik aparte, batzuk ari dira orain arte ezkutuan egon den beste historia egiazkoagoa azaltzen. Baina beti egongo da bigarren mailan.

Historian, interes berezia dutenak bakarrik irakurriko dituzte beste kontuak horiek, gure ustez, benetako ekintzetik hurbilago daudenak. Baina gehiengoa «egia» ofizialarekin gelditzen da, nahiz eta benetako historiaz urruti izan.

Espainiako prentsez hitz egitean, Euskal Herriko hedabide batzuk ere sartu behar dira. Horiek ere, inolako lotsarik gabe, Espainaren aldeko eta euskaldunen kontrako politika egiten baitute.

Euskaldunen aurkako salaketa, behin eta berriz errepikatu dena eta errepikatzen jarraitzen dutena da ETaren garaian beste aldera begira bizi

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

IRAKURLEAK MINTZO

ginela. Hori horrela balitz, salaketa bera egin beharko genioke mundu guztiari, hainbeste zoritxarren aurrean.

Egunero bizi ditugu herri, nazio eta nazioarteko ekintza onartezinak, baina gure eguneroko bizitza ez da horregatik aldatzen. Klima aldaketa dela, Errusiaren Ukrainako inbasioa dela eta beste hainbeste guda direla, milaka hildakorekin, eta milioika pertsonen pobrezia dela, badirudi beste aldera begira bizi garela. Egoera hau ikusita, garbi dago euskaldunen portaera ETaren garaian eta gaur egun, arazo larriagoen aurrean daukaguna, ez direla desberdintzen.

Mundu guztiko egoera hobetu beharrean gaude. Hau ez du inork zalantzan jartzen, eta ahalegin guztiak gutxi izango dira daukagun egoera hobetzeko. Zentzu horretan, denon ardura izan behar du, baina ezin da herri konkretu bat egoera horren erantzule izan. Arazo larriek konponketa zailak dauzkate, eta irtenbideak lortzea ezin zaio herritar xumeari gehiegi eskatu edo exijitu. Horregatik, euskaldunei ETaren ekintzen aurrean beste alde batera begiratu izana leporatzea, ez dut uste bidezkoa eta justua denik.

HEMEROTEKA



«Ohituta gaude elkarrekin kantatzera [Xabat aniaz ari da]. Txapelketetan, ia-ia beti, elkarrekin kantatu izan dugu. Babesa eman dezake anaia hor egoteak, baina sei gara oholtzan kantukide, eta modu berean babesten eta laguntzen dugu elkar. Azken batean, seiok gaude lehian, baina talde bat gara era berean, eta une oro laguntzen diogu elkarri; saioa hasi aurretik batez ere, baina baita kartzelan gaudenean ere».

JOANES ILLARREGI
LEITZAKO BERTSOLARIA I
BERRIA. 2022.09.27



«Giza historiako krisirik larrieneangaude, eta ez dago erantzun proportzionalik. Mugimendu ekologista atomizatuta dago: bada mugimendu lokalandana bat, tokiko proiektu jakinen kontra ari dena, baina ez hegemoniaren kontra. Eta hori da giltzarria: hegemonia kapitalista ekozida batean bizi gara, egunerokoan konturatu gabe erreproduzitzen dugu biosferaren eta pertsonen esplotazioa; auzi estrukturala eta kulturala da».

GORKA LAURNAGA
ELIZONDOKO
KLIMA AKTIBISTA I
BERRIA. 2022.09.27

BOTA BERTSOA

UXUE MESA GARMENDIA

LESAKAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO
BERTSOPAPER
LEHIAKETAN D MAILAN
2. SARIA

Ikaslearen astea

Doinua: Egunaren izena



Nahi baino guttiago hartuta atsedean barrenak nahasiak baina itxuraz lerdin oharterako joan da goizaren bi heren gaur ongi ulertu dut ez bainekien lehen bestondoa zergatik deitzen den astelehen.

Asteartera nahi ta ezinezko bidai Conquisa bukatzeko luze egonda zai eguerdira arte lo egin dugu lasai ispiulan aurrean gorputz eta bisai errepikatu ohi dut 'bihar klasera bai'.

Oharterako egin zaigu asteazken Bizirautea ezta erraza izaten nola tuperrek azken egun bat daukaten Falta diren egunak dieta on baten Pasa beharko ditut makarroiak jaten.

Ikasle ortzegunen lehenengo baldintza poteo, diskoteka, kotxeari pixa kaña esku batean ta bertzean pizza Diot iritsi ahala lehen eguzki printza 'Zein zoragarria den ikasle bizitza'.

Lo egin gabe hasi zaigu ortzirala burundesa, euskotren alsaren magala pensatu beharko dut hurbildu ahala aita ta amarentzako bertsio ofiziala ohorezko matrikula atera dudala.

Etxea txukunduta kanpora anaia nik ere egin nahi dut herrira bidaia aprobetxa dezagun ikasle garaia orduak hegan doaz zazpiak dira ia eskerrak daramadan garrote usaia.

Ezin gogoratuaz zer pasatu zen bart amatxiren etxera ohikoa gureztat burruntzaliarekin honat eta harat 'Edan zazu maitia sagardo pixka bat' ezetza emateko modurik ba al daukat.

Gibelarentzat ez zen aste atsegina Horrela ezin dugu jarraitu jakina Azterketaldiaren aurreko esprinta Bizitza aldatzeko azken ahalegina hurrengo ez al da izanen berdina!

«Lesakan hazitako lehen ahuakateak 2024an saltzea espero dut»

XIXO AIESTARAN ANDUEZA LESAKAKO GARDELSORO BASERRIKOA

Nafarroan ahuakatea ekoizten duen lehena izan nahi du Xixo Aiestaran lesakarrak, ekologikoan landutakoa gainera. «Posible dela uste dut eta, gainera, kalitate onekoa izanen da» dio

AITOR AROTZENA LESAKA

Nafarroako ekoizpen ekologikoak hazten segitzen du. Nafarroako Nekazarien Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak gaur egun 800 operadore ditu. Guztira, 2022ko urtarriletik uztaileira 108 alta berri eman dituzte: 91 landare-ekoizle, 9 abeltzain, 4 elaboratzaile eta 4 banatzaile. Konparaziora, Lesakan ahuakateak ekoizteko alta bat izan dute. Hain zuzen, Jose Ignacio Xixo Aiestaran Anduezak (Lesaka, 1970) Auzoberri auzoko Gardelsoro baserriko bi hektareatan dagoeneko 700 bat ahuakate arbol landatuak ditu eta, zuzen bidean, 2024rako espero du lehen uzta.

Gardelsoroko ataritik parez pare ikusten da Kantauri itsasoa, «zuzen-zuzenean bederatzi kilometrora, eta horrek, nahitaez, tenperatura goxatzen du, bai neguan, baita udan ere». Eta Xixo Aiestaranek dioenez, «ahuakatearen arieriorik handiena izotza denez, hori ona da». Halere, itsas mailatik 400 metroko altueran dago baserria. Orain, bere lantegiarekin bateratzen badu ere, «nire ametsa 55 bat urterekin ahuakatearen ekoizpenetik bizitzea da, baserri inguruko lasaitasunean bizitzea osasuna baita».

Ez zara baserrian hazia, baina beti gustatu zaizu baserria... Zergatik ahuakatea?

Ahuakatea modan dagoen fruitua da, ez dakit gero zer



Xixo Aiestaran lesakarra, ahuakate bat erakusten Gardelsoron. AITOR AROTZENA

eginen duen. Nik uste nuen ahuakatea ekoiztea erraza izanen zela, baina lan handia du. 2016an erosi genuen baserria, lur eremua badu eta hori ikusiz proba egin nahi nuen. Egia da landare tropikala dela, hemen exotikoa, baina Asturiasen eta Bizkaiko Alonsotegi topatu nituen plantazioak, gure inguruko gisako klima dutenak eta ongi funtzionatzen ari direnak. Neguak inguru honetan gero eta xua-

beagoak dira eta izotza da ahuakateari kalterik handiena egiten diona. Aurtengo negua dezente gogorra izan da eta oraindik ttikiak ziren landareak salbatu dira, zerbait ateratzeko esperantza badugu.

Beraz, tropikoan edo klima beroagoko tokietan ez ezik, Kantauri aldera begira ere bada ahuakatea produzitzeko aukerarik...

Asturiasen baino lehen Galizian ere baziren, baina han mikro-

klima ugari ditzutenez, ez nien sobera kasurik egin. Internet bidez ikusi nuen Asturiasen bazirela pare bat plantazio eta joan ginen Ribadesella ondo-ko herri batera ikustera, gure klima, tenperatura eta euri ezaugarri berdintsukoak. ETB-ko *Historias a bocados* programan Alonsotegin ere bazela ikusi genuen eta harat ere joan ginen ikustera eta ikastera. Bi urteko zuhaitz ederrak zituzten, sagarrondoak bezainbertzeko zurtoinekin. Eta animatu ginen.

Animatu ez ezik lanean hasiak zarete, gogor eta ilusioz...

2020an Malagako hornitzaile bati 800 landare erosi eta horietako 330 landare sartu genituen iazko abuztuan, has bariatatekoak, hau da komertzialena. Horietatik 220 batek bizirik segitzen dute. Hori kopuru normala da. Aurtun, bertze 330 bat landatu ditugu, hauek Lamhass bariatatekoak, Kaliforniakoak. Erraten dute honen arbolak bizi laburragoa duela baina gehiago produzitzen duela. Gainera, ahuakatea ez da garai berean biltzen: has bariatatekoak bildu eta handik bi hilabetera hasten da lamhass bariatatekoak biltzen. Prezio berdintsua izaten dute. Baina % 10 polinizatzailea izan behar denez, Bacon bariatatekoak ere sartu ditugu. Hauek ere fruta goxoa ematen dute, baina azal leuna dute eta merkexego saltzen dira, kontsumitzaileak azal zimurreko ahuakatea ikustera ohituak daudelako eta hori erosten dutelako. Aurtun landatutakoek ongi errotzen badute, heldu den urtean bertze 120 bat landatzea ez dut bazterten, lekua badu. Heldu den urtean loratuko dira eta 2024an lehen ahuakateak komertzializatzea espero dut. Eta, hemengo lur-erarekin eta urarekin, ateratzen bada kalitate onekoa aterako da.

Gainera, ekoizle ekologiko bezala eman duzu alta...

Horrek produkzioa zertxobait garestixeago saltzeko aukera

ematen duela egia da, baina ekoizteko zailagoa ere bada. Ongarriek ekologikoak izan behar dute, baita produktu fitosanitarioek eta pozoinak ere. Erraterako, lursaguak kalte handia egiten du, lur azpitik landare batetik bertzera joaten da eta sustrai guztiak jaten ditu. Atera izan dugu zuhaitzaren enborra inolako sustrairik gabe. Hauentzat arteak ere paratu ditut. Hormak eta ura pilatzeak ere eragiten ditu kalteak, zaina usteltzen zaio eta horregatik, drenatze ona behar du. Maldan dauden landareekin ez da arazorik, urajoaten delako, baina zelaian daudenei, golde moduko lau-hortzeko batekin lantzen dugu lurra, ura ez dadin gelditu.

Temperatura goxoaz gain, ur aunitz behar duen landarea ere bada ahuakatea...

Hegoaldeko hornitzaileek behin eta berriz aipatzen digute ahuakatearen etorkizuna Kantauri itsasaldean dagoela, euri aunitz egiten duela. Ahuakatea kontsumitzea-ri utzi behar diotela erraten ari dira sukaldari ezagunak, Mexikon idorte handia sortzen dutelako, Andaluzia aldean ere badute arazo hori, baina, gure inguru honetan ez dugu horrelakorik. % 90 euri urarekin bustitzen ahal dugu. Aurtun izan dugun uda izanda, lau aldiz bertzerik ez dugu busti behar izan eta abuztuaren 17ko gauean bota zuen euriarekin hilabete osorako

«NEGUAK ORAIN EPELAGOAK DIRA ETA NAHIKO URA BADUGU HEMEN»

«PRODUKTU EKOLOGIKOA HAGITZ ESTIMATUA DA FRANTZIAN»



Oraingo, Gardelsoro inguruko bi hektareatan landatu ditu ahuakateak Aiestaranek. AITOR AROTZENA

izan genuen. Halere, nire intentzioa ur-biltegi handi bat eraikitzea da, neguan ura pilatu eta urtean zehar, behar denean, erabiltzeko. Ura badugu eta izotza lehen baino guttiago egiten du, baina nekazaritzan deus ez da segurua eta egun bateko horma handi batek urte osoko lana hona dezake. Halere, kontent gaude, pasatu dugun urtearekin, berandu landatu genituen joan, den urteko abuztuaren segidan hogeitaz egunez 700 litro ur hartu zuten Lesakako ferien inguru horretan, apirilean horma eta elurra, uda hagitz-hagitz beroa eta idorra, 41 gradoko egunak eta 300 plantatik 220 bizirik daude. Ez da portzentaje txarra. Txarrena ikusi eta salbatu dira eta lehenbiziko urtea da okerrena. Negu xuabe bat egiten badu, azken urteetakoaren antzekoa, landareek aitzinera egingen dute.

Edozein landare ere ezin izanena da sartu. Kalitateari ere begiratu behar zaio?

Ahuakate klase pila bat dago, eta ongi begiratu behar da, bai. Negutegi batetik 23 landare ekarri nituen, bakoitza 30 eurotan, eta berehala kixkali ziren, hiru gelditu ziren bizirik. Gero, gauza bat da landarearen gaineko alde, hass, bacon edo dena delako barietatekoa, baina garrantzitsuena patroia da, zein hezurretatik ateratakoa den. Badira Mexikoko bi patroia, zero azpitik lau grado ere aguantatzen dutenak, Zutano eta Mexikola izenekoak. Gainera, hormaren kontrako sare moduko bat ere paratzen ahal zaie landareei, berotasuna ematen du eta temperatura 3 grado goxatzen dituenak, -4 grado badira, -1era igotzen du. Neguan goikoa hondatuta ere, kondotsa ongi baldin badago, ez da arazorik. Baina gero, loratzen denerako ongari bat eman behar zaio, fruitua sendotzeko bertze bat, landare ingurua garbitu behar da, belarrak kendu... lan handia du. Eta gero, etor daiteke urtetan

egin ez duen negua, zero azpitik hamar grado, eta zuhaitz guztiak erreko ditu. Edo kaxabarrak edo haizeak ere hona dezake landarea. Denbora guztia mugikorrari begira egon behar dugu, zer eguraldi heldu den begira.

Oraindik ia bi urte beharko dira, zuzen bidean, Gardelsoron hazitako lehen ahuakateak saltzeko. Nola komertzializatzeko asmoa duzu?

Ahuakate ekoizpena herrian edo eskualdean saltzea gus-tatuko litzaidake, kamioneta kargatu eta inguruko denda edo jatetxeetara saldu edo merkatura eramanez, baina hagitz zaila da: gaur egun, estatuan ekoizten den ahuakatearen % 80 Frantziara, Suitzara eta Alemaniara esportatzen da. Hortaz, bertako merkatura baztertu gabe, Frantziako merkatura begira nago, produktu ekologikoak hagitz estimatuak direlako eta horiek ordaintzeko prest daudelako. Gainera, mugatik hurbil gaude.

Eskolaldi zatituan batzuk jarraituan bertzeak

Haur eta Lehen Hezkuntzetako 21 ikastetxetan jardunaldi jarraituarekin hasi dute ikasturtea eta bertze hamarretan zatituta bueltatu dira. Bi ereduak mahai gainean, eskualdeko irakasleengana eta gurasoengana jo du TTIPI-TTAPAK iritzi eske

G. PIKABEA

Jardunaldi jarraituarekin batzuk eta jardunaldi zatituarekin bertze batzuk. Halaxe hasi dute 2022-2023 ikasturtea eskualdeko ikastetxeek. TTIPI-TTAPAREN Hegoaldeko eremuan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 31 ikastetxe daude eta horietatik 21etan jardunaldi jarraituarekin hasi dira; jarraitua ezartzeko beharrezkoak ziren hiru botazioetan Nafarroako Gobernuak araututako gehiengo lortu zutelako.

Proposamena aitzinera ateratzeko, lehenbiziko botazioan irakasleen klustroaren % 60k babestu behar zuen ordutegi aldaketa, gero eskola kontseiluaren % 66,6ak eta azkenik, guraso erolda osoaren % 60ak. Prozedura hori gainditu duten ikastetxeetan jardunaldi jarraitua dute, eta hala, ikasturte osoan eskolak goizez bakarrik izanen dituzte. Horrez gain, irailean eta ekainean izan ezik, ikastetxeek arratsaldetan jarduerak eskaini beharko dituzte. Jardunaldi zatituarekin direnek, berriz, pandemia-ara bitarte bezala, irailean eta ekainean goizez, eta gainerako hilabeteetan goizez eta arratsaldez izanen dituzte eskolak.

Hezkuntza Departamentuak mahai gainean jarri zuen hirugarren aukera, jardunaldi malguarena zen, hau da, urritik maiatzera asteen hiru egunez goizez eta arratsaldez eta asteen bitan goizez izatea eskolak, eta irailean eta ekainean, goizez bakarrik. Baina eskualdean ez dago eredu hori duen ikastetxerik.



Iturengo eskolako ikasleak. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Elkarrizketatu adina iritzi

Eredu bakoitzak aldeko eta kontrako iritziak ditu, eta bakoitzak bere arrazoiak. Baina hortik haratago, eskolaldi jarraitua eta malgua eskatzeko prozedura ere eztabaida iturri izan da hezkuntza komunitatean; ikastetxe batean baino gehiagotan gertatu baita gehienak aldaketaren alde izan, baina % 60ra ez ailegatzea, eta hala, jardunaldi zatituarekin gelditzea. Konparazio baterako, Amaiurko eskolan, irakasleen klustroaren eta eskola kontseiluaren aldetik nahiko babes lortu zuten baina gurasoen botazioan boto bakarratik gelditu dira jardunaldi jarraitua ezarri ezinik; edo Lesakako Irain eskolan familien % 56k egin zuen jardunaldi jarraituaren alde, gehiengoak beraz, baina aldaketarako behar zen % 60aren azpitik.

Aldaketarako gehiengo sinplea aski izatea aldarrikatu duten ahotsak ez dira gutti, eta botazio formatuarekin haserre, hainbat gurasok sinadura bilketa egin zuten urte hasieran. 2.000 familia baino gehiagok eskatu zuten jardunaldi aldaketa erabakitzeko gehiengo soila nahikoa izatea. Salatu zutenek, «nahiz eta boto emaitza gehiengo zabala lortu (botoen % 50 baino gehiago), Nafarroako 16 ikastetxeetan ez da posible izanen aldaketa egitea, prozedura arautzaileak ez baitu kontuan hartzen jardunaldi aldaketaren alde dauden familien gehiengoaren ahotsik».

Eskualdean, ikastetxe batzuek eredu bat eta bertzeek bertzea izateak nahasmen franko ere sortu ditu. Bereziki, espezialistak, ateraldiak eta proiektuak partekatzen dituzten eskola ttikietan zailtasunak izan dituzte antolatzerako orduan. Horixe da, adibidez, Baztanen edo Bartzirietan gertatu dena. Baztango eskola ttikien artean, Arizkungoa eta Amaiurkoa dira jardunaldi zatituarekin gelditu diren eskola ttiki bakarrak, eta ezin izanen dute orain arte

Zein jardunaldi dute ikastetxeek?

Baztan

| | |
|-----------------|-----------|
| Almandoz IP | Jarraitua |
| Arriaiz IP | Jarraitua |
| Azpilkueta IP | Jarraitua |
| Elizondo IP | Jarraitua |
| Erratzu IP | Jarraitua |
| Gartzain IP | Jarraitua |
| Irurita IP | Jarraitua |
| Lekaroz IP | Jarraitua |
| Oronoz IP | Jarraitua |
| Ziga IP | Jarraitua |
| Amaiur IP | Zatitua |
| Arizkun IP | Zatitua |
| Baztan Ikastola | Zatitua |

Malerreka

| | |
|--------------|-----------|
| Doneztebe IP | Jarraitua |
| Ituren IP | Jarraitua |
| Saldias IP | Jarraitua |
| Sunbilla IP | Jarraitua |

Bortziriak

| | |
|-------------------|-----------|
| Etxalar IP | Jarraitua |
| Lesakako ikastola | Jarraitua |
| Arantza IP | Zatitua |
| Bera IP | Zatitua |
| Berako ikastola | Zatitua |
| Berako J. Bihotza | Zatitua |
| Igantzi IP | Zatitua |
| Lesaka IP | Zatitua |

Leitzalde-Urumealdea

| | |
|-------------|-----------|
| Areso IP | Jarraitua |
| Goizueta IP | Jarraitua |
| Leitza IP | Jarraitua |

Bertzarana

| | |
|--------------|-----------|
| Legasa IP | Jarraitua |
| Narbarate IP | Zatitua |

Xareta

| | |
|----------------------|-----------|
| Urdazubi-Zugarra. IP | Jarraitua |
|----------------------|-----------|

«Irakasle bezala gustuko dut zatitua, guraso bezala jarraitua nahiago dut»

ROSA MAIZ GOÑI ARANTZAKO ESKOLAKO IRAKASLEA ETA GURASOA

«Haur Hezkuntzako irakaslea naiz, eta jardunaldi jarraitua probatu aitzinetik argi nuen ttikientzat 14:00 arte segidan egitea hagitz aldrebesa izanen zela. Baina uste baino aunitzez hobekiago joan zen. Ttikieni abendura arte 13:00etan ateratzeko aukera eman genien, bi errekreoetan jateko zerbitu ematen genien eta ordutegia egokituta, nahiko ongi moldatu ginen». Halaxe aitortu du Rosa Maizek. Lehen Hezkuntzakoak ere jardunaldi jarraituarekin «nahiko kontent»



UTZITAKO ARGAZKIA

ibili zirela dio, baina ordutegi aldaketa eskatzeko prozedura martxan paratu aitzinetik «gurasoen iritzia biltzeko galdeketa egin genuenean, hagitz guttik erantzun zuten, erdiak jarraituaren alde eta bertze erdiak zatituaaren alde. Ez genuen gurasoen aldetik ordutegia aldatzeko interesik ikusi, eta irakasle gehienei zatitua egokiagoa iruditu zitzaenez, zatitua bueltatzea erabaki zen». Onartu du lanerako jardunaldi zatitua «gustuko» duela, «eguerdian deskantsatzeko aukera» ematen baitio, baina gurasoa ere bada, eta alde horretatik, «jarraitua nahiago dut: Seme-alabak haundituak ditut eta jarraituan aise aguantzen dute. Eskolaren eta eskolaz kanpoko ekintzen artean etxean lasai egoteko eta antolatzeko tarte bat izatea hagitz ongi etortzen da, bertzela, eskolatik atera eta tarrapatka batetik bertzera joan behar izaten dugu, eta etxera ailegatu orduko aunitzetan ilunabarra izaten da».

Guraso elkarteko juntan ere egon berria da eta «jardunaldi jarraituarekin segitu nahi zuten guraso batzuen kezka» ailegatu zitzailela onartu du. Horri erantzunez, «governuak ordutegi aldaketa egiteko epea zabaltzen duenean, guraso elkarteak gurasoei iritzia galdetzea erabaki du, eta gehiengoak aldaketaren alde baldin bada, eskolari eskaera egingen dio. Gurasoen nahia hori baldin bada, eskolan prozedura abiatuko dugu».

Bertzalde, jardunaldi jarraituari lotuta, jangelaren etorkizuna da «kezka» sortzen diona: «Nafarroako Gobernuak jangelako dirulaguntza bi kilometro baino urrutiago bizi direnei ematen die, hau da, etxera joan eta etortzeko denborarik ez dutenei. Jardunaldi jarraitua izanen bagenu, denok denbora berbera izanen genuke, joan-etorria egin beharrik ez, eta ez dakit laguntza mantenduko luketen. Jangela laguntza horri esker dugu martxan, eta jarraituarekin arriskuan egoten ahal da».

bezala gainerako eskola ttikiekin egiten zituzten tailerretan edo gainerako jardueretan parte hartu. Edo Arantza eta Igantziko eskolak jardunaldi zatituaarekin ari direnez, ezin

izanen dute, aspalditik egin duten bezala, Etxalarko eskolakoekin elkartu, honek jarraitua baitu.

Dena den, litekeena da aurreten ere eredu berrikusteko

«Haurren bioerritmorako aunitzez hobea da goizeko jarduera»

NORA SALBOTX ALEGRIA AMAIURKO ESKOLAKO IRAKASLEA

Baztango herri ttikietako eskolek urteak daramatzate elkarlanean. Aurten, ordea, Amaiurko eta Arizkongo eskolatan izan ezik, gehienak jardunaldi jarraituarekin gelditu dira, eta antolatzerakoan «sekulako konplikazioak» izan dituztela dio Nora Salbotxek: «espezialistak, proiektuak, ateraldiak, formakuntzak, koordinazioa... Dena konpartitzen dugulako». Eskolaldi jarraitua izatetik boto bakarrera gelditu dira Amaiurren: «gurasoen bozketan % 58 jarraituaren alde agertu zen, baina ez genuen legeak eskatzen zuen % 60 lortu. Gure eskolan boto batek % 4ko balio du eta beraz, boto bat gehiago atera izan balitz, jarraitua izanen genukeen». Alde horretatik, «prozedura ez da bidezkoa» Salbotxen irudiko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haurrendako jarraitua egokiagoa ikusten du: «Pandemia hasi aitzinetik zalantza haundiak izan nituen, baina probatu ondotik, jarraituaren aldekoa naiz. Garbi gelditu da akademikoki emaitzei eutsi zaiela, eta arratsaldetan hurrek eskolaz kanpoko ekintzak akitu ondotik jostatzeko denbora aunitzez gehiago izan dute, eta josteta hezitzailea eta inportantea da». Bere ustez, «haurren bioerritmoari aunitzez gehiago atxikitzen zaio goizeko jarduera, beraien bizitza egunaren argiari lotuagoa» ikusten du, eta horrez gain, «gure kasuan, jangelari ez dio eragin. Haurrak berdin-berdin gelditu dira jangelan».

«Interesak»

Ondoko ikasturteei begira, jardunaldia aldatzeko «prozedura berriz abiatu edo ez» aztertuko dutelakoan dago, «aldatuz gero, Baztango gainerako herri ttikietako eskolekin bat egingen genuke». Baina hortik aparte, afera honen gibelean dauden «interesak» azpimarratu ditu: «Gai honi buruz solas egiten denean, badira sobera konbentzitzen ez didaten argudio pare bat: Zergatik eskaintzen dute kontzertatuetan goizez eta arratsalde? Zergatik da prozedura hain desegokia? Bertzerik gabe, interesegatik. Catering enpresa haundiek sekulako presioa egiten dute eta ikastetxe pribatuetan badago eskolaz kanpoko ekintzak kobratuz negoziarako ildo bat. Igual ez zaie hainbete interesatzen jarraitua. Ez gara ohartzen zenbateko boterea duten enpresa haundiek».

aukera izatea. Eta Carlos Gimeno Hezkuntza Kontseilariak errana du 2023-2024 ikasturte-tik aitzinera eskolako jardunaldiari buruzko guztia foru agindu batekin arautu nahi dutela.

Bertzeak bertze, eskatutako gehiengoak berrikusiko dituztela eta prozesuan familiek parte hartzeko aukera haundiagoa izanen dutela ere aitziundu du. →

«Eskola orduak kolpe batean eginda alde ederra arratsaldea libre izatea»

IKER BARANDARAIN CABALLERO ARESOKO GURASOA

laz hasi zen Iker Barandarin lau urteko alaba Aresoko eskolan «eta bestelako eredurik probatzeko aukerarik izan gabe, jardunaldi jarraituan» egokitu zitzaion. «Hasieran beldurra» sentitu omen zuten; «aurreneko urtea, hainbeste ordu segidan... gehiegi ez ote ziren izango. Baina bi atsedernaldi dituztenez eta saiorik arinenak bukaeran, ederki moldatu zen». Hala, «gustura hartu genuen arratsalde guztia libre izatea. Bazkalondoa siesta lasai egiteko aukera eman zion eta gero arratsalde osoa libre izatekoa». Jardunaldi jarraituak kokoragoak diren haurrei ere «lasaiago ibiltzeko aukera ematen diela» dio aresoarrak: «arratsaldeari ez zaizkio eskolarako orduak kentzen eta eskolaz kanpoko jardueraren bat baldin badute ez dira eskolatik atera eta korrika eta presaka ibiltzen». Dena den, bere ustez, «ezin liteke esan kontziliazioaren izenean egiten den aldaketa denik. Gehiengoak zortzi orduko lanaldia badugu eta haurrak eskolan bost orduz egoten badira, puzzlea osatzen nahiko lan izaten da». Jangela zerbitzua ere hizpide izan du: «eskola handietan, jangela zerbitzuarekin eta eskolak eskaintzen dituen jarduerekin haurrak beranduago hartzeko aukera dute, baina Areson ez dugu jangelarik eta derrigor behar dugu bazkalorduan haurren kargu egingo den norbait. Lehen, haurrak jaso eta berriz ere eskolara eramateko. Orain, eskola eguerdian bukatuta, arratsaldeko joan-etorria ez dugu egin behar».



E. IRAOLA

«Jarraituarekin arratsaldea luzea da eta haurren aisea hobea da»

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI ELIZONDOKO GURASOA

«Baztan Ikastolan gurasoen gehiengoak jardunaldi jarraituaren alde zegoen, bozketan % 58 inguru atera zen alde, baina ez genuen behar zen gehiengorik lortu eta zatituarekin gelditu gara». Fernando Anbustegiren hitzak dira. Jarraituaren aldekoa da, «azken bi urteotan, jardunaldi jarraituarekin, hobeki ikusi baititut haurrak, gehienbat eskola 14:00etan akitu eta arratsaldetan denetarako denbora izaten zutelako: eskolaz kanpoko jardueretarako, etxeko lanak egiteko, lagunekin egoteko... Arratsaldea luzea zen eta haurren aisea eredu hobea iruditzen zait». Dioenez, «talde kohe-siorako edo lagunak egiteko egokiagoa izaten ahal da zatitua, zatituarekin ikastolatik ateratzean parkean gelditzen baitira jostatzen. Jarraituarekin, aldiz, denak etxera joaten dira eta gero ez dira elkartzten. Gehienbat ttikien artean gertatzen da hori, kokoragoak beraien artean gelditzen dira». Gisa berean, onartu du «jarraituarekin neke gehiago sumatzen ahal dela ttikien artean». Dena den, «gurasoen gehiengoak jarraituaren alde izanda» ikastolan berriz ordutegia aldatzeko bozkatuko dutelakoan dago, eta bere ustez, «haurrek ere nahiago dute jarraitua». Hortik aparte, eredu aldaketak bertzelako eragozpenak ere sortu ditu: «Elizondoko eskolan jardunaldi jarraitua dute, eta gurean zatitua. Ikastolako ikasle batzuek beraien autobusa erabiltzen zuten, eta orain, ordutegi desberdina izateak buruhauste batzuk eragin ditu».



BDB

«Alabarengan pentsatuz jardunaldi jarraitua egokiagoa ikusten dut»

ITSASO ETCHART IPARRAGUIRE URDAZUBIKO GURASOA

Zugarramurdiko eskolan jardunaldi jarraituarekin hasi du ikasturtea Itsaso Etcharteren zazpi urteko alabak. Ereduarekin «ados» dago, eta are gehiago, «pandemia aitzinetik eta ondotik eskolak izan duen funtzionamendua kontuan hartuta, alabarengan pentsatuz» horixe ikusten du egokiena. «Pandemia aitzinetik, gurasoak lanean gineenez, alaba ezin zen eguerdian etxera bazkaltzera bueltatu eta jangelan gelditzen zen. 16:30 arte ez zen etxeratzen. Etxera joateko aukera zutenek ere

tarte ttikia zuten autobusean etxera bueltatu, bazkaldu eta berriz eskolara joateko. Ez zuten siesta egiteko aukerarik ere. Orain, jarraituarekin, aunitz 14:00etan ateratzen direnez, denborekin bazkaltzeko eta nahi izanez gero, siesta egiteko aukera dute».

Alde on aunitz ikusten dizkio jarraituari: «goizetan ikasleen errendimendua eta atentziarako gaitasuna hobea da, eskolatik ez dira horren nekatuak ateratzen, bazkaldu ondotik deskantsatzeko, jostatzeko,



UTZITAKO ARGAZKIA

bueltatzen dira etxera, jangela zerbitzua eta arratsaldeko jarduerak dituztelako. Horrek kontziliazioa errazten du».

Dena den, alde txar batzuk ere ikusten dizkio jarraituari: «09:00etatik 14:00etara 30 minutuko atsedernaldi bakarra dute astean lau egunez, gurasoen laneko ordutegiagatik aunitz ezin dira 14:00etan atera eta jangelara eta arratsaldeko ekintzetara joan behar dute, gogorik izan gabe ere...».

Aitortu duenez, «aurtengo ikasturtean ikusi beharko dugu ereduarekin ongi moldatzen garen edo ez. Alabak bi egunez arratsaldetan gelditzea erabaki du jarduerak gustuko dituelako eta beraz, ikusiko dugu».

«Jardunaldi aldaketa egiteko portzentajeak ez dira bidezkoak»

ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR LESAKAKO IRAKASLEA


Eneko Fernandezi «bidegabeak» iruditzen zaizkio «jardunaldi aldaketa egiteko eskatzen dituzten portzentajeak», eta «legedi berria» aldarrikatu du, «bertze botazio guzietako sistema izatea, hau da, botoa ematen dutenen gehiengo sinplea nahikoa izatea». Lesakako eskolako irakaslea izaki, hango adibidea ekarri du mahai gainera: «Lesakan, gurasoen botazioan, 71 boto izan ziren jardunaldi jarraituaren alde, eta 40 kontra. Aldekoak gehiago izanda ere (% 56), errolda guziaren % 60ra ailegatzen ez zirenez, jardunaldi zatituta bueltatu gara». Lesakakoa ez da kasu bakarra: «Iruñerrian aldekataren aldeko botoak bikoitza izan diren kasuak izan

dira, 200 alde eta 100 kontra, baina ezin izan dute aldatu. Eta gure kasua antzekoa da». Horixe da bere ustez «kritikagarria eta aldatu behar dena», eta «aldaketa hori eskatu duen talde bat badela» oroitarazi du.

Jarraian nahiago

Hortik aparte, jardunaldi jarraitua edo zatitua egokia zein den «bakoitzak ikusi behar du» Fernandezek hitzetan: «Hori librea da, bakoitzak bere argudioak izanen ditu eta errespetatu behar dira. Eskola guziek bi ereduak probatu dituzte eta orain bai, gai gara konparatzeko eta hobea zein den aukeratzeko».

Beretzat «jardunaldi jarraitua egokiagoa» da, «aukera gehia-



BDB

go ematen dituelako. Ez naiz gurasoa, baina gurasoek ere aukera gehiago dituzte, hiru momentutan har baitezakete haurra». Horrez gain, «haurrentzat arratsaldetan bazkaldu eta bueltatzea hagitz gogorra» dela nabarmendu du: «nekatuak ikusten dira. Batzuk goizez gehiago nekatzen direla erraten dute, baina niretzat ez. Denok dakigu bazkaldu

ondotik nola egoten diren gorputzak eta zenbat kostatzen den berriz aktibatzea. Arratsaldetako motibazioa eta gogoia ez da berdina». Ez hori bakarrik, «eskola goizean izateak arratsaldetan edozein gauza egiteko aukera ematen diela» aipatu du: «14:00etan edo 16:00etan atera bada aldea, gauza guziak bi ordu gibelatzen dira».

Dena den, argi utzi nahi izan du «igual tikiagoetan bertze zerbit nabarituako dutela, baina ni 5. eta 6. mailako ikasleekin ari naiz, eta goizetan arratsaldetan baino aunitzez ere motibatuagoak, kontzentratuagoak eta indartsuagoak egoten dira». Bide batez, «jantzela gatazkarako momentua dela» ere adierazi du, eta «gatazka horiekin etortzen dira geletara. Alde horretatik ere arratsaldetako saioak gogorragoak egiten dira».


«Jardunaldi jarraitua ezartzeko erabakia eskola komunitate osoarena izan da»

ARANTZA DIEZ ARANBURU ITURENGO ESKOLAKO IRAKASLEA

Orduetegi jarraitura aldatzeko jarrera aise nagusitu zen Iturengo eskolan, hiru botazioetan, gainera. Arantza Diezek kontatu duenez, «klostroaren botazioan % 100 alde agertu zen; eskola kontseiluko partaide guztiek ere baiezkua eman zuten eta gurasoen botazioan, % 85 atera zen alde. Botazioa egin aurretik proiektua familiei aurkeztu eta pentsatzeko denbora utzi genien. Azken hitza Hezkuntza Departamentuak izan zuen, eta honek baiezkua eman ondotik, aurten hasi gara ohiko jardunaldi jarraituarekin, joan den urtekoa Covid-ak eragindakoa baitzen». Goizez aritzearen «iazko esperientzia» hori dutela dio, eta «hasi besterik egin ez bagara ere, momentuz oso ongi ari gara jarraituarekin». Horixe da haurrendako eredu-

rik egokia bere irudiko: «Jarraituarekin ikasleen errendimendu maila haunditu da. Lehenago, zatituarekin, arratsaldeko saioak pisutsuak egiten zitzaizkien, eta gainera, bazkariko etenaldiaren ondotik, askotan ez zen samurra izaten gelara bueltatzea. Orain, goiza luzeago egiten da, baina bai haurrek bai irakasleok martxa hartu dugu eta egiazta-tu dugu ordu erdiko atsedendia eginda, askoz ere hobekia- go erantzuten dutela egunero-koan, baita sozialki ere, gatazka gutxiago sortzen direlako».

Ez da jarraituari ikusten dion alde on bakarra: «familiek egunero-koa antolatze-ko askoz ere aukera haundiagoa dute. Haurrak 14:00etan har ditzakete, edo jantokian gelditzen badira 15:00etan edo 15:30ean, eta arratsaldeko tailerretara joaten



UTZITAKO ARGAZKIA

badira 16:30ean. 14:00etan etxera bazkaltzera joanez gero, nahi badute arratsaldeko tailerretara bueltatzen ahal dira». Dioenez, «tikiek ere hobekia- go erantzuten dute jarraituarekin, beraien erritmo biologiko-ko hobekiago egokitzen da».

Arratsaldetako tailerrak 15:30etik 16:30era dituzte, eta adina- ren arabera, bi taldeetan banatu- ta, ludoteka, zinemagintza, dan- tza eta antzerkia, IKT eta kantak/ songs, multikirola edo psiko-

motrizitatea dituzte, baita etxe-ko lanak egiteko tartea ere, «irakasleok gidatuta». Arratsal- detako jarduerak «dohainik direla eta ez direla derrigorrez-koak» aipatu du: «Zinemagintzan eta dantza eta antzerkian kon- promisoa eskatzen dugu jar- duerek jarraitu izanen dute- lako, baina gainerakoetan, malgutasunez jokatu dugu. Haurrak etor daitezke edo ez». Arduradunak irakasleak direla, eta «hor egon behar dugula» ere gaineratu du. Eta jantoki zerbitzua «mantendu dutela» nabarmendu du: «beti bezala, diruz lagundu dute».

Argi utzi nahi izan du jardun- di jarraitua ezartzeko erabakia «ez dela irakasleona bakarrik izan, eskola komunitate osoa- rena izan dela». Bide beretik, «ikasturte bukaeran jardunaldi jarraituari buruzko balorazioa egin eta familien iritzia biltzeko» asmoa dute: «Horren arabera erabakiko dugu heldu den urtean horrela jarraitu edo ez».

Bideak proiektuko bekak esleitu ditu udalak

Mikelperizena familiak eta Asier Gogortza artistak eskuratu dituzte bekak Urruñako bi artistekin batera

A.LARRETXEA

Berako eta Urruñako Udalek sustatu dute Bideak proiektua bi herrien arteko bideak berreskuratuz bertako ondarea bildu, ezagutzera eman eta zabaltzearekin batera, bi herrien arteko harremanak sendotzeko. Horretarako, bi herrietako artistentzako beka deialdia egin zuten abuztuan, eta dagoeneko esleitu dituzte zeinek hartuko dituzten bekak.

Deialdira hiru norbanako eta talde bat aurkeztu dira: Urruñatik Odei Barroso bertolaria eta musikaria eta Jo-

seba Aurkenerena idazle eta irakaslea. Beratik, aldiz, Asier Gogortza ibilbide luzeko diziplina anitzeko argazkilaria eta artista eta Mikelperizena familia, Iciar eta Javier anai-arrebak, eta Feliciano aita. Iciar margolaria da, Javierrek burdina eta harria lantzen ditu, eta aitak, aldiz, Larhunuen egin du lan bizi osoan, eta kontrabando istorioak ezagutu eta bizi izan ditu.

Irabazleak erabakita, bi herrien arteko partaideekin bi bikote osatu dituzte: alde ba-

tetik Gogortzak eta Barrosok osatuko dute lehen bikotea, eta Mikelperizena familiak eta Aurkenerenak bigarrena. Bikote bakoitzari, aldiz, lan egiteko bide bat esleitu zaien.

Intzolako bidea

Intzolako bidea egokitu zaie Barrosori eta Gogortzari. Intzolako bidea XIX. mendearen bukaera arte bi herrien arteko ibilbiderik erabiliena eta garrantzitsuena izan zen. Berako Itzea auzotik aterata, Usategietako lepoan barna, Bidostegiko bidean goiti, Intzolarara joaten da. Handik, 18. mugarrira pasata, Erleen lepora segitzen du, Airelekun barrera Urruñako Olheta auzoko Urtubienbordara ailegatzeko. Bi artistek elkarlanean proposamen bakar bat landuko dute, elementu protohistorikoak, Intzolako ola eta burdinaren eta ikatzaren garraraioa, meategiak edo Espainiako gerrako langile-barrakoi

eta bunkerrak abiapuntu hartuta.

Mandobideko bidea

Mikelperizena familiak, eta Aurkenerenak osatutako bikoteak Mandobidea deituriko bidea izanen du abiapuntu proiekturako. Berako San Esteban elizatik atera, Postan goiti, Ibardingo meategiak bazter utzita Ibardingo lepora egiten du bideak. Handik, Batzarleku gainetik, Herbururaino jaisten da. Kontrabandistek maiz erabilitako bidea da, ondare immaterial aunitzekoa. Proiektua gartzetzerakoan, kontrabandoa, fazeriak eta nekazaritza harremanak, edo Konbentzioaren gerra eta frantsesista landu beharko dituzte.

Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du bi udalek sustatutako proiektua, eta artistek urriaren 31rako bukatu eta aurkeztu beharko dituzte egingdako lanak.

Asteburu honetan eta hurrengoan Gure Zirkua izanen da herrian

A.LARRETXEA

Gure Zirkua herrian izanen da asteburu honetan, eta hurrengoan. Bidasoa karrikan paratuko dute karpa eta zortzi sesio egingen dituzte. Ortziralean, urriaren 7an, 19:00etan egingen dute lehen saioa; larunbatean eta igandean, sesio

bikoitza egingen dute: 16:30ean eta 19:00etan larunbatean eta 12:00etan eta 17:00etan igandean. Heldu den asteburuan hiru saio izanen dira: Ortziralean 19:00etan eta larunbatean, 16:30ean eta 19:00etan.

Sarrerak www.gurezirkua.eus helbidean daude salgai.



Bi asteburutan izanen da Gure Zirkua karpak herrian. KARKARA

Suteia-Zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK

15
ANOS DE EXPERIENCIA

**PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK**

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadak gutxi integratuak, portal barutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskalerrak tartean integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo estroparik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portaleneko sarbidea egokitzeko dugu. Azkar egingen ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

Etxeen izenak zabaltzeko plakak paratuko dituzte

Udalak finantzatu ditu plakak, eta helburua herriko etxeen izenen erabilera ezagutaraztea eta sustatzea da

A.LARRETXEA

Pello Irazoki herritarrek, udalarekin eta Bortziritako Euskara Mankomunitatearekin elkarlanean, Berako etxeen izendegia osatu du. Orain, izendegi hori karrikara eramatea da asmoa. Etxetako jabeek hala nahi izanez gero, etxearen izenarekin eta eraiki zen urtearekin plaka bat jartzeko aukera paratu du martxan udalak. Altzairuzko plaka izanen da, eta kostua udalak hartuko du bere gain.

Illekueta auzoan paratu zituzten lehenengo plakak eta orain Zalain auzora zabaldu nahi du udalak ekimena. Zalainen egin ondotik, asmoa, herriko bertze auzoetara zabaltzea da.

Etxeen izenari dagokionez, Pello Irazokik egindako artxibo lanean oinarritu dira, eta



Altzairuzko plakak izanen dira.

Andres Iñigo euskaltzainak emandako gomendioak hartu dituzte kontuan.

Proiektuaren helburua etxe izenen garrantzia berreskuratzea da. Erdi Arotik hasita, modu ofizialean erregistratuak ageri dira etxe izenak eta nor-tasun berezia izan dute euskal gizartean. Gaur egun, ordea, herritarrik gazteenak ez dituzte etxe izenak ezagutzen eta erabiltzen, eta hori sustatu nahi dute proiektuaren bidez.



UTZITAKOIA

Teresa Etxebeste Zozaiak 100 urte

Sortzez igantziarra den, baina, azken urteetan Beran bizi den Teresa Etxebeste Zozaiak 100 urte bete zituen irailaren 18an. Ospakizun bikoitza egin zuen, bezperan Errenteriako bizilagun eta familiarekin ospatu zuen, eta urtebetetze egunean Berako San Jose egoitzako bizilagun eta langileekin.

'Berako ondarea plazara' jardunaldiak egingen dituzte urriaren 14an eta 15ean

TTIPI-TTAPA

Berako ondarea plazara izen-buruean, solasaldia eta ibilbide gidatua antolatu dituzte Mugerri elkarteak, Ziburuko Jakintzak eta Berako Udalak. Urriaren 14an Jakintza Elkarte-ko Paul Badiolak *Lizuniagatik Kaulera, arrastoen bila*

solasaldia eskainiko du Bera-landetan, 19:00etan. Biharamunean, Kauleko Larraina bisitatzeko ibilbide gidatua egingen dute. Bisita doan da, baina izena eman behar da mugerri@gmail.com helbirean edo 666 13 00 45 zenbakian.

LABE ZAR
Astrolabonetik
ortziraleraz:
07:15etik
aitzineraz
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzineraz
948 631 076 • BERA

BEKO
LOREAK ETA LANBAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Jauriena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurienabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak
Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ALOA KIROLAK
ALDOREAN: STORE, TERNIA, IZOS, SIGATA, FJOLUV, SALOMON, Jhayper, ASICS
aloakirolak@gmail.com
Altzate 22, Bera
848 85 00 65 - 615 26 28 98

«Gobernuak ia osorik finantzatuko ditu premiazko lanak»

AITOR ELEXPURU ETA ESTEBAN AGIRRE BERAKO ALKATEA ETA HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

Azken uholdeen ondorioz, ez-ohiko lanak egin beharko ditu Berako Udalak. Lan horiek finantzatzeko egindakoez, eta hirigintzako bertze proiektuez mintzatu dira Agirre eta Elexpuru

A.LARRETxea BERA

Iazko abenduan eta aurtengo urtarrilean izandako uholdeek erabat baldintzatu dute Berako Udalaren jarduna. Uholdeek premiazkoak eta atzeraezinak diren bi lan egiteko beharra eragin dute: alde batetik Zalaingo eta Foruen plaza arteko ur-hodia berritzea, eta Plaza Zaharreko erortzea eragin zuen kanala konpontzeko behin betiko lanak egitea. Bi lanek milioi bat euroko aurrekontua dute, eta horrek kolokan jarri ditu udalak esku artean zituen bertze proiektu batzuk. Nafarroako Gobernuarekin egindako finantziario akordioak, ordea, arnasa eman dio udalari eta, beraz, aitzinera segituko du bere asmoekin. Aitor Elexpuru Berako Alkateak eta Esteban Agirre Hirigintza zinegotziak egindako lanen eta egiteko gelditu diren lanen balorazioa egin dute.

Zeintzuk ziren aurtengo egiteko aurreikusitako zeuden eta gauzatzeko arriskuan egon diren obrak?

Aitor Elexpuru: Obra garrantzitsuenetako bat Eztegarra Matzadarekin lotzea zen, Labiaga Ikastolaren parean Sas-trako erreka gainean zubia eginez. Obra hau garrantzitsua da Matzada aldera doan trafikoa Altxate eta Illekuetatik atera eta alde zaharreko karrika horietako zirkulazioa murrizteko. Gainera, oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabide bat egin nahi genuen Zia erreka gainean, Angu-

lero parean, Lizuniagatik Altxatera heldu diren txirrin-dunlariak eta oinezkoak errepidetik atera eta alternatiba bat emanez.

Eta zein da egun dagoen egoera?

Esteban Agirre: Obra horietarako exekuzio proiektuak dagoeneko eginak daude, eta diruzaintzako gerakina erabili behar zen finantzatzeko. Baina, uholdeek kaltetutako lana egitea premiazkoa zenez, horien finantzaketa lehenetsi eta bertzeak bertan behera utzi genituen.

A.E: Milioi bat euroko aurrekontua duten premiazko bi obra dira, Zalaingo eta Foruen plaza arteko ur-sareak 513.417 euroko aurrekontua du, eta Plaza Zaharreko kanal berriak 498.000 eurokoa.

Beraz, aipatutako proiektuak geldiarazi behar izan dira.

E.A: Argi zegoen Plaza Zaharreko kanalaren behin betiko konponbidea premiazkoa eta lehentasunezkoa zela. Era berean, ezinbertzeko da ur-sarea berritzea, Zalaingo inguruko etxebizitzaren eta enpresen ur-hornidurak kalteturik zudelako eta Zalaingo ur-biltegia ezin zelako sare orokorrera konektatu. Horrek areagotu egiten zuen lehendik genuen hornidura-arazoa.

A.E: Udalean lan horiei lehentasuna eman behar zitzaizela ikusi genuen, bertze obretarako aurreikusitako dirua horien finantzaketarako erabiliz. Egoera horrek erabat hipote-

katzen zituen aurrekontuen aurreikuspenak, eta bertze inbertsio batzuk egiteko tartetik gabe uzten gintuen, eta horrek Nafarroako Gobernuaren finantzaketa bilatzera behartu gaitu.

Zer erantzun jaso duzue gobernutik?

A.E: Egoera hain zaila zenez, ahal dugun dena egin dugu aurrekontuak ez hipotekatzeko eta finantzaketa lortzeko. Alde batetik, Zalaingo Foruen plazara bitarteko ur-sarearen proiektua aurkeztu genuen Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetatik egindako dirulaguntza deialdi batera. Gure proiektua onartu dute, eta gobernuak inbertsioaren % 80 finantzatzea lortu dugu.

Eta Plaza Zaharreko kanaleko lanekin?

A.E: Hasieran Txibite presidenteak erran zigun lanen ardura gobernuaren gain har-

«AHALEGIN HANDIA EGIN DA FINANTZAKETA LORTZEKO»

«UR-HORNIDURAREN ARAZOA GERO ETA HANDIAGOA IZANEN DA»

tuko zutela. Hori, ordea, ezinezkoa izan da kasuistika hagitik bereziko ezbeharrak izan baita. Urgentziatzeko lana da eta ezin izan gara Europako dirulaguntzen esperoan egon. Politikoki landu dugu gaia, eta udalak, EH Bilduko parlamentariak eta Nafarroako Gobernuak hainbat departamentu egindako bilera anitzen ondoren, azkenean lortu dugu gobernuak finantzatzea obra osoa. Nafarroako Parlamentuan aurrekontu aldaketa bat egin behar izan dute eta Lurralde Kohesiorako Departamentuak sustatuko du.

Zein izan da horren ondorioa?

E.A: Premiazko bi obra horien finantzaketa ia osoa lortu izanak aukera eman du premiazko obra horietarako erabiltzeko zen dirua aurreikusitako planetarako erabiltzeko, eta, horrela, Eztegarra-Matzada loturako eta bizikletentzako pasabide proiektua berriz hartzeko.

Beran ur-horniduraren inguruan dagoen arazoaz solastatu zarete. Zer bertze ekintza aurreikusi dituzte Udalak?

A.E: Berako ur-horniduraren afera arazo historikoa da. Hainbat irtenbide planteatu dira hornidura-iturri berriak bilatzeko, baina hori ez da nahikoa, banaketa-sarearen egoera ere ez baita ona. Azken urteotan hainbat hobekuntza eta inbertsio egin dira, eta horiek nabarmen hobetu dute banaketa, baina oraindik lan anitz dago egiteko.

Zein dira alor horretan egin beharreko lan inportanteenak?

A.E: Une honetan hiru puntu kritiko daude: Kanttonberrin, Altxaten eta Illekueta eta Legia karriketan. Gainera, zoladura berritu behar da hornidura-eta saneamendu-sareekin batera. Udalak jarduerak horien memoria baloratuak egin ditu, Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Planetan aurkezteko eta datozen hilabeteetan ebatziko dute deialdia. Espero dugu jarduerak horietakoren batekin hasi ahal izatea.

E.A: Ur-horniduraren arazoa gero eta handiago izanen da, klima-aldaketaren eraginez, eta ahalik eta neurri gehien hartu beharko dira ondorioak gutxitzeko. Obra horiei guztiei ekitea gustatuko litzaiguke, bai eta mugikortasuna hobetzeko galtzadak eta espaloiak berritzea ere.

Hirigintzari dagokionez, Nasuvinsa alokairu sozialeko 8 etxebizitza eraikitzen ari da.

E.A: Eraikuntzak aitzinera segitzen du, baina atzerapen txiki bat egon da, eta udazkenean amaituko dira lanak eta martxoan esleituko dira.

A.E: Sustapenerako izena eman duten beratarren kopurua ezagutzea interesatzen zaigu; datu hori kontuan hartu ahal izanen dugu herrian alokairu sozialaren beharrak atzemaiteko eta Nasuvinsarekin promozio berriak lantzeko.

Aukera ikusten duzue, beraz, promozio berriak garatzeko?

A.E: Guri interesatzen zaigu ikustea Beran zenbaterik emanen duten izena. Horrekin badugu argazki bat Nasuvinsari aurkezteko, eta gure beharrak zein diren errateko. Normalean udalak lurra jarri, eta Nasuvinsak eraikitzen du, baina, berriak eraikitzeko ikerketa edo diagnostiko bat egon behar da. Etorkizunean bada asmoa horrelako promozio gehiago ateratzeko. Udalak lur gutxi batzuk ditu eskaintzeko horrelako proiektuak aitzinera ateratzeko.

2019ko datuen arabera, 1.787 etxebizitza zeuden Beran, eta horietatik 1.378 ohiko bizilekuak ziren. Horrek erran nahi du 409 etxebizitza huts daudela. Zer irakurketa egiten duzue?

A.E: Etxe hutsak badaude, kontuan da alokairuan bizi nahi duenak arazoak dituela alokatzeko. Benetako eskaintza handirik ez dago, alokairurako etxeak aurkitzea kostatzen da. Badakigu hutsak badirela, baina, dugu perzeptzioa da ez direla gehiegi.

E.A: Hutsik dauden etxebizitza aunitz alde zaharrekoak dira,



Aitor Elexpuru alkatea eta Esteban Agirre Hirigintza zinegotzia Berako Herriko Etxe aitzinean. TTIPI-TTAPA

zaharrak dira eta ez daude bizigarri gaur egun eskatzen den estandarretan. Daukagun arazoa da, sustatzaileek behin eta berriro erraten digutela alokairuko eskari gutxi dagoela. Baina nola eskatuko dute, bada, eskaintzarik ez badago?

Alokairu falta da, orduan, zuen ustetan Berako gabezia handiena?

A.E: Bai. Beran lurra badaude eraikitzeko. Lur pribatuak dira, eta sustatzaileek ez da prest etxebizitza kolektiboak egiteko. Azken bi urtetan pare bat eskaintza izan ditugu. Guk horrelako promozioak egiterakoan, babes ofizialerako etxebizitza kopuru bat eskatzen dugu, eta orduan gibelerara egin dute. Udalera etortzen dira

herritarrak etxebizitza berrien eske, aukera bila.

E.A: Gaur egun familia bakkarreko promozioak egiten ari dira. Joera hori ikusten ari gara, baina, udaletik pisu kolektiboen aldeko apustua egiten dugu. Berako hirigintza planak zehaztu du pisu kolektiboen kasuan etxebizitza berrien zati bat babes ofizialerako izan behar dela, eta gu ez gaude prest hori aldatzeko.

Nola ikusten duzue agintaldi honen bukaera?

E.A: Plaza Zaharreko kanala aurten bukatu nahi dugu, eta etxebizitzaren esleipena ere egin egotea espero dugu. Bertze proiektuak, hala nola Zalain eta Foruen plaza arteko ur sare berria, Matzadako lotura eta

Anguleroko pasabidea hasita egonen lirarteke. Ur-hornidurako bertze obraren batekin hasteko asmoa ere badugu.

A.E: Badira hainbat proiektu hurrengo agintaldirako utzi beharko direnak. Proiektu horiek zehaztuak daude eta egiteko gobernuaren finantziarioa nahitaezkoa da. Aurretik ikusi dugu hagitz inportantea dela interlokuzio zuzena izatea gobernuarekin, lortu ditugun laguntzak Nafarroako Parlamentuko EH Bilduren parlamentarioen bitartekaritza esker lortu baitira. Horregatik, lan egingen dugu herritarren konfiantza irabazteko hori izanen baita herria atzinera egiteko biderik seguruena.

Coworking gunea martxan paratuko du udalak Eskribonean

Interesatuak apuntatu daitezke dagoeneko, zortzi leku izanen ditu eta hilabetean 10 euro ordaindu beharko dute

AITOR AROTZENA

Telelanean ari direnei edota norbere enpresa martxan jartzeko toki bat behar duteegi begira, udalak coworking gunea martxan paratu nahi du Beheko Plazako Eskriboneko beheko solairuan, berriki arte turismo bulegoa hartzen zuen lokalean. Lan partekatuko gune honetan interesatuta daudenek irailaren 27tik aitzinera apuntatu daitezke tokia lortzeko.

Gune honen erabilera eta prezioak arautzen dituen ordenantza ere onartua du udalak. Hasiera batean maiatzaren 19ko batzarrean onartu zuen eta eta ekainaren 7ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik, jendaurreko epean inork ez zuen alegaziorik aurkeztu eta behin betirako onetsi zen.

Gisa honetako eremuek azpiegitura komunak dituzte ingurune bakar batean eta zenbait abantaila dituzte erabiltzaileentzat: inbertsioa behar txikiagoak materialean, ekonomia ustiapen kostuetan, proiektuaren hasierako beha-

rretara egokitutako espazio fisikoa izatea eta jarduera hasteko azkar kokatzeko eta instalatzeko aukera. Lan-eremua errentan emanen da, baita bideo-deien eta bileren gela bat ere eta horiek guztiak instalazio komun guztiak erabiltzeko eskubidea izanen dute.

Eskriboneko beheko solairuak 65,57 metro kuadro ditu, hiru espaziotan banatua dago eta bertan zortzi coworking gune daude. Erabileragatik udalari ordaindu beharreko prezioa hilean 10 eurokoa izanen da (gehi BEZa) eta udalaren kontu izanen dira argia, berokuntza, ur-beroa, internet, garbiketa eta zaborrak. Udalak guttienez sei hilabeterako utziko du espazio partekatu horien eta bulego pribatuaren erabilera, baina bi urtera arte luzatzeko aukera izanen da. Bi urteren buruan bertze erabiltzailerik agertzen ez bada, udalak bertze sei hilabetez luzatzeko aukera eman dezake, baita errentamendua bukatutzat emateko ere.

Informazio gehiago www.lesaka.eus webgunean

Ikasketa akabailako 500 euroko udal beka Irantzu Goienetxek eskuratu du

A. AROTZENA

Lesaka ikergai duten ikasketa bukaerako proiektuak egiteko dirulaguntza bat eman zuen iaz udalak. 2021-2022 ikasturterako Irantzu Goienetxe Batzerek eraman zuen dirulaguntza, *Gurasoen banaketa edo dibortzioak beraien seme-ala-*

ben emozio eta eskola-errendimenduan duen eraginalana aurkeztuz. Joan den asteazkenean egin zuen lanaren aurkezpena udaletxean, eta bidenabarkoan, ikasturte honetarako ere 500 euroko bi beka emanen dituela jakinarazi zuen udalak.



AITOR AROTZENA

Gazta pusken bisita gidatu ederra

Eguraldi bikaina lagun ospatu zuten irailaren 17an Arrano elkartearen eguna. Agiñara mendi buelta eginez ekin zioten egunari, baina eguneko berrikuntza nagusia *Gazta pusken bisita gidatua* karrika antzerki irriemangarria izan zen. Ondotik, zikiro-jatea, poteo musikatua eta DJa izan zuten.



UTZITAKOA

Alkaiagako Zelaian plaza egokitu dute

Alkaiagako Zelaia inguruan plaza eokitzeke 36.612 euroko inbertsioa egin du udalak, Lua arkitekto bulegoak egindako memoria eta obra zuzendaritza eta Arrikkok egindako lanak barne. Elektrizitate-hartunea egin, zola berritu, eta argiak, iturria, zaborrontziak eta bankuak paratu dituzte.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Osatzuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Aitzate 1 BERA

Usategietako Igandea ekitaldiz gainezka dator

Mus eta partxis txapelketa eta tortilla lehiaketaz gain, musika ere izanen da urriaren 15 eta 16ko asteburuan

IRUNE ELIZAGOIEN

Gazteen eskutik, urriaren 15ean hainbat ekitaldi izanen dira. Larunbatean 17:00etan mus eta partxis txapelketa frontoian. Izen ematea frontoian 16:30etik aitzinera. 19:00etan patata tortilla txapelketa izanen da bi kategoriatan: 16 urtetik beherakoak eta adin horretatik gorakoak. Urriaren 12a baino lehen izena eman behar da Elutsan edo Herriko Ostatuan. Tortilla egiteko beharrezko tresnak norberak ekarriko ditu. Osagaiak patata, tipula eta arrotzeak. Tortilla apaintzea baloratuko da. 23:00etatik 01:00etara Burrumba elektrotxarangaren emaldia izanen da ostatuan atarian. Urriaren 16an, Usategietako igandearekin, eguraldi ederra izanez gero, Altxatak talo postua jarriko du Lizarietan. Arratsaldean, berriz, ostata eta bokadiloak eskainiko ditu frontoian eta musika izanen da udalaren eskutik.

Sasoia hasi da

Irailaren 25ean ospatutako Usategietako tradizioaren



Tradizioaren besta ere ospatu zen.

bestaren ondotik, urriaren 1ean hasi zen sare bidezko uso harrapaketa tradizioaren sasoia. 600 urte baino gehiago dituen tradizio hau ikusteko bisita gidatuak ere martxan dira. Urtero bezala, urriaren 1etik azaroaren 20ra bitarteko larunbat, igande eta besta egunetan. 10:00etan izanen da euskarazko bisita eta 12:00etan gaztelerazkoa. Ordu eta erdi inguruko inguruko bisitaren prezioa 5 eurokoa izanen da pertsonako eta 10 pertsona baino gehiagoko taldeentzat eta haurrentzat (6-12 urte), 4 euro bakoitzak. Bisitaz gain, ikusentzunezko bat ikusi eta sareetako behatokira sartzeko aukera ere badago.



IRUNE ELIZAGOIEN

Urritzokietako bestak giro onean

Irailaren 14an, 17an eta 18an Urritzokietako bestak ospatu zituzten. Auzotarren antolatutako egitarauko ekitaldiak arrakastatsuak izan ziren eta eguraldi ederra lagun, jende andana hurbildu zen txokolatadara, zingar-jatera eta asaura, baita bertze ekitaldietara ere.

Benantzi Bilbaoren organo kontzertua urriaren 8an

38. Nafarroako organoen musika zikloaren barrenean, Benantzi Bilbaok organo kontzertua eskainiko du urriaren 8an, larunbatean 19:00etan elizan. Kontzertua eskaintzerakoan bi musikariren lanak eskainiko ditu, Eduardo Torres Sevillako konpositorearenak eta Pello Apezetxea, duela guti zendutako herriko apaiza, etnologo, etnografo eta Euskaltzaindiako kide zenarenak. Pellori omenaldia egiteko aprobetxatuko da kontzertua. Sarrera libre izanen da aforoa bete arte.

Oihan enkantea %20ko beherapenarekin

Etxalarko Udalak bi oihan aprobetxamendurako enkante berri bat egingen du: bat Iarmendi eta Zimeldi inguruan eta bertzea Egillun, Ezkututza, Salañeko borda, Arrizabaleta, Unanegi, Hirusasi, Nabarrota, Artzamina, Lizarieta eta Erroitin. Hasierako balioei % 20ko beherapena ezarriko die orain. Eskaintzak aurkezteko epea urriaren 13an, 12:00etan bukatuko da eta enkantea urriaren 14an egingen da 12:00etan. Dokumentazioa eta informazio gehiago www.etxalar.eus orrian.

KAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEDO GUREA
- LIBURUDENDA
- KOLORETANO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

BERRI S.L.

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zelai Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

IGANTZIKO LA VILLA JATETXEA LASTER ENKANTEAN

Goitik beheiti zaharberritua eta instalaziorik modernoenez hornitua

Bueltan da Igantziko La Villa jatetxea, Bortzirietako bihotzean eta XVI. mendeko etxe zahar neoklasikoa den Elizatean kokatua. Urte aunitzez behin eta berriz bueltatzeko osagai guztiak bildu ditu Igantziko La Villa jatetxeak: produktu onak, elaborazio ona, zerbitzu ona eta bezeroa etxean bezala sentiarazi izan duen familia tratua. Horri prezio egokia gehituz gero, ezin gehiago eskatu.

Eraikina goitik beheiti zaharberritu du Igantziko Udalak. Proiektua, bertzeak bertze, Nafarroako Euskal Arkitektoen Elkargo Ofizialak banatzen dituen sarien artean, sari aipagarriena lortu duen RUE Space estudioaren eskuetan utzi du.

Kanpoaldean, eraikin zaharrari atxikita espazio berria, ostatua eta lorategia lotuz.

Barrenaldean, ostatua eta jatetxea lehenbiziko solairuan, sukaldea erdian dutela, barra eta jangela modu erosoan hornitu ahal izateko.

Karga-jasogailua eta beheko solairuko biltegiara barrenetik sartzeko eskailerak.





Ganbaran, esleipena lortzen duenarentzat bainugelarekin prestatutako gela, atsedean hartzeko. Irisgarritasuna bermatua. Eraikinean igogailua, baita lorategira sartzeko ere.

Bigarren solairuan Igantziko Biltoki elkarte, kultur eta kirol ekitaldiak bultzatzen 40 urte baino gehiago daramatzan elkarte. Egungo espazioa eskola handitzeko utziko du.

Beheko solairuan, erabilera anitzeko gela, bilerak, tailerrak, erakusketa tikiak... egiteko.

Anbizio handiko proiektua, Nafarroako Gobernuaren proiektu estrategikoen zuzendaritza nagusiaren 200.000 euroko dirulaguntzarekin eginga.

Obrak azken txanpan! Eta orain bai, instalaziorik modernoenez hornituta, Igantziko Udalak laster aterako du La Villa ostatu-jatetxea enkantera, historian izan duen eta horrelako proiektu batek merezi duen mailan egoteko gai direnen bila. Goian jarri dugu abiapuntua, baina ziur gaude talentuarekin, ilusioarekin eta behar den ahaleginarekin, merezi duen lekura eramanez dutela La Vila ostatu-jatetxea.

Informazio gehiago + bideoa:

📍 Igantziko Udaletxea

☎️ 948 63 77 81

✉️ bulegoa@igantzi.eus





Herriko dantza taldeak emanaldi bikaina eskaini zuen frontoian. OSKAR TXOPERENA



Plater tiroketan saritutakoak.

Besta aitzineko asteburua ere ospakizunez betea

XVII. Gazta lehiaketara zortzi gazta aurkeztu zituzten eta Argarateberek Mari Joxe Lizardirena nagusitu zen

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Hau irakurri orduko bukatuak izanen dira San Migel bestak, baina, ohi bezala, aitzineko asteburuan hainbat ekitaldi izan ziren.

Larunbat goizean plater-tiroketa izan zuten Ziobin. Eguerdian, pilota txapelketen finalak jokatu zituzten. Frontenisean, Andoni Espelosinek eta Mikel Urtzegik 30-22 irabazi zieten Enaitz Telletxea eta Igor Antxordokiri. Eskuz, pilota goxoarekin, berriz, Enaitz Telletxeak eta Beñat Iantzik 22-17 irabazi zieten Iñigo Telletxeari eta Joseba Bertizi.

Arratsean herriko dantza taldearen emanaldi ederra izan zen.

Igande eguerdiko gazta lehiaketaren 17. ediziora zortzi gazta aurkeztu zituzten. Horien artean, Argarateberek Mari Joxe Lizardirena nagusitu zen. Argarategariko Elena Retegirena bigarren izan zen eta Argiñenbordako Carmen Larralderena hirugarren. Lau upategietako ardoak dastatzeko aukera izan zen. Arratsaldean karrika buelta egin zuten kankailu eta buruhandiek eta gazta eta opil dastaketa izan zuten trikitilariekin.



Gazta lehiaketako saridunak, epaimahaikide eta Biltokiko kideekin. O. TXOPERENA



Frontenis eta esku pilota txapelketako finalistak.

Zelain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legla, 23 - BERA

Hazkuntza positiboaz aritzeko gurasoentzako eskola emanen da

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak antolatuta, *Hazkuntza positiboa*: eguneroko jarduna errazteko gakoak ikastaroa egingen dute Igantzin 3 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta, gaztelaniaz. Ikastaroa

urriaren 20an eta 27an eta azaroaren 3an eta 10ean egingen dute, 17:30etik 19:30era. Izena eman behar da 848 42 34 50ra deituz, edota guraso-neskola@nafarroa.eus helbidera idatziz. Lau saio izanen ditu ikastaroak, eta bakoitzean gai zehatz bat landuko dute.

Gaztainei buruzko topaketa egingen dute urriaren 11n

Hainbat aditurekin solasaldiak izanen dira eta Argatsorora bisita egingen dute. Parte hartzeko aitzinetik izena eman behar da

NEREA ALZURI

Gaztaina eta bertako barietateak identifikatu eta berreskuratzeko lanean segitzen du udalak. Gaztaina etorkizuneko zuhaitz gisa baloratzeko momentua dela iritzita, heldu den urriaren 11n, udalak, Foresna Zurgaiak Nafarroako Baso Elkartek eta Nafarroako Gobernuak antolatuta, *Gaztaina eskualde atlantikoan* izenburupean gaztainaren inguruko adituen topaketa egingen dute herrian. Aterpeko aretoan izanen da, eta 09:30etik aitzinera egun osoan, gaztainaren inguruko hainbat solasaldi egingen dituzte. Argatsoroko eremura ere bisita egingen dute parte hartzaileek.

Egitaraua

09:30ean Fermin Olabe Nafarroako Gobernuako Baso eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariak topaketari hasiera emanen dio.

09:45ean Pablo Linares adituak gaztainaren gaur egungo egoera eta bere komertzializazioa aztertuko ditu.

10:15ean Roberto Rubiok (Cesefor) gaztainaren etorkizunaz solasaldia emanen du.

10:45ean Susana Martinezen eskutik (Siero Lam S.A) gaztainak egurraren ekoizpenean duen garrantziari buruzko hitzaldia izanen da.

11:15ean kafea hartzeko tartea hartuko dute.

11:30ean Efren Martinezek (Agrocastanea mintegia) landatzeko eta merkatuaren eskaerari erantzuteko argibideak emanen ditu.

12:00etan Mikel Diaz Osés Nafarroako Gobernuko teknikariak Nafarroan dauden gaztainak berreskuratzeko esperientzien eta politiken berri emanen du.

12:40an Marta Ciordia eta Ana Gonzalez (Serida) plagez eta eritasunez ariko dira.

14:30ean bazkaria izanen dute.

16:00etan Jose Mari Alzuart Nafarroako Gobernuako basozainak, Mikel Diaz Osese eta Efren Martin teknikariak gidatuta, Argatsoro parajeko gaztainaren landaketa guneetara bisita egingen dute.

Topaketan parte hartzeko aitzinetik izena eman behar da, 948 15 15 01era deituz edo *foresna@foresna.org*era idatziz.



2015eko Arantzako inauterietan eman zuen Txamukosek lehenbiziko emanaldia.

Txamukos mariatxi taldearen hondarreko kontzertua larunbat honetan

N. ALZURI

2015eko inauterietan egin zuen lehenbiziko emanaldia Txamukos mariatxi taldeak. Geroztik, hiru disko eta hamaika emanaldi eskaini ditu han eta hemen. Ezin aipatu gabe utzi bi herritar ibili direla taldean: hasieratik akordeoilari Beñat Mitxelena eta hasierako urteetan Jon Kol-

do Arburua gitarrista. Baina aio errateko ordua ailegatu zaie, eta hasitako herrian emanen diote akabaila ibilbideari. Larunbat honetan, urriaren 8an, izanen da Txamukosen hondarreko kontzertua, 19:30ean plazan (eguraldi txarrarekin frontoian). Sarrera irekia izanen da eta taldekide izandakoak etorriko dira.

Igerilekuetako bonurako laguntzak eskatzeko epea zabalik

N. ALZURI

Udalak 1.500 euro bideratuko ditu 2022an Arantzán erroldatutako ige-rileku publikoetako bonuak ordaindusortutako gastuaren zati bat finantzatzen laguntzeko. Horretarako, erabiltzaileek bonuak eta ordainagiriak

aurkeztu eta eskaera orria bete beharko dute, herriko etxean bertan edo udalaren webgurearen bitartez (www.arantza.eus).

Dirulaguntzak proportzionalki banatuko ditu udalak eta eskaerak urriaren 14ra bitarte egiten ahalko dira.

Egur loteak eskatzeko epea urriaren 31ra arte

Udazkenean sartuta, urtero bezala, egur loteak eskatzeko epea zabaldu du udalak. Urriaren 31ra bitarte herriko etxean egiten ahalko da eskaera. Bi modutan eska daiteke egurra: etxeraino eramateko izan daiteke edo egurra botatzea eta garraioa norbere esku utzita.



JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa Zerbitzu Berria zure etxera

INFORMA ZAITEZ!

Ordoki industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es



Mus txapelketako lau bikote onenak elkarteko presidentearekin. AINHOA ETXEBESTE

Giro ederrean ospatu dute Ulibeltzak elkartearen eguna

Pattere Galtzagorri eta Nieves Biurrarena nagusitu ziren mus txapelketan, zortzi bikoteren

MAIDER PETRIRENA

Ulibeltzak elkarteak bere egun ederra irailaren 24an ospatu zuen. Goizeko hamarretan hasita, zortzi bikotek mus txapelketan parte hartu zuten. Horien artean txapeldun suertatu ziren Pattere Galtzagorri eta Nieves Biurrarena, finalean Edurne Zubietari eta Edurne Urrozi irabazita. Hirugarren posturako lehian, Eneko Herrera eta Estefani Agesta nagusitu zitzaizen Meliton Irazokiri eta Koldo Herrerari. Irati Arrieta elkarteko presidentearen eskutik jaso zituzten sariak. Gero bazkari ederra izan zuten



Giro ederra bazkalondoan. E.HERRERA

eta bazkalondoan, Modestoren musikaren giroarekin egun ederra borobildu zuten.

Aipatzekoa da datorren urtean 40 urte beteko dituela Ulibeltzak elkarteak.



ESKOLAK UTZIA

Sei ikasle berri eskolan

Sei ikasle berri hasi dira ikasturte berrian, borts 3 urtekoan eta bat 4 urtekoan. Ezkerretik eskubira hasita Aiur Apeztegia Arretxea, Alaine Petrirena Gonzalez, Kaiet Mariezkurrena Arrieta, Oñatz Espelosin Mendikoa, Aner Apeztegia Sanzberro eta Xuban Lopez Sorondo.



Herrian entrenatzen hasia den pilotari gaztetxo kuadrilla. MAIDER PETRIRENA

Ados pilota elkarteko neska gazteen taldea herrian entrenatzen hasi da

M PETRIRENA

Ados Pilota eskolako neska gaztetxo kuadrilla ederrak ere ikasturteari hasiera ederra ere eman dio. Aurtengoan, frontoia aldatu eta Sunbillan entrenatuko dute. Argazkian, Andrea Aldaregia Plazaz Plaza txapelketako txapelarekin eta Naroa Elizalde irakasleak ageri dira

beraiekin. Aipatzekoa da irailaren 24an jokaturako Plazaz plazako final haundiaren aurretik, Ados klubeko gaztetxoek, Irati Altzu eta Iraide Iriartek parte hartzeko aukera izan zutela. Uxue Gomez zizurtarra (Ardoi) eta Alice Sagardui goizuetarrarekin (Umore Ona) partida ederra eskaini zuten.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

Biniloak
Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatikoak, gardenak, jartzeko errazak...

Liburutegiko irakurle taldeak hasi dira martxan berriz

Euskarazko irakurle taldeak Karmele Jaioren 'Aitaren Etxea' liburua irakurriko du udazkenean

MARGA ERDOZAIN

Doneztebeko liburutegiko irakurle taldeek ikasturte berria abiatu dute. Gaztelaniazko taldeak iraileko irakurketan Cristina Cerezalesen *Música Blanca* liburua landu zuten, eta urrirako Sara Mesak idatzitako Cicatriz izeneko lana aukeratu du. Talde hau hileko azkeneko astelehenetan biltzen da. Euskarazko irakurle taldeak, berriz, Karmele Jaioren *Aitaren Etxea* eleberria aukeratu du udazken honetan lantzeko. Bi kasuetan talde irekiak dira, eta ateak zabalik daude.

Argibideak eta aleak eskuratzeko aski da liburutegitik pasatzea. Irakurle talde hauetako partaideek Nafarroako Gobernutik jasotako liburu sortak eskuratzeko dituzte ale bana izateko eta erosi behar ez izateko.



Haurrak tailerretako batean.

Ipuin Txokoa ere martxan da eta hauek dira urrirako hitzorduek: urriaren 4a, 11, 18a, eta 25a. 0-3 urte bitarteko txikien gunek honek asteartero 11:00etatik 12:00etara koloredun alfombra zabalduko du. Haizea Loirak aurtengo ikasturterako kanta berriak eta ipuin zoragarriak prestatu ditu. Ipuin Txokoaz aparte, azken asteetan irakurketa eta jolasak ardatz hartuta hainbat tailer egin dituzte liburutegian.



UTZITAKOAK

Mendi Abesbatza Ultzaman

Mendi Abesbatzako kideak Ultzaman izan ziren irailaren 24an kontzertua eskaintzen. Orgiko hariztian zuten egitekoa, baina, eguraldia tarteko Kuartelenea eraikinera aldatu zuten. Emanaldi ederra eskaini zuten, eta bertaratutakoak pozik gelditu ziren aditutakoarekin.

Ibai Mariezkurrena da Errekako mendi alorreko bokal berria

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

25 urtez Errekako mendiko alorraren arduradun izan ondotik, berriki utzi du ardura hori Sanba San Miguelek eta Ibai Mariezkurrenak hartu du bere lekua. Elkartek zabaldutako mezuan eskerrak eman dizkio San Migueleri elkartearen alde egindako lan denagatik: «Badakigu Sanbak Errekaren alde lanean segituko duela bertze arloetan eta Ibaik ederki beteko duela bere postua, seguru». Egun, Errekaren bidez 96 mendizalek dute lizentzia

Nafarroako Mendi Federazioan.

Emakumeen senior taldea lehian

Mendiaz harago, eskubaloi taldeek ere hasi dute aurtengo denboraldia. Errekak aurtun bederatzi eskubaloi talde plazaratuko ditu, iaz baino bat gehiago, eta nabarmentzekoa da emakumeen senior taldea lehian izan dena. Taldearen historian lehenengoz, gainera, 200 jokalaritik goiti izanen dira taldean eskubaloi jokatzen.



UTZITAKOAK

Euriak ez ditu besta ttikiak zapuztu

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, giro ederra izan zuten iraileko azken asteburuan ospatu ziren besta ttikietan. Kontzertuak, herri bazkaria, 4x4 triala, dantzariak... Denetarik ekintzak izan ziren bi egunez. Uraren Eguna ere ospatu zuten asteburu berean eta giro polita izan zen.



Joaldunak baserri baten atarian. ARKAITZ MINDEGIA



Trikitilari eta panderojoleek ere lan ederra egin zuten.

Laxaro Erregerena omendu dute Joaldunean Egunean

Bi urteren ondotik egindako ospakizunean hainbat urtez joaldunen buru izandakoa ohoratu zuten

ARKAITZ MINDEGIA

Bi urteren ondotik Joaldunen Eguna ospatu zen irailaren 24an. Joaldunak, trikitilari eta pandero joleak, eta Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariak Ameztioko baserrietan barrena egin zuten itzulixka goizean. Eguerdian, Ameztiatik Lasagara eta gero herrira iritsi ziren denak. Joaldun guztiak plazara sartutakoan hasi zen Laxaroren omenaldia. Berak jo zituen azkeneko joare soinuak, baina akitzean parean zituen herriko txistulariak, Ane alaba eta Maria dantzariak aureskua dantzatzeko. Ber-

tsolariek ere bertso politikak bota zioten joaldun handiari eta opariak ere izan ziren berretzat. Omenaldia akitu ondotik, Larretxea, Txapartegi eta Bordaxuri eta Joxemari herritarrek aritu ziren aizkora apustuan. Eguerdiko partean, karpa beterik, bazkari eder baten bueltan elkartu ziren 180 pertsona. Bertsolarien bertsoez gain Hauspolariek taldearen kantu eta dantza artean ederki pasa zuten arratsalde parteak. Zenezuzkoak ere bere bisita egin zuten. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina hori ez zen oztipoa izan.



Hainbat eta hainbat joaldun bildu zituen egun bereziak.



Aitor Mendiluze eta Jon Maia bertsotan aritu ziren.

Makuso anaia-arrebak Lesakako BTT ibilaldian

Makuso anai-arrebak beraien bizikleta hartu eta bertze hainbat kirolariekin batera goiz polita pasatu zuten Lesakako mendi bizikleta ibilaldian. Olaiak eta Iosuk, izerdia gustura bota zutela erran zuten, ibilbide eta inguru ederrean ibili baitziren.

Aurtizko San Martin bestak prestatzen ari dira gazteak

Udaberrian hasten dira herriko bestak eta Aurtitzen ematen zaie bukaera. Burubelarri dabilta bertako gazteak azaroaren 10etik 13ra ospatuko diren bestak antolatzen. Adin guztietarako egitaraua osatzen ari dira. Bertatik erran duten bezala, gorde data horiek!

Dantza ikastaroetan hasiak dira neska-mutikoak

Berriro ere herriko dantza taldea martxan hasi da. 4 eta 12 urte artekoek aukera dute Irati, Naia eta Albarekin dantzak ikasteko ortzegunetan. 12 urtetik goitikoak ortziraletan biltzen dira. Parte hartzeko, Mariari erran edo herriko etxeko ganbarara hurbildu.

Basurde ehiztarien ondotik uso ehizakoak hasiak

Urri garaian gaudenez martxan hasi da uso ehiza. Postuetan hainbat eta hainbat herritar beraien esperoan egonen dira beraien eskopetak prest ditzutela eta punteria probatzeko asmotan. Hala ere, lehenagotik basurde ehizan ere hasiak dira.

June Cresporen artelana ikusgai paratu dute errotan

'Hamalau gehiago eta haratago' proiektuaren aurkezpena ere bertan egin du Nafarroako Gobernuak

FERMIN ETXEKOLONEA

Hamalau gehiago proiektua aldi bateko erakusketa bat da Nafarroan. Nafarroako Museoak 2020. urtean artista nafarrei erositako arte garai-kideko hamalau artelanez osatzen dute proiektua.

Artelanak adituen batzorde batek aukeratu zituen eta Nafarroako Museoan erakutsi zituzten 2021eko urriaren 6tik 2022ko martxoaren 6ra bitartean. Aurten hamalau artelan hauek Nafarroako bertze hainbertze museotan ikusgai izanen dira, tartean Zubietako Ekomuseoan, *Hamalau gehiago eta haratago* izenburuarekin. Eta Nafarroako Gobernuak Zubietan aukeratu du egitasmoaren berri emateko prentsaurrekorako. Urriaren 4an, asteartean egitekoa zuen prentsaurrekoa eta bertan Rebeca Esnaola Bermejo, Nafarroako Kultura eta Kirol Departamentuko kontseilaria egotekoa zen.

Zubietako ekomuseoan June Crespo artistak sortutako *El mismo calor* izeneko arte lana ikusgai egonen da.



June Crespo artista.

Hamalau museoak

Karlismoaren Museoa (Lizarran), Muñoz Sola (Tutera), Tulebrasko Monastegiko museoa, Tuterako Museoa, Zubietako Ekomuseoa, Museo de las Eretas, Nafarroako Unibertsitateko Museoa, Iruñeko Erresumako Museoa, Xabierko Gazteluko, Jorge Oteiza Fundazioko, Gustavo de Maeztu, Julian Gayarre Etxe Museoa, Henri Lenaerts Zentroa eta Castejongo Museoa.



XAGU-LESAKA

Patxi Mindegia lehen mailan ariko da

Herriko bi aizkolari aritu ziren Nafarroako bigarren mailako finalean irailaren 18an Uhartan. Patxi Mindegia bigarren izan zen eta Xuban Kañamares txapeldunarekin batera lehen mailan moztuko du. Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberrria podiumera igo zen eta Mikel Indakotxea bosgarren izan zen.

Ohiko egitarau zabalarekin ospatuko dute Euskararen Eguna asteburuan

F. ETXEKOLONEA

2020an ez zen ospatzerik izan, iaz seinalea egin zen eta aurtent, ohiko egitarau zabalarekin Euskararen Eguna antolatuko dute gazteek asteburu honetarako.

Urriaren 7an, ostiralean 18:30ean pintxo lehiaketa izanen da eta gero trikipotea. 22:00etan mus txapelketa Errandonea ostatuan.

Halere, egun handia larunbata izanen da, **urriaren 8a**. Goizean herriko eskulangileen lanak ikusgai eta erosi izanen dira plazan. 11:00etan joaldu-

nak ibiliko dira. Eguerdia aldea Dantza Luzea dantzatuko dute. 13:00etan herritarren arteko herri kirola saioa izanen da. 14:30ean herri bazkaria estalpean, herriko trikitilariak alaitua (txartelak Santxoko okindegian salgai). 16:30ean haur jokoak izanen dira. 18:30etik 20:30era Burrumba elektrotzaranga ibiliko da. Afaltzeko bokatak eskainiko dituzte gazteek estalpean eta 23:30ean hasita, Trikidantz taldearekin dantzaldia borbilduko dute Euskararen Eguneko egitaraua.

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuarekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

PITI MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Izurrunezubi plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es @liderahortzklínika



Ttikienek uraren zikloaz aunitz ikasi zuten. UTZITAKOAK



Eskolako aterpeko azokan produktu ugari plazaratu zituzten.

Uraren Eguna arrakastatsua izan da euripean ere

Hasiera batean Intzakardi parkean iragarria bazegoen ere, Doneztebeko eskolako aterpean egin zuten azoka

TTIPI-TTAPA

Ura protagonista izanik, euriak ezin zezakeen hutsik egin Uraren Bailarak erakundeak eta Cederna Garalur Elkarteak Donezteben irailaren 24rako antolatutako Uraren Eguna ospatzeko. Halere, hori ez zen oztopo izan egitarau zabalaren zati handi bat gauzatu ahal

izateko. Hori bai, jarduera gehienak Intzakardi parkean iragarriak zeuden, baina eskolako aterpera eraman zituzten. Zubietako errotatik abiatu eta Uraren Bidetik Donezteberaino egin beharreko oinezko bidea eta bizikletaz ibilbide gidatua Bide Berdean barrena ezin izan zituzten egin.

Eguerditik aitzinera, hori bai, hainbat lagun eskolako aterpean elkartu ziren, bertako artisautza eta produktuak miresteko, Zubietako talogileen talo goxoak dastatzeko eta musikaz jantzita egon zen azoka dotorean parte hartzeko. NILSAko teknikariak uraren egoera aztertzeke aukera izan zuen eta inguruan aurki ditzakegun sendabelarrei buruz ere ikasi zuten. Zuhaitzak ezagutzeko joku bat ere izan zuten.

Dagoeneko udazkenean sartuta ospatu baldin bazen ere, Uraren Eguna uda honetan Baztan eta Bidasoa eskualdeetan garatzen ari diren jardueren programaren parte da. Jarduera horiek Baztan-Bi-



Haur aunitz izan zen aterpean.

dasoko udalerrien turismo elkarteak den Uraren Bailarak erakundeak eta Cederna Garalur elkarteak sustatu dituzte, Nafarroa Ezagutu Sarearen barnean.



UTZITAKOIA

Malerrekako bortz erremontista Donezteben

Nafarroako erremonte profesionaleko txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu zuten irailaren 23an. Jabalerak, Agirrezabalarekin batera 35-25 irabazi zien Otxandorenari eta Saldiasi eta Utergak eta Mitxeok 25-35 galdu zuten.

Donamariako ehiza postuen bigarren enkantea egin dute

Irailaren 16ko enkantean hutsen gelditutako ehiza postuen bigarren enkantea egiteko zen urriaren 3an Donamariako udaletxeko bilkura aretoan. Golbain, hiru posturen hasierako prezioa 700 eurokoa zen eta bertze bortzena 500 eurokoa. Zazpigarren postua goitzea da hau hartuko lukeenaren betebeharra. Bidasostan, lau postu ziren bigarren enkantean (bakoitzaren hasierako prezioa 200 euro). Uztalakortan berderatzi postu sartu dira enkantean, lote bakarrean (hasierako prezioa, 2.900 euro).

Lan erregulazioa proposatu du Arcelor Mittalek

Aldi baterako izanen litzatekeen proposamena egin die zuzendaritzak sindikatuei eta hauek kontra agertu dira

TTIPI-TTAPA

Aldi baterako lan erregulazioa proposatu du Arcelor Mittal enpresak. Enpresako zuzendaritzak irail erdian egin zien proposamena sindikatuei. Aldi baterako erregulazio espedientea (ABEE) estatu espainiarrean dituen lantegi guztietan egin nahi du, Condesan izan ezik. 2023ko abenduaren 31ra arte sartu nahi du indarrean, eta tartean, Legasako eta Lesakako lantegiei eraginen lieke. Sindikatuak, ordea, kontra agertu dira. ELAK «Arcelor Mittalek ez duela aldi baterako erregulazio orokorrik behar» adierazi du eta LABek «Arcelorrek aspalditik duen aldi baterako erregulazioen erabilera interesatua» salatu du.

Produktzioari lotutako arazoekin lotu du enpresak erregulazio espediente eta argudioen artean, bertzeak bertze, Ukrainako gerra, eskariaren beharrekada, energia gastua eta Europako Batasunetik kanpoko herrialdeen inportazioen igoera aipatu ditu.

Aldi baterako erregulazio espedientea negoziazio ba-

tzordean negoziatuko dute, eta negoziazio batzorde horretan ELA, LAB, UGT, CCOO eta USO sindikatuek parte hartuko dute.

Sindikatuaren adierazpenak

ELA eta LAB sindikatuek adierazpenak egin dituzte proposamenaren harira. Biek adierazi dute, 2021a Arcelor Mittalentzat urte ona izan dela, «13.000 milioi euroko etekinak izan ditu, eta gaur egun badu lan karga». Horrez gain, LABek «2022ko lehendabiziko hila-beteetan irabazietan errekorrak» izan dituela gaineratu du. Horregatik uste du «halako irabaziak izan dituen enpresa batek urte bat baino gehiago luzatuko zen ABEE baten erabilera mahaiaren gainean jartzea lotsagarria baino gehiago da. Bertze behin, lantegi bakoitzeko errealitatea kontuan hartzetik urruti, estatu mailako negoziaketa bat da planteatu dutena». ELAren irudiko, berriz, «proposamena neurritz kanpoko» da eta enpresak negoziazioetan izan duen «jarrera itxia» salatu du.



UTZITAKOIA

Narbarteko II. frontenis txapelketa

Narbarteko II. frontenis txapelketan, hirugarren posturako lehian, Mustafa Elahouk eta Egoitz Gamiok 30-22 irabazi zieten Andoni Gamiori eta Esteban Mendibururi. Finalean, Alazne Aizpuruk eta Julen Iriartek 30-29 irabazi zieten Dabid Albiasuri eta Miren Itxaso Arretxeari.



UTZITAKOIA

Legasako Ardiaranak 'Cincho de Oro' saria

Legasako Ardiarana gaztandegiko gaztak Gaztela-Leongo Nekazaritza Institutu Teknologikoak antolatutako Cincho Cheese Awards 2022 nazioarteko gazta lehiaketan *Cincho de oro* saria eskuratu zuen irailaren 16an Zamoran. Ardi esne gordinarekin egindako gazten kategorian lortu dute saria.

THAT'S ENGLISH!

INGELES ERTAINA-ALTUA HITZ EGITEA ONA DA

ZIURTATU AHAL IZATEA

BESTE MAILA BAT DA

URRUTIKO INGELESEKO IKASTARO OFIZIALA

200€ + tasak

Doneztebeko Mendaur Ikastetxean • 948 45 60 05

MATRIKULAZIOA: Urriaren 31 arte

200€ + tasak



Irailaren 20an, 27 laguneko taldea 2.045 metro dituen Ezkaurre mendira igo zen. UTZITAKOIA

Elkarteko kideak Lezon eta Pirinioetan izan dira

Irailaren 14an 92 lagun joan ziren Lezora. Irailaren 20an, Pirinioetan izan ziren, eta 27 lagunek igo zuten Ezkaurre

TTIPI-TTAPA

Irailaren 14an, ohiturari jarraituz elkarteko 92 bazkide Lezoko Gurutze Santura joan ziren bi autobusetan. Goizean goiz atera, eta egun osoko plana izan zuten.

Goizean, Lezora iritsi eta berehala gosaltzera joan ziren, eta ostatukoak ongi etorri

beroa eman zieten bi urteren ondotik. Handik, Gurutze Santura joan, bertan meza entzutera. Elizkizun polita izan zen, herriko abesbatzak kantatu baitzuen bertan.

Ondotik, herri kirol saioa izan zen: harrijasotzaileak eta aizkolariak aritu ziren. Nafarroako kirolariak gipuzkoarren

kontra aritu ziren, eta azkenean gipuzkoarrak izan ziren garaile.

Herri kirolak ikusi ondotik, Oiartzungo Gurutze Berri jabetxean bazkaldu zuten, eta bazkaldu ondotik dantzaldia izan zuten. Batzuk dantzan ibili ziren bitartean, bertzeak musean aritu ziren. 19:00etan itzuli ziren etxera, hurrengo urtean itzultzeko esperantzarakin.

Ezkaurrea 27 lagun

Lezon ibili ondotik, sasoi puntu bikainean direla erakutsi dute berriz ere mendizaleek. Hilabeteko hirugarren asteartero bezala, txangoa egin zuten, kasu honetan Nafarroako Pirinioetara. 27 lagunek

Ezkaurre mendia igo zuten, eta bertze batzuk, aldiz, Ezkaroz aldeko mendietan ibili ziren.

Autobusa 05:45ean abiatu zen Doneztebetik. Bidean, Izaban gelditu ziren taldeki-de batzuk Ezkaroz aldera joateko. Handik, Argibiela jo zuten, bertatik Ezkaurre igotzeko.

08:30ean atera ziren 27 lagun Ezkaurre aldera. Malda goiti abiatu, eta bi ordu behar izan zituzten 2.045 metro dituen Ezkaurrea ailegatzeko. Tontorean atsedaldi bat hartu, gosaldia eta argazkiak ateratzen aritu ziren. Arras eguraldi ona izan zuten bide guztian, eguzkia eta hotzik gabe. Eguraldi ona aprobeztatuz Piriniotako hainbat tontor ikusteko aukera zuten: Petretxema, Orhi, Hiru Errege Mahaia, Anie, Midi d'Osau...

Menditik jaitsi, eta bi taldeak elkartu eta Izabako Hostal Txikin bazkaldu zuten. Bazkaldu ondotik, arratsaldeko bortzetan abiatu ziren etxe aldera. Bidean, gainera, 300 ardiko artalde bat aurkitu zuten, eta tarte batean geldirik ere egon behar ziren ardiak errepidetik mugitu arte.

Ikastaro berri gehiago antolatu ditu elkarteak

TTIPI-TTAPA

Azken aldizkarian aipatu bezala, hainbat ikastaro antolatu ditu elkarteak. Orain, horiei bertze hauek gehitu zaizkie:

Amaiur: Dietetika eta nutrizio tailerra. Azaroko lau ortzegunetan Amaiurko Otsondo gelan 16:00etatik 17:30era.

Doneztebe: Pirograbatu ikastaroa. Arkupeak jubilatutik etxean, ostegunetan 16:00etatik 18:00etara. Urriaren 6an hasiko da ikastaroa. Horrekin batera, dantza ikastaroa izango da Rebeca dantza akademian ostegunetan, 10:00etatik

11:30era. Hasiera urriaren 13an.

Irurita: Antzerki tailerra Gizarte Bilgunean, asteartero, 17:00etik 19:00etara.

Bera: Baratzea lantzeko ikastaroa Beralandetan urriaren 14an, 21ean eta 28an, eta azaroaren 4an eta 11n 10:00etatik 12:30era.

Leitza: Zeramika tailerra, asteazkenetan eta ostiraletan 10:00etatik 12:00etara edo ostegunetan 17:00etatik 19:00etara, Leitza Ateakabeltz gaztetxean urritik maiatz bitartean.



UTZITAKOIA

100 urte bete ditu Teresa Etxebestek

Irailaren 18an 100 urte bete zituen Teresa Etxebeste Zozai bazkideak. Ekitaldi polita egin zioten Beran, eta tartean elkarteko Berako ordezkariak plaka eta lore sorta bat oparitu zioten. Argazkian Teresa eta haren alaba Lupe ageri dira erdian, alde banatan elkarteko ordezkariak dituztela.

Aurretiazko
Borondateen
Agiria (ABA)

**Nire bizitzaren amaierari
buruzko erabaki garrantzitsuetarako**

**nik aukeratzea
erabakitzen
dudalako**



Udazken eta neguko moda gehigarria

Bukatu dira uda, egun luzeak eta giro beroa; arropa motza armairura bueltatzeko garaia dugu. Baina amaiera batekin hasiera bat dator, eta denboraldi berriari ongi etorria emateko tendentziak, estiloak eta konjuntioak ezagutzen hasi gara.

Batzuk iazko jantziak aterako dituzte, bertzeek, berriz, dendara bisita eginen dute sasoi berrirako prestatzeko. Azken modan janztea gustuko baduzu eta aurten erabiliko diren arropen, orrazkeren eta oinetakoen berri izan nahi baduzu, segi leitzen, hainbat ideia ekarri dizkizuegu eta!



A.P.

Amaya Picabea

Amezti zeharbidea, 6 - Doneztebe
948 450 163 - 647 029 983
amayapicabeam@gmail.com



f @amayapicabea

Ebuz ezkeko bidalketak



ESPRIT



IKKS



NAPAPIJRI



Levi's Kids

Levi's



ONLY



Champion



boboli



ONLY & SONS



JACK & JONES



Levi's



KAPORAL

Zatoz Venta Peiora gure moda ezagutzera

ADIDAS - ARMANI EXCHANGE - BIRKENSTOCK - BOBOLI - CALVIN KLEIN - CAPTAIN CORSAIRE - CHAMPION - COLUMBIA - DELSEY - DESIGUAL - DICKERS - EASTPAK - ECDAIF - ELLESSE - ELEMENTERRE - EL PULPO - EMPORIO ARMANI - ESPRIT - FILA - G-STAR RAW - HACKETT - HAPPY SOCKS - HILFGER DENIM - KELLY HANSEN - HERSCHEL - HOFF - I.C.O.D.E - IKKS - JACK & JONES - KAPORAL - LACOSTE - LACOSTE LIVE - LEE - LEGO WEAR - LEVI'S - LEVI'S KIDS - LOLLIPOPS - MANGO - MANGO KIDS - MERRELL - MILLET - MORRISON - NAME IT - NAPAPIJRI - NEW BALANCE - NEW ERA - ONKOS - ONLY - ONLY & SONS - OXBOW - PEPE JEANS - PROMISE - PUMA - JACK & JONES - RAINS - RALPH LAUREN - REEBOK - RIP CURL - SELECTED - SKECHERS - SUPERDRY - SURKANA - TANARIS - TBS - THE NORTH FACE - TIMBERLAND - TOMMY HILFGER - TRUSSARDI - TRANG WORLD - UNDER ARMOUR - YUNIS - VERO MODA - VICTORIA - VILA - WRANGLER



PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (es) | +33 972 10 40 20 (fr)

Arnegui | Danbarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibadin



Guztien gusturako tendentzia eta estiloak denboraldi berrian

Klasikoak berrasmutzen

Udazken honetan joera bohemioak bueltan dira; lore estanpatuak, patchworka, itsak, kakoratz-lanak, arropa tindatuak... ebean egindako eta ukitu artisauek dituzten jantziak izanen dira nagusi, baina dotoretasuna nabarmenduz. Honekin diseinu jasangarriak eta artisautea erdigunean paratu nahi dira, moda arduratsua sustatuz. Jantzi mota guzietarako balio du tendentzia honek; jakak, galtzak, soinekoak... baita oinetakoak ere.

Kirol estetikak ere modan segituko du aurtan, jantzeko arroparekin fusionatua. Horrela, emaitza eroso eta dotoreak lor-tu dira; jantzeko txandak galtzak, tenis jokalarien estiloko gonak, errugbi kutsuko kamiseta handiak eta unibertsitateko taldeetako ohiko jakak. Mugikortasun eta askatasun handia ematen dute jantzi hauek, estetika eta dotorezia alde batera utzi gabe.

Ausartenentzako, moda berri eta deigarri bat ekartzen dizuegu: jantzi metalizatuak. Lentejuelak, arropa distiratsuak eta kristal brodatuak arropa, gehigarri eta oinetakoetan nagusituko dira. Ospakizun eta ekitaldi formaletan ikusiko da batez ere joera hau; beltzean, urre-kolorean eta zilar-kolorean nagusiki.

Gaztetxoentzako erosotasuna

Ebeko tilkienak bezituzerakoan, lehentasuna beti erosotasuna da; haurra gustura eta kontent egotea arroparekin. Horregatik, askatasuna ematen dien jantziak izanen dira nagusi bertze behin. Txandalak eta kirola egiteko arropa egunerokoan erabilteko aproposak dira, baina jantzi formalagoak behar direnean ere dotoretasunak eta erosotasunak bat egin dezakete. *Denim* joera da horren adibide argia, jaka, galtza, alkandora eta gona bakeroekin, bertzeak bertze.



KAPRITXO

Opariak
Bitxiak
Nesken arropa
Mutilen arropa

T. 619 45 02 49 | LEITZA

Pimpirin
PELUQUERIA - ILEAFINDEGIA

Plaza Zaharra, 26
Lesaka
☎ 948 63 80 37

Olegi etxea,
Ezkurra
☎ 686 23 17 53

Estetika-zentroa

Zurri
Edertasuna eta teknologia

WhatsApp, Facebook, Instagram icons

Santiago, 59 behea - Elizondo
Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81

Estetika aurreratua, aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak, HI-FU, Empitsu metodoa, BBGLOW, radiofrequentzia, presoterapia, manikura, pedikura eta askoz ere tratamendu pertsonalizatu gehiago eskaintzen dizkizugu!



Udazken eta neguan grisa, lur-koloreak eta pastel-koloreak nabarmentzen dira batez ere jantzietan; berdea, urdina, marroia... hauek mota guzietako estanpatuekin konbina daitezke, geometrikoak eta koadrodunak izanik nabarmentzenak.

Hotzari aurre egiteko oinetakoak

Gure jantziera osatzeko, oinetako egokiak aukeratzea ezinbertzekoa da. Udazken eta neguan botak eta zapata itxiak ateratzen ditugu armairutik eurari eta hotzari aurre egiteko, baina funtzionaltasuna eta estetika bateragarriak direla erakutsi digute azken tendentziek.



Udako joerari segituz, udazkenean plata-formadun zapatak izanen dira nagusi, ta-koiarekin zein planoak. Zentimetro pare bat erraztasunez lortzeko balio dute oinetako hauek, erosotasunari uko egin beharrik gabe. Gainera, egun eurisuetan putzuetan ez bustitzeko baliagarriak dira.

Bota altuak ere klasiko bat dira, eta hainbat kolore eta formatan aurki ditzakegu; ta-koiarekin, cowboy iburakoak, zilar-kolorekoak... konbinatzeko errazak, goxoak eta erosoak dira, neguko egun hotzetarako aproposak.

Erabateko aldaketa ileari



Ikasturtea ongi hasteko, batzuk aldaketaren bat egitea bilatzen dute. Horizontzako aukera ona da ilea moztea edo orrazkera aldatzea. Azken urteetan bob orrazkera eta ile motza izan dira nagusi tendentzien artean, baina aurten, horiez gain, *chic*/estiloa ere gailendu da. Klabikularen altuerarainoko orrazkera da, geruza 'kusezinetan' moztua eta ibura gaztetzen duena. Mozketan lepoaren luzerara eta aurpegiaren formara egokitu behar da, eta ile fina daukatenentzako bereziki aproposa da, mugimendua eta bolu-mera ematen baitio.

Azken aldiak emakume nahiz gizonen artean nagusitu den bertze orrazkera *undercut* da. Izan ere, edozein orrazkera bihur daiteke *undercut* batean, ile motza zein luzea izan; alboko eta beheko aldeak motz-motz edukitzea da gakoa. Luzeren arteko kontrastearekin jokatzuz hainbat orrazkera mota lor daitezke, eta garrantzitsua da hau norberaren aurpegiaren formari eta ezaugarriari egokitzea.

Estetika naturala nagusi

Makillajeari dagokionez, naturaltasunak segitzen du joera nagusia izaten. Aurpegiara ezkutatu beharrean harrotasunez erakutsiko dugu, gure ezaugarriak nabarmentzen; orbanak, pekak, orbainak... gure parte baitira.

Horretarako ezin hobeak dira *glow* oinarriak, aurpegiaren argitasun naturala nabarmentzen dutenak, eta *anticoncealing* teknika. Teknika honekin makillaje gutti erabiltzen da, aurpegiari argitasuna ematea eta berezkoak dituen ezaugarriak nabarmentzea baitu helburu. Larrazala zaintzea ere inportantea da, azal osasuntsuak itxura hobeagoa eta berezko distira baitu. Azken finean, norbera bere buruarekin eroso eta gustura sentitzea da garrantzitsua.

LARUNBAT
ARRATSALDEAN
IREKIA

10%
DESCUENTO

1922
Virgilio
CALZADOS OINETAKOAK

Santiago 26
31 700 Elizondo (NA)
948 580 209
www.calzadovirgilio.com

100 urte
años

bixkak
Kultura eta Moda

DENBORALDI BERRIA

ARRETXEA I. LESAKA - NAERROA
948 991 002

Belzunegui
1901 enk

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

UDAZKEN-NEGUKO BILDUMA

MID SEASON SALE

-%25

2 unitate edo gehiago erosteagatik
fideltasun txartelarekin

-%15

Unitate 1 erosteagatik
fideltasun txartelarekin

-%20 ETA -%10 FIDELTASUN TXARTELIK GABE.

Eskaintza hau ez da beste promozioekin bateragarria. Urriaren 15etik 30era.

BIOK[★]
FASHION

  [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

IRÚN - IBARDIN (BERA) - DANTXARINEA - VALCARLOS

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

814 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Fermín Elizalde Azpiroz | ITUREN

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Pedro Zubieta Aleman | ARRAIOZ

Salting Iruñea - Bi sarrera
Ana M^a Perurena Jaurena | ARESO

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Ana Mari Telletxea Erasun | SALDIAS

BKZ Abentura - Sarrera bat
Javier Oronoz Olaetxea | LESAKA

Kimetz - Saski bat
Juana Mari Gortari Oteiza | ZIGA

Wow Park - Sarrera bat
Idoia Mentaberri Mihura | ZUGARRAMURDI

Erein - Bi liburu
M^a Jesus Madariaga Bergara | ARANTZA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

BARRUTIA 12

www.barrutia12.eus



Lote bat

EZKEXA

www.ezkexa.com



Kamiseta bat

IRRISARRI LAND

www.irrisarriand.com



Sarrera bat

TABERNA EDARIAK

www.tabernaedariak.eus



Lote bat

IZAR PARK

www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



Bi liburu

txalaparta

www.txalaparta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.elkar.eus



www.tabernaedariak.eus

8.120 euro lortu dira uso-postuen enkantean

Azken urteotako diru kopururik handiena bildu du udalak aurtengo enkantean

ENERITZ IRAOLA

Iraileko azken bi asteburuetan egin zituen udalak Urteaga inguruko uso-postuen enkanteak. Irailaren 17an aurrenekoa, eta astebetetz sesteorako aukera eman ondotik, irailaren 24an egin zuen bigarrena. Azken urteotako diru kopuru-

rik handiena bildu du udalak: 8.120 euro guztira. Hogeita zazpi postu atera zituzten enkantera eta horietatik hamasei esleitu dira. Bigarren, hirugarren eta laugarren postuak izan dira gehien ordaindu dituztenak, 1.600, 1.500 eta 1.580 hurrenez hurren.

Ehiza enkantearen emaitzak

| Postua | Zenbatekoa | Postua | Zenbatekoa |
|------------|--------------|----------------|----------------|
| 1. postua | 420 € | 15. postua | 180 € |
| 2. postua | 1.600 € | 16. postua | 180 € |
| 3. postua | 1.500 € | 17. postua | Esleitu gabe |
| 4. postua | 1.580 € | 18. postua | Esleitu gabe |
| 5. postua | 950 € | 19. postua | Esleitu gabe |
| 6. postua | 180 € | 20. postua | Esleitu gabe |
| 7. postua | Esleitu gabe | 21. postua | Esleitu gabe |
| 8. postua | Esleitu gabe | 22. postua | Esleitu gabe |
| 9. postua | 180 € | 23. postua | Esleitu gabe |
| 10. postua | 180 € | 24. postua | Esleitu gabe |
| 11. postua | 180 € | 25. postua | Esleitu gabe |
| 12. postua | 180 € | 26. postua | 180 € |
| 13. postua | 230 € | 27. postua | 180 € |
| 14. postua | 220 € | Guztira | 8.120 € |



Pestetan dantzan. Zaletasun horri segida emateko bidea bilatu dute orain.

Dantza eta pilates ikastaroen interes handia piztu dute

E. IRAOLA

Haur eta gaztetxoaren artean dantzarako gogoia badela ikusita, ikastaroa antolatu du guraso elkarteak. Denera 26 ikaslek eman dute izena, 14 ikaslek ttikien taldean eta 12 ikaslek gaztetxoaren taldean. Villabonako Oinkari dantza taldeko irakasle bat arduratuko da

klaseak emateaz asteazkenetan.

Pilates ikastaroan ere aurreko urtean baino jende gehiago eman du izena. Zortzi lagun ariko dira, astelehenetan eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara Kirol Mankomunitateak antolatu dituen klaseetan.



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bi ikasle hasi dira eskolan

Ikasle batzuk agurtu eta berriei ongietorria egiteko garaia izaten da iraila. Hala ere, iazko ikasle kopurua mantendu da eskolan. Bi ikaslek hartu dute Leitزارako bidea eta beste bi ikaslek hasi eskola ibilbidea: June Olazabal eta Maria Gereñok.

2023ko egutegiak

Hainbat modelo

Sakelakoak, paretan jartzekoak, mahai gainekoak, posterrak, hozkailuko imanak...

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Independentziarako Indarra dinamika abiatu du Sortuk

Ostegun honetan hasita hainbat hitzaldi eta ekimen eginen dituzte Leitzan, Areson eta Lekunberrin, eta azaroaren 5ean Independentzia Eguna ospatuko dute Leitzan



Azaroan Leitzan eginen duten Independentzia Egunarekin borobilduko dute dinamika.

TTIPI-TTAPA

«Euskal Herrian independentismoa bizi-bizirik dagoen mugimendua dela» iritzita, eta horri «ikusgarritasuna» emateko, Independentziarako Indarra dinamika abiatu du Mendialdeko Sortuk. «Independentziaren aldarria herriz herri garrantuko ditugun solasaldien bidez hezurmamitu» nahi du, eta azaroaren 5ean Leitzan Independentzia Eguna eginen du.

Sorturen hitzetan, «gero eta mundu distopikoagoan bizi gara, mehatxuz inguratuta gaude eta sinestuta gaude hori alda daitekeela, oinak lurrean beti ere, independentziatik mundu hobea egiteko gure aletxo jarri ahal izanen dugula». «Herri susperraldi berria sustatu» nahi du, «maila guztietan». Bere irudiko, «independentzia sustatzeak eraldaketa soziala sustatzea esan nahi du, independentziarik gabe nekez eraldatuko dugu herri hau, gaur-gaurkoz, ikuspegi askatzaile batetik Espainia edota Frantzia eraldatzea ezinezko ikusten dugulako». Gisa berean, «itxaropenaren bandera altxa eta esperantza aktiborako deia» egin du.

Ostegunean, urriaren 6an, hasiko da hitzaldi zikloa. 19:00etan Leitzako Atekabeltzen zaindari buruz ariko dira; urriaren 12an, independentziaren aldeko aktibismoa eginen dute herriz herri; urriaren 21ean larrialdi klimatikoa izanen dute hizpide Areson, 19:00etan. Urriaren 26an *Krisia(k) eta burujabetza(k)* hitzaldia eginen dute Lekunberriko Gabari Gune Irekian 19:00etan eta, azaroaren 5ean, Leitzan Independentzia Eguna.



**Elkarrekin
talde bikaina
osatzen dugu**

Zer garrantzitsua den ñabardurei arreta jartzea.
Ez baita gauza bera entzutea edo *kasu egitea*.

Honelakoa da gure Banka Pribatua.

Esaneko banka

www.cajaruraldenavarra.com








Herri Aretorako zine bonuak atera dituzte

Bonuak abenduaren 22ra arte izanen dira salgai eta maiatzaren 21era arte erabili ahal izanen dira

TTIPI-TTAPA

Indartsu eta berrikuntzekin hasi du denboraldia Herri Aretoa. Itxuraberritua ikusi dugu aretoaren irudia, Gaizka Leitzak logoa berritu baitu. Baina ez da hori nobedade bakarra: zine bonuak atera dituzte.

Bi bonu mota bereizi dituzte. Batetik, 18 urtetik gorakoentzat 19:00etako film emanaldietarako bonuak prestatu dituzte eta bestetik, ume, gazte eta ikusle guztiarentzat irekiak diren 16:30eko saioetarako bonuak.

Publiko guztiarentzat irekitako bonuen kasuan, 31,50 euro ordainduta bederatzi film ikusteko aukera izanen da. Bonurik gabe, 40,50 euro kostako litzateke. 19:00etako bonua hartzen duenak, berriz, 40,50 euro ordainduta bederatzi film ikusteko izanen du. Bonurik gabe 54 euro ordaindu beharoko litzuzke.

Bonuak abenduaren 22ra arte izanen dira salgai eta 2023ko maiatzaren 21era arte erabili ahal izanen dira, egun hori barne. Bonua eskuratu nahi duenak bi bide ditu. Alde batetik, www.leitza.eus webguneko *Leitzako*

Herri Aretoa atalean sar daiteke, eta han jarraibideei segitu. Ez da ezer inprimatu beharrik izanen, pdf gisa jasoko baita QR kodedun sarrera elektronikoa. Beste aukera, bonua leihatilan eskatzea da, asteazkenetan, 12:00etatik 14:00etara.

Kultur agenda

Berrikuntzez gain, oinarrizko programazioarekin hasiak dira Herri Aretoa. Hala, igande honetan, urriaren 9an, 18:00etan, *Kaskarot* antzezlan ikusteko aukera izanen da Atx Teatroa konpainiaren eskutik. Urriko hirugarren asteburuan, berriz, ohi bezala, zinemak hartuko du protagonismoa. Urriaren 15ean eta 16an, 16:30ean *Minions. El Origen de Gru* filma ikusteko aukera izanen da, eta 19:00etan *La Vida Padre*.

Urriaren 22an, *Amnistia eta errepresioa iraganetik gaurkotasunerako* mahai ingurua antolatuko dute, 12:00etan. Eta urriaren 25ean Mendialdeko aktibazio sozioekonomikorako planaren zirriborroa aurkezteko foro irekia egingen dute, 17:00etan.

Dena prest Bengoetxea VI.aren agurreko partidarako

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, urriaren 15ean, larunbatarekin, jokatu du Oinatz Bengoetxeak bere azken partida Bengoetxeak bere azken partidara aitzakia hartuta, egun osoko pesta antolatuko dute.

11:00etan Aurrera pilota eskolako umeek partidak jokatu

dituzte; 12:00etan Bengoetxeak binaka partida jokatu du eta jarraian bazkaria eta pesta izanen da txarangak lagunduta.

Bazkarirako 800 txartel jarri zituzten salgai, agortu arte. Eguraldi ona baldin bada, plazan egingen dute bazkaria eta eguraldi txarrekin kiroldegian.

Inguruarteko kanala garbitzeko lanak aste honetan hasi dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak joan den urtean kendu zuen Erasote errekan zegoen Batango presa. Horren ondoren, bi *urate* edo uholde izan ziren eta Mikel Zabaleta alkateak gogoratu duenez, «material asko pilatu zen Inguruarteko kanalean. Errekaren ur maila asko igo zen, ur asko atera zen ondoko baratzeetara eta txikizio dezente izan ziren». Horri erantzunez, Nafarroako Gobernura jo zuen udalak, eta orain, «hilabete askoren ondoren», astelehen honetan hasi da gobernua kanaletik materiala ateratzen. Lanek bi eta lau aste bitarte iraunen dituzte eta alkateak iragarri duenez, «200 eta 300 kamioi artean» aterako dituzte.

Mendiko bideak konpontzeko

Material hori mendiko bide batzuk konpontzeko erabiliko du udalak. Hasiara batean aterako duten materiala Gorritaranera eramanen dute, «Sorogainera doan bidea moldatzen ari gara eta hor betelana egiteko erabiliko dugu»,



laz bota zuten Batango presa. JM BARRIOLA

azaldu du Zabaletak. Azken egunetan aterako dutena, berriz, «Kitarran bueltara» bideratuko dute: «Erasote gainekoaldean, trenbide ondoan dagoen zelaigune batera», alkateak argitu duenez, «aurrerago Korteko bordako bidea konpondu nahi delako».

Informazioa herritarren eskura

Lanek iraun bitartean sor daitezkeen «arriskuak eta oztopoak ahalik eta gehien murrizteko» lanen inguruko informazioa herritarrei zabaltzeko asmoa du udalak. «Info Leitza bidez, lanak noiz hasiko dituzten, noiz eramanen duten materiala Gorritaranera, noiz Erasotera... abisatuko diegu herritarrei».



LHL ERRONKA

Herri inklusiboagoa izateko lanean

Ez da LHL erronkako kideek parkeetan inklusiorako tresnak jarri dituzten aurreneko aldia. Duela hilabete batzuk eskola ondoko parkean aulki eta iturri inklusiboak jarri zituzten. Berriki, berriz, beste aulki inklusibo bat jarri dute Areko zubi ondoko parkean, erreka ondokoan.

Hiru eraso faxista hilabete bateko epean

Pestetan gertatu ziren bi mehatxuen ondoren, irailaren 3an beste herritar batek erasoia jasan du

TTIPI-TTAPA

Azken aldian hiru eraso faxista izan dira Leitza. Horietan azkenena irailaren 3an gertatu zen. Herritar bati autoko gupil batean labanaz ebakia egin eta kristalean «*Fuera de Leiza putos monos!*» zioen oharra jarri zioten leihoan. Gainera, oharrean SS ikur nazia ere ageri zen, alderdi naziaren talde paramilitarra izan zenaren siglak, hain zuzen.

Aurretik, pestetan beste bi mehatxu agertu ziren. Txosna batzordeak adierazi zuenez, «abuztuaren 9ko gauen, beheko txosnan «*Muerte a los terroristas*» idatzi eta pintura gorria bota zuten. Abuztuaren 15eko gauean, berriro ere txosnako atean mezu bat utzi ziguten. Mezua herritar bati bideratua zen, berari eta bere familiari mehatxu zuzena eginez». Horiei

erantzunez, elkarretaratzea egin zuten abuztuaren 18an.

Irailko eraso salatzeke ere elkarretaratzea egiteko zuten irailaren 30ean udalak deituta. Horrez gain, udalak adierazpena onartu zuen irailaren 27ko batzarrean, «argi eta garbi» utziz «Leitza ez dugula inolako eraso faxistarik onartzen, ezta onartuko ere!». Eta «elkartasuna eta babesa» adierazi nahi izan dio «identitate, izaera, jatorri zein bestelako aniztasunagatik bere eskubideak urratzen zaizkion eta mehatxua jasotzen duen orori». Eraso faxistak ere salatu ditu, «halako gertakariak inpunitatez pasa ez daitezten, gure herrian ere gertatu direla jakinarazteko eta berriro gerta ez dadin». Gisa berean, «gizarte aske, anitz eta berdinzalea eraikitzeke konpromisoarekin lanean jarraitzeke» asmoa du.

2 motako diabetesaren inguruan tailerra

Nafarroako Gobernuaren pazienteen eskolaren barne, *Elikadura eta ariketa fisikoa 2 motako diabetesen* tailerra egingen dute udaletxean urriaren 17an, 19an, 24an eta 26an. 17:30etik 19:30era izanen dira, dohainik. Izena emateko: 848 42 34 50 edo pazienteeneskola.nafarroa.eus.

280.000 euro herritar batentzat La Primitiva loterian

Irailaren 24an egindako Primitivaren zozketan hainbat sari banatu zituzten. Kategoria bereziko asmatzaile bat izan zen, baita lehen mailako hiru txartel asmatzaile ere, eta horietako bat Leitza etorri zen. Herritar batek 280.053,82 euro kobratuko ditu.

Azarora bitarte hitzordu ugari Familien Txokoaren programazioaren barnean

TTIPI-TTAPA

Irailan hipopresiboei buruzko tailerrarekin hasi zuen Leitza, Areso, Goizuetan eta Arano Adin Txikikoen tratuen Sareak denboraldi honetako programazioa, baina azarora bitarte, beste hainbat hitzordu iragarri ditu. Aste honetan, esaterako, hipopresiboen tailerra egiteko dute, urriaren 4an eta 6an, Leitza. Urriaren 20an musika, dantza eta ipuinak uztartuko dituen hitzordua antolatuko dute eta 25ean haurraren loaz ariko dira. Bi saioak Leitza egingen dituzte.

Azaroran sartuta, hilaren 8an, lehen sorospenei buruzko tailerra egingen dute Leitza; azaroaren 10ean 0 eta 3 urteko bitarteko haurren konexio emozionalaz ariko dira Goizuetan. Azaroaren 17an 18 eta 36 urteko hilabeko haurren autonomia eta mugak izanen dituzte hizpide Leitza eta azaroaren 22an, azkenik, bizkar osasuntsuari buruzko tailerra antolatuko dute. Hori ere Leitza egingen dute.

Xehetasun gehiago aurrerago emanen dutela jakinarazi dute.

'Iparrekin bat!' kanpaina abiatu dute

'Iparrekin bat!' kanpaina abiatu du Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio Programak, 12 eta 16 urte arteko nerabeek eta haien familiareiek «emozioak bizitzaren eta errutinaren parte direnaren kontzientzia hartzeko». 158 familiari eskutitzak bidali dizkiete. Besteak beste, «familiar balorea emateko eta nerabezaroa garai berezia dela ulertzeko gakoak» eta emozioen inguruan hitz egitera animatzeko aholkuak eman dizkiete. «Ongizatea eskuratzeko laguntzeko» aholkuekin eskutitzak eta iparroratzak ere banatu dizkiete 190 neraberi.

Aktibazio sozioekonomikorako planarekin aurrera doaz

Hurrengo urteetan eskualdearen garapen ekonomikorako bide orria izanen den lehen plana onartzeko bidean dira Mendialdean. Planaren diseinua parte hartze prozesu baten bidez egingen ari da, eta eskualdeko hainbat sektore ekonomikoetako eragile nagusiekin 35 elkarrizketa eta bederatzi lan saio baino gehiago egin dituzte. Planaren zirriborroa herritarrei aurkeztu nahi diete urriaren 25ean egingen den foro irekian. 17:00etan Leitza Herri Aretan aurkeztuko dute.



Egiten ditugun lanak:
Fakaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teilak eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.



 948 031 174
 info@anelan.pro



IZaTe
DIETISTA - NUTRIZIONISTA
Ixoara Zabaleta Telleria

Elikadura eta nutrizioa
Kirol nutrizioa
Gorputz konposizioaren azterketa
Elikadura hezkuntza
Alergiak eta intolerantziak

689 381 992 @izatenutri
www.izatenutri.com izate.nutricion@gmail.com







Mitxelko baserrian jaioa da Florentina Loiarre Arotzena eta hantxe bizi da.



1992an ehun urte bete zituen Florentinaren ama Maria Arotzenak.

Mitxelkoko Florentinak ehun urte beteko ditu

Mendeurrena urriaren 15ean beteko du Mitxelkoko alabak eta biharamunean ospatuko du

ESTEBAN AROTZENAK

Nolako zura, halako ezpala. Halaxe dio esaera zaharrak, eta ezin hoberik aurkitu Mitxelko baserriko familiari buruz ari izeko. Urriaren 15ean ehun urte beteko ditu Florentina Loiarre Arotzenak, eta duela 30 urte, urriaren 31n, bere ama Maria Arotzenak ehun urte

bete zituen. Mendeurrena beteta hil zen Mitxelkoko Maria, eta Paulo Loiarre bere senarra 98 urterekin.

Ehun urteko hiru lagun

Maria Arotzena ez zen 1992. urtean ehun urteko muga gainditu zuen herritar bakarra izan; 1892an jaio ziren hiru

goizuetarrek bete zituzten ehun urte: Mitxelkoko Mariak, Donfermineneko Jaxinta Eskudero eta Muxurdinbordako Maria Apezetxeak. Eta urte hartan udalak hirurak izan zituen gogoan, oroigarri bana emanez.

Oso bestelako osasun egoerarekin ailegatu ziren ehun urteak betetzera. Jaxinta, esaterako, ohean zegoen. Apezetxea, ordea, oinez Kuxinene baserrira joaten omen zen kafea hartzera. Eta Arotzena, gurpil aulkian zegoen ordurako, baina osasun harrigarria zuen. Eta zein ote zen sekretua? Bada kontatu zuenez, «ehun urtetara ailegatzeko arrazoietako bat pattarrak ematen duen bixigarritasunean dago». Egu-

nean hiru tragoxka edaten omen zituen.

Maria amaren lekukoa Florentina alabak hartu du

Maria eta Paulok hamabi seme-alaba izan zituzten, eta horietako bat, Florentina, da orain mendea beteko duela. Alaba bat, biloba bat eta bi birbiloba ditu eta urte mordoska omen ditu Mitxelko baserriatik herrira etorri gabe. Hala ere, herria ikusteko gogotsu dago eta Oxeguarda jatetxean bere ingurukoekin ospatu nahi du bere urtebetetze egun berezia urriaren 16an. Ez dira egunero betetzen ehun urte, eta dudarik gabe, bada ospatzeko nahiko motibo. Zorionak!



FELIX LOIARTE

Abesbatzakoak Tuteran

Umore Ona abesbatzako kideak Tuteran aldean ibili ziren joan den irailaren 17an. Tuteran kantuz taldearekin elkartu ziren eta emanaldi ederra eskaini zuten denek elkarrekin. Topaketa aitzakia hartuta, egun-pasa polita egin zuten herritarrek Erriberan.



ARAINBURU MENDI TALDEA

Zortzi ordu eta erdiko buelta Artikutzan

Arainburu mendi taldeak antolatuta, Artikutzan barna mendi ateraldia egin zuten irailaren 17an. Zazpi lagunek osatu zuten 32 kilometroko ibilbidea eta eguraldia alde zutela, bista ederrekin gozatu zuten. Zortzi ordu eta erdi behar izan zituzten buelta egiteko.

Beste urte batez martxan da Goxali aisialdi gunea

TTIPI-TTAPA

Aste honetan hasi du Goxali aisialdi guneak ikasturtea eta ohi bezala, hiru eta hamalau urte bitarteko haurrek eta gaztetxeok jolaserako, harremanak eraikitzeke eta irakurketa eta etxeko lanak sustatzeko espazioa izanen dute dohainik.

Udalak, eskolak, guraso elkar-teak, eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Prebentzio Programak jarri dute Goxali martxan eta aurrean ere bi zerbitzu izanen dira: ludoteka batetik, eta joko tailerra bestetik. Bata zein bestea eskolako jangelan izanen dira.

Ludoteka

Ludoteka asteartetan eta ostiraletan izanen da: asteartetan 16:30etik 17:30era Haur Hezkuntzakoak elkartuko dira eta

17:30etik 18:30era Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik laugarren mailara bitartekoak. Ostiraletan, berriz, zaharragoen txanda izanen da. 16:00etatik 17:00etara Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoen eta DBHko lehenengo eta bigarren mailakoen txanda izanen da.

Joko tailerrak

Joko tailerrak hilabeteko azken ostegunetan egingen dituzte. Tailer hauek Haur Hezkuntzako haurrei eta haien gurasoei bideratutakoak dira eta urriaren 27an hasita 16:30etik 17:30era elkartuko dira. Hortik aurrera azaroaren 24an, abenduaren 15ean, urtarrilaren 26an, otsailaren 23an, martxoaren 23an, apirilaren 27an eta maiatzaren 25ean izanen dira hurrengo hitzorduak.



Eskuinean Lujanbio, besteak beste, Letizia espainiarren erreginarekin eta Jill Bidenekin.

Amaia Lujanbioren lana goraipatu dute New Yorken egin duten topaketa batean

TTIPI-TTAPA

Minbiziaren Ikerketaren Mundu Egunaren harira, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkar-teak AEBetan ikerketan ari diren hamabost ikerlariren lana nabarmendu nahi izan zuten New Yorken egindako topaketan. Aurpegi ezagunak bildu ziren hitzorduan, baita

herritar bat ere: aspalditik ikerketan ari den Amaia Lujanbio Goizueta. New Yorkeko Mount Sinai ospitalearen Icahn Medikuntza fakultatean aritzen da gaur egun lanean, bere izena duen Lujambio Laboratory laborategian. Gibekeko minbiziaren aurkako ikerkuntzan segitzen du.

Energia berriztagarrien komunitateei begira

Energia berriztagarrien komunitateak sortzeko bidean hitzaldiak egingen dituzte datozen egunetan

TTIPI-TTAPA

Egungo kontsumo energetikoarekin eta horrek sortutako eraginekin kezkatutako «gero eta herritar gehiago» dagoela ikusita, Mendialdea Mankomunitateak energia berriztagarrien komunitateak sortzeko lehen pausoak ematea erabaki du Goiener kooperatibaren laguntzarekin. Agenda 21eko ekintzen barrenean kokatu dute, eta Nafarroako Gobernuarekin batera finantzatu dute.

Herritarrak eta herriko erakundeak bildu nahi dituzte energia berriztagarrien komunitateetan, eta hala, «energia sektorearekin zerikusia duen edozein jardueratan lankidetzan aritu eta erabakiak batera hartu» nahi dituzte.

Goienar arduratuko da aholkularitza eta prozesuak gidatzeaz eta gogoratu dutenez, «energia fosilak alde batera utzi eta bertako energia berriztagarria erabiltzeaz gain, kontsumo arduratsua eta eraginkorra egitea da energia berriztagarrien komunitatearen helburua, herri bakoitzak dituen baliabideak eta beharrak ongi aztertuta».

Horrekin batera, «ingurugiroari eta herritarrei onura ekonomikoak ekartzeko aukeraz gain, energia berriztagarrien komunitateak bizilagunen arteko harremanak sortu eta energia modu justuan banatzeko tresna paregabeak direla» adierazi dute. Hala, gaiarekin kezka duten Arano, Areso, Araitz, Betelu, Goizueta, Leitza, Larraun eta Lekunberriko herritarrei egin diete hitzaldietara joateko gonbidapena.

Hitzaldiak

Kontsumituko dugun energiaren ardurak hartzerako goaz izenburupean, lau hitzaldi antolatuta dituzte: Larraun-Lekunberri irailaren 22an egitekoa zuten eta Leitza urriaren 4an. Gainerakoak ondoko egunetan egingen dituzte: Araitz-Betelun urriaren 20an eta Goizuetan urriaren 27an. Gaineratu dutenez, «herritar guztiak izanen dute hausnarketa prozesuan parte hartzeko aukera, baita energia berriztagarrien komunitateen sorreran zein aurrerantzean garatuko diren proiektuetan aritzeko ere».

Jubiloteka zerbitzua probatzeko hitzorduak herriz herri urrian

TTIPI-TTAPA

Memoria, oreka, koordinazioa, luzaketa eta beste hainbat alderdi lantzen dituzte 65 urtetik gorakoek jubilotekan. 10:00etatik 13:00etara astelehenetan Leitza Udaletxeko lehen solairuan, asteartetan Goizuetako jubilatuen elkarteetan, asteazke-

netan Aresoko Udaletxeko lehen solairuan eta ostegunetan Aranoko Maisuenean biltzen dira, hilean bost euro ordainduta. Zerbitzua probatu nahi duenak urrian izanen du aukera: hilaren 17an Leitza, 18an Goizuetan, 19an Areson eta 20an Aranon, 11:00etan jarri dute hitzordua.

Urriko kultur agenda jardueraz betea heldu da

Azokak, aurkezpenak, zinema eta musika izanen dira nagusi hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Udazkena herritar guzien gustuko ekitaldiekin hasi dugu eta urria ere jardueraz beteta etorri zaigu Baztanerat.

Baztango artisau eta nekazariak azokak egingen dituzte Elizondoko plazan urriaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, 10:00etatik 14:00etara. Honez gain, eguraldia lagun baldin badute, Erratzuko artisauek merkatua egingen dute herriko plazan urriaren 9an eta 30ean, 11:00etatik 15:00etara.

Baztan Kantuz ekimena Berroetan izanen da hilabete honetan, urriaren 16an 12:00etan plazan. Mahai-jokoak kutxa ibiltariak, berriz, Amaiurren egingen du geldialdia, urriaren 22an eta 23an.

Urriaren 7an Garbiñe Larrea Iturralde Arizkunenean izanen da *Sendabelarrek dakitena* liburua aurkezten. Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatatu dute aurkezpena eta kultur etxeko hitzaldi aretoan 18:00etan egingen da.

Iruritan zinema zikloa izanen da eta *Ardiak, ezkontza eta*

kontrabandoa filma proiektatuko dute hilaren 14an Gizarzte Bilgunean 19:00etan. Mariscotarren istorioa kontatzen du filmak, kontrabandoan aritu zen abeltzainen familia.

Bertsozaleek, berriz, urriaren 22an Elizondon dute hitzordua. Izan ere, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren lehen-dabiziko finalurrekoa jokatuko dute Baztan pilotalekuan 17:00etan. Sarrerak bertsosarrerak.eus webgunean.

Musikarendako tartea ere izanen da urrian, izan ere, Bidea zabalduz 2022 zikloaren barnean bi kontzertu izanen dira; Mendi Abesbatza Arraiozko elizan izanen da urriaren 22an 19:30ean, eta Atarrabiko Abesbatzak Irurritako elizan kantatuko du hilaren 23an 12:00etan. Honez gain, Los Malagatos folk talde malagarraren kontzertua izanen da urriaren 30ean Arizkunenean 18:00etan.

Azkenik, Iciar Muñozen pinturak ikusgai daude Arizkuneko lehenbiziko solairuan hilaren 13ra arte.



ONDIKOL

Txokotoko bestak giro ederrean

Irailaren 16an, ortziralean, arratsaldeko txupinazoarekin hasi ziren Elizondoko Txokoto auzoko bestak eta hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izan zuten herritarrek asteburu guzian. Jendetza bildu zen zopetan, zikiro jatean eta eguneko zein gaueko kontzertuetan.

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Eskola ttikien besta urriaren 9an

TTIPI-TTAPA

Iruritan ospatuko da aurten Eskola ttikien besta urriaren 9an eta egun osoko egitaraua prestatu dute eskolek eta Irurritako Guraso Elkarteak:

10:00etan harrera ekitaldia egingen dute herriko plazan eta 10:30ean ibilaldia abiatuko dute. Bi ibilbide izanen dira; lehenbizikoa motzagoa, karrotxoendako egokia eta bigarrena 7,5 kilometrokoa, mendian barna. Bi ibilbideen elkargunean hamaiketako egingen dute, eta bertan Aina-ara Unanua ipuin kontalariaren

istorioak aditzeko eta aurpegiak apaintzeko aukera izanen dute.

14:00etan Erreboteko plazan elkartuko dira, norberak etxetik ekarritako bazkaria jateko. Kafea eta kopa Irurritako Herriaren kontura izanen dira eta edariak eta postreak salgai egonen dira.

Arratsaldean haurrendako puzgarriak, jokoak eta zaldian ibiltzeko aukera izanen dira 15:30etik 18:30era eta Bizphiruru Pelau taldearekin dantzaldia izanen da. Gainera, ostatua irekita egonen da eta sotopilak jateko aukera izanen da.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean





Zakurrak hezten eta entrenatzen egiten du lan Usoa Urrutia iruritarrek. UTZITAKOIA

«Zakur eta jabearen arteko harremana indartzen du agilityak»

USOA URRUTIA FRIAS ZAKUR HEZITZAILEA

Zakurrak hezten aritzeaz gain, agility txapelketetan parte hartzen du Usoa Urrutia iruritarrek Xasta zakurrekin eta Espainiako txapelketarako sailkatu dira aurtan

R. OSKARIZ IRURITA

Animalien eta naturaren ongizatea bere bizimodu eta ogibide bihurtu duen iruritarra da Usoa Urrutia Frias. Zakurrak zaintzen, hezten eta entrenatzen egiten du lan eta beti dago prest erronka eta zailtasun berriei aurre egiteko. Agility txapelketetan parte hartzen du Xasta bere zakurrekin eta hainbertze urtez entrenatu ondotik, urriaren 29tik 31ra Zaragozan jokatu den Espainiako VIII. Agility Txapelketarako sailkatu da bikotea.

Nondik heldu zaizu zakurrekiko afizioa?

Ttikitatik animalia artean ibili naiz, etxean zakur ttiki bat

izan genuen eta harekin erlazio arras ona izan nuen. Izebaren baserrian denbora aunitz pasatzen nuen animaliekin eta han hasi nintzen artzain zakurrekin lehenengo esperimenduak egiten 10 bat urte nituela, leitzen eta ikusten nuena praktikan jarritz. Artzain zakurrekin eta ardiekin lanean aritzen hasi nintzen 12-14 urterekin. Arras gustuko izan dut beti beraien jokaera aztertzea, eta horri esker sentisibiltate eta irakurmen onak lortu ditut gaur egun, animaliekin komunikazio eta erlazio bereziak sortuz.

Zenbat zakur dituzu?

Oraitxe bertan hiru zakur dauzkat etxean. Xasta 3 urte

eta erdiko Euskal Artzain Zakur eta Border Collie nahas-keta da, agilityko txapelketetan aritzen naiz berarekin eta nire lehendabiziko zakurra da aspektu guzietan. Lagun 7 urteko Setter bat da, eta familia berri bat aurkitzen diodan bitartean berarekin lanean ari naiz. Etxeko ttikiena Luma da, 6 hilabeteko ehiza zakurren nahasketa; berarekin orain hasi naiz agility eta obediencia irakasten. Hirurak arras zakur biziak dira, lanerako eta edozein jardueretarako beti prest.

Zertan aritzen zara lanean?

Mutiloan dagoen Beloan txakurren zentroan egiten dut lan. Bertan, eguneko egoitzan zaintzen ditut zakurrak, hezi-

keta klaseak ematen ditut jarrera arazoak zuzentzeko eta hainbat kirol egiten ditugu, haien artean Kirol Detekzioa eta Agility. Agilityko monitorea ere banaiz.

Bertze lekuren batean aritu izan zara zakurrekin?

Bai, Begilun zakur eskolaren bidez Baztan, Bortziriak eta Malerreka aldean zakur batzuek hezten ere ibili naiz. Denboraldi bat geldirik egon bada ere, berriz ere martxan jartzea pentsatzen ari naiz, gure zonaldeko jendeari dituen arazoekin laguntzeko. Zakurrekin lanean bertze sektore batzuetan ere ibili naiz, Nafarroako Gobernuak zakurtegia, bertzeak bertze.

Non ikasi duzu zakurrak hezten?

Duela ia 5 urte hasi nuen formakuntza. Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa akitu nuen, haurrak eta animaliak elkartzeko aukera baten bila ibili nintzen eta *Biak Bat* aurkitu nuen, zakurrekin terapiak egiten duen entitate nafarra. Terapietako teknikari gisa formakuntza jaso nuen eta bertan gaur egun nire nagusia eta irakaslea den Iosu ezagutu nuen. Mundu honetako atek zabaldu zizkidan, baita bere lantaldeak ere. Zakur hezitzaile titulazioa non eskuratu gomendatu zidan, Lodosan dagoen zakurren zentrorra bideratuz. Bertan ikasi nuen oinarrizko heziketarako beharrezkoa den guzia. Gainerako ikaskuntza guziak esperientziak eta lanak eman dizkirate, baita losurekin elkarlanean eta beregandik ikasten segitu dudak guziarekin. Nire zakur Xastarekin ere esperientzia handia hartu dut, hainbat esperimentu eta buruhauste ederrak izan baititut berarekin. Honez gain, albaitari laguntzaile formakuntzak egin nituen hezitzaile izan aitzinetik, eta gaur egun ikastaroak eta formakuntzak egiten jarraitzen dut; oraingoan zakur eta katuen osasun eta elikadura arloan espezializatzen ari naiz.

Zein da zakur bat ongi entrenatzeko gakoa?

Pazientzia izatea eta zakurra- ren beharrei eta erritmoari moldatzea. Zakur bakoitza ezberdina da, nahiz eta guzietan antzeko patroia bat izan ikas- teko orduan. Batzuek denbo- ra gehiago behar dute, eta jabearen abilezia ere garrant- zitsua da komunikazio ho- rretan.

Zenbat zakurrekin egiten duzu lan?

Astero 50 bat zakurrekin egiten dugu lan zentroan, zerbitzu guzietako erabiltzaileak kon- tuan harturik.

Nola izan zenuen agility proben berri?

Lehendabizi Interneten bi- deoak ikusi nituen eta harri- tuta gelditu nintzen. Forma- kuntza saioetan lehenengo entrenamenduak ikusi nituen eta orduan sartu zitzaidan zakur bat prestatu eta agility- ko txapelketetan aritzeko go- goa.

Zertan datza kirol hau?

Oztopo-pista bat ahalik eta denbora gutienera eta ahalik eta akats gutienekin egitean datza. Saltoak, tunelak, balan- tzina, bi arrapala mota, zirri- ka eta 12 makil bertikalez osatutako eslaloma dira aurki ditzakegun oztopoak. Zaku- rraren altueraren arabera ka- tegoria batean edo bertzean salto egiten da, 5 mailatan sailkatua; 20, 30, 40, 50 eta 60 zentimetrokoak. Zenbakiek erakusten digute nondik nora gidatu beharra dugun zakurra. Gidariok zazpi minutu izaten ditugu epaileak sortutako pista ikasteko eta gure plana egiteko: non kokatu, nondik gidatu, zein mugimendu egin... Ehiza Federazioan parte har- tzen dugunok hiru kategoriatan har dezakegu parte: *Iniciación* oinarritzko maila izanen litzateke, zakurrak eta gidariak esperientzia har dezaten, *Pro- moción* delakoa lehenenbizi- ko maila izanen litzateke eta *Competición*, berriz, maila gorena. Kategoria bakoitzean bi pista egiten dira, pista ba-



Kategoria altuenera ailegatu eta Espainiako txapelketan parte hartuko dute Xastak eta Urrutiak. UTZITAKOAK

koitzaren zailtasuna katego- riarari egokituz.

Zakurraren eta jabearen arteko harremana lantzen laguntzen du?

Arras lagungarria da bien ar- teko harremana lantzeko. Zakurrarendako dibertigarria da, jolasa baita haiendako, eta jabearekin elkarlanean aritzea arras gustuko dute gehienek. Erronka berriei aurre egiteak ere aunitz laguntzen du elka- rrekiko konfiantza indartzen.

Edozein zakurrekin parte har dezake?

Ia edozein zakurrekin egin de- zake, beti moldatu baitaiteke haren beharretara. Zakurraren fisikoak baldintzatzen gaitu arraza batzuekin baina, oro- korrean, guztiendako molda- tu daiteke. Osasun arazoak baldin baditu pista edo arike- ta motzagoak egin ditzake, adibidez, edo makilak lurrean daudela. Bakoitzaren beha- rretara egokitzen saiatzen naiz klaseetan: batzuk denbora pasa etortzen dira, bertze ba- tzuk probetan parte hartzeko,

haurrak familiako zakurrare- kin ikastera ere etortzen dira... eta guzien gaitasun eta beha- rretara moldatu beharra dago.

Noiz hasi zineten txapelketetan parte hartzen?

Martxoan 2 urte eginen ditu- gu. Bizkaiko Indarkan taldea- ri esker hasi ginen probetan parte hartzen, momentu har- tan Nafarroan ez baitzegoen talderik. Orduetik Ehizako Federazioko Ligan parte hartu dugu haiekin; Kantabrian, Asturiasen, Valladoliden eta Bizkaian. Hiru mailetatik pa- satu gara, eta maila gorenera ailegatu gara.

Zenbatero entrenatzen zarete?

Lanak uzten didan neurrian, astero entrenamenduren bat egiten saiatzen naiz. Denbo- raldiaren arabera ere gehiago edo gutiago entrenatzen dugu: probak baldin baditugu gehi- go entrenatzen saiatzen gara, gure akatsak lantzeko eta ber- tze alderdi batzuk sendotzeko. Bertzenaz, trankilago ibiltzen gara, trankiltasuna eta ongi-

zate fisikoa ere garrantzitsuak baitira, kirolari guztiendako bezala.

Espainiako txapelketarako sailkatu zarete. Zer egin behar da sartzeko?

Bai, lehenbiziko aldiz sailkatu gara eta taldeko kategorian zein individualki arituko gara. Honetarako, lehenik *Competición* maila altuenera ailega- tu behar da; txapelketa erre- gionalean sailkatuz, *excelente* puntuak lortuz (80 puntu) edo ligan puntuak lortuz. Ezinber- tzekoa da probetan ahal duzun hoberen lan egitea, sailkapen bakoitzarekin puntuak lortzen ahal dituzulako.

Zein helburu duzu txapelketara begira?

Gure lana ahalik eta hobekien egitea eta pistan ematen du- gunarekin kontent egotea. Bertara ailegatu izana sari ederra da dagoeneko eta es- perientziak disfrutatzearekin konformatzen naiz. Orain arteko lanaren azterketa fina- la izanen da, eta bertatik ikas- ten ahal dugun guziaz ekarriko dugu etxera.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Jendea animatu nahi dut za- kurrekin horrelako esperien- tziak bizitzera eta beraiekin izanen denbora bertze arlotan par- tekatzera.

«ZAKUR BAT ONGI ENTRENATZEKO GAKOA PAZIENTZIA DA»

«PISTAN EMATEN DUGUNAREKIN KONTENT GELDITZEA DUGU HELBURU»



Nafarroako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abeltzainak elkartu ziren. F. ANBUSTEGI

Behi piriniotarraren feria arrakastatsua izan da

Nafarroatik, Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako 24 abeltzaintza ustiatetik parte hartu dute aurtengo edizioan

TTIPI-TTAPA

Behi azienda piriniotarraren XXXIII. lehiaketa-enkante nazionala ospatu zuten Elizondon irailaren 24an eta 25ean. Euria nagusi izan bazen ere, jendetza hurbildu zen behi aziendak ikustera eta 24 abeltzaintza ustiatetik parte hartu zuten guzira; hamabortz nafar, sei gipuzkoar eta hiru bizkaitar.



Behi piriniotarra. F. ANBUSTEGI

Sari banaketa

Igandean sari banaketa egin zuten. Lehiaketak 13 atal izan zituen, behi eta zezenak adin-ka banaturik. Horiez gain, 11 sari berezi banatu zituzten,

haien artean Baztango behi onenaren saria Juan Jose Iñárrrea erratzuarrarendako izan zena eta Baztango zezen onenarena Gil Goienetxe arizkundarrarendako.

Udalak 53.700 euroko inbertsioa egin du nekazaritzako azpiegituretan

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak 53.752,54 euroko inbertsioa egin du nekazaritzako azpiegituretan uztailan eta abuztuan. Lanak Oiartzungo Berdabio enpresak egin ditu eta hauek dira aipagarrienak:

Erratzuko Azkarate auzoan ateka eta 110 metroko hesia Oiara bordaren ondoan.

Belaten kanadar ateka Donamaria aldera eta Putzualden aska berria itxiturarekin.

Erdizko Larrakarteko iturburuan sasiak garbitu eta hetsi egin dute. Bainuontzi zaha-



Putzualdeko aska berria. UDALA

rra kendu eta aska berria paratu dute.

Otsondon errepide bazterreko iskindegiak berritu eta Punpulusta aldera bi ateka berritu dituzte.

Komiki eta nobela grafikoaren irakurle taldea aurkeztuko du liburutegiak

TTIPI-TTAPA

Baztango Liburutegi Publikoak komiki eta nobela grafikoak gustuko dutenendako irakurle taldea sortu nahi du, eta urriaren 17an egingen dute ekimenaren aurkezpen saioa.

Astelehenean 19:00etan liburutegian bilduko dira egitasmoa zertan datzan azaltzeko. Hortik aitzinera, taldea hilabetean behin bilduko da maiatza arte Adur Larrea komikigilearen gidaritzapean, irakurtzen diren komiki eta nobelak aztertzeko eta komentatzeko.

Izen-ematea

Komiki irakurleen taldean parte hartzeko interesa dutenek 948 581 204 telefono zenbakira deitu beharko dute edo [biblibaz@navarra.es](mailto:bibliabaz@navarra.es) helbide elektronikora idatzi beharko dute izena emateko. Debalde izanen da.

Antolatzaileek adierazi dutenez, «printzipioz helduei zuzendutako jarduera da, baina izen-ematean arabera haur eta gazteek ere interesa dutela ikusten bada, bertze aukera batzuk aztertuko liriteke».

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
 Ferretaria · Sukaldeko tresnak
 Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda · Oinetakoak
 Laneko arropa · Bitziak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak · Poltsak eta mailetak
 Etab.

T. 608 016 052
 San Andres, 66 - NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
 Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

| | | | |
|---|---|---|---|
| Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648 | Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108 | Eliza Karrika, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304 | Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948638077 |
|---|---|---|---|

Krisi ekologikoa mintzagai Talde Ekosozialarekin

Krisitik ateratzeko aberastasunaren banaketa eta ekologismoa aldarrikatu zituen Iñaki Barcena irakasle eta ekologistak

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak Idorteen, suteen, alimaleko beroen garaian... *ekologia gehiago* mintzaldia antolatu zuen irailaren 23an Arizkuneko sabaian. Iñaki Barcena EHUko irakasle katedraduna eta mugimendu ekologistako kideak «oraingo egoera ulertzeko gakoak» eman zituen.

Ekologismoa «mugimendu soziala dela» azaldu zuen, «gizakiaren eta naturaren arteko harremana orekatu nahi duena. Une honetan zientzialarien eta ekologisten arteko aliantza baten hasmentan gaude, zientzialarien azterketa sakona eta ekologisten kritika sistemikoa elkartzen dituen gertatzen ari dena azaltzeko».

Krisiaren azterketan sakonduz, «krisi guztiak aldaketarako aukera dira, eta negozio-rako erabiltzen dute batzuk», Iberdrolaren irabaziak gogora ekarrita. Ikuspegi ekologistatik «gizarteko asimetriak ikusarazi beharra direla» aipatu zuen, «denek ez dute ardura bera krisi ekosozial honetan, eta guzti honetatik



Arizkunenean izan zen solasaldia.

aprobetxatzen ari direnak seinatu behar dira. Halaber, aberastasuna banatu behar da eta ekologismo gehiago ere behar da; aberastasuna planetaren mugen barnean sortzen ahal den hori bakarrik izaten ahal da».

Karikabuelta bizikletan ortziralean

Bizikletaren erabilera sustatzeko, karrikabuelta antolatu dute Elizondoko Herriarekin, eskolekin, Baztandarra taldearekin eta Baztango Udalarekin batera. Urriaren 7an 19:00etan Elizondoko plazatik abiatuko da buelta eta ekimena girotzeko DJ Reimy izanen da musika jartzen bere bizikleta bereziarekin.



Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde zinegotziak bertan izan ziren. BAZTANGO EZKERRA

Baztango Ezkerrak Zozaiako asfaltatze lanak bisitatu ditu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak 19.621,60 euroko dirulaguntza hartu du aurten, Baztango Ezkerra udal taldeak bultzatua, Zozaiako auzoko karririk asfaltatzeko.

Udal taldeak asfaltatze lanak bisitatu zituen, eta bertan izan ziren Florentino Goñi eta Iñigo Iturralde zinegotziak, Jorge

Oteiza Oronoz-Mugairiko alkatea, Marisa de Simon IEKO parlamentaria eta Carlos Guzman IUNeko koordinatzailea. Bisitan Goñik txosten bat eman zion parlamentariari, 2023ra begira 53.000 euroko kontu-sail bat onartu dezaten, bailarako bideak berritzea izanen duena helburu.

Vitagrama proiektua aurkeztuko dute Baztanen urrian eta azaroan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 9an Labrit Multimedia kideak Anizen izan ziren Vitagrama proiektua aurkeztu, familiakideen memoria betiko atxikitzeko sortu duen tresna digital berria. Orain, aurkezpenak bailarako bertze herrietan egingen dituzte.

Urriaren 6an Elizondon, Arizkunenea kultur etxean 19:00etan. Urriaren 7an Amaiurren, 18:30ean elkartean. Azkenik, azaroaren 4an Arizkunenean egingen dute aurkezpena, 19:00etan medikuaren etxean. Hurrengo egunetan aurkezpen gehiago egingen dituzte.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

ANZABAL

inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804

anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

URDAZUBI



Agus Bentako Udazkeneko poltsatsoa. URDAX-DANTXARINEA

Pintxoak dastatzeko aukera izan dute Dantxarinean

Pintxoaren Hamabortzaldia hilabete aitzineratu dute aurten eta bozkatu eta zozketetan sartzeko aukera izan da aurten ere

IRAIA ETA ARANTXA

Dantxarineko Pintxoaren Hamabortzaldiaren bertze edizio bat egin dute irailaren 15etik 30a arte. Beraz, usaian baino hilabete lehenago. Hainbat bentek parte hartu dute; Agusek, Axularrek (Drunken Duck), Biokek (Lapitxuri Jatetxea eta Snack), Landibarrek, Pacok, Pantxok eta Peiok.

Pintxoaren argazkiak Urdax-Dantxarinea Facebook orrira ere igo dituzte eta botoa emateko aukera izan da. Bozkatu dutenen artean zozketa bat izanen da eta benta irabazlean bi pertsonentzako



Otxondo kafetegiko Beltzaburger.

bazkaria irabazteko aukera izanen dute.

Honez gain, bertze zozketa batean sartuko dira bezeroak; Mutrikuko Haitzalde landetxean asteburu bat.

Kontrabandisten Lasterketetarako laguntzaileak

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketan parte hartzaileek egunaz ongi gozatzeko, antolatzaileak herritarren laguntza eskatzen ari dira. Dagoeneko laguntzeko prest dagoen jendea baldin badago ere, nahi duen orok jo dezake antolatzaileengana eta bere laguntza eskaini. Gogoratu larunbatean 19:30ean abiatuko dela Gaueko Lanak, 9 kilometro eta erdiko lasterketa eta igandean 10:00etan, berriz, maratoi erdia. Internet bidez izena emateko aukera urriaren 2an bukatu da.

Ikasturte honetako ikastaroak ere martxan dira

Ikasturte berriarekin ere abian dira urtero herrian izaten diren ikastaroak. Horietako gehienak Ugarana emakumearen elkarrearen eskutik izaten dira, urtean antolatzen dituzten bertze ekintzekin batera, norbere gorputza mugitzea ere garrantzitsua delakoan: astelehenetan Stretching, asteartetan Yoga eta asteazkenetan Zumba izaten dute. Hauetaz gain, trikitixa, pandero eta Kenpo Kai ikastaroak ere izanen dira. Ikastaro guztietan izena emateko epea hasia da jadanik. Ez gelditu tokirik gabe!



UTZITAKOIA

Ondarearen jardunaldiak herrian

2022ko Europako ondarearen jardunaldien baitan, ondare jasangarriaren egunak ospatu ziren irailaren 24, 25 eta 30ean. Berroberria-Alkerdi lezeen gunera bisita egiteko aukera izan zen, magia ikuskizuna izan zen Trikuharry parkean eta akitzeko, monasterioa urriatik bisitatzeko aukera izan zen.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
RESTORANTERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Axular, 12 - Antzanborda - URDAZUBI - Tel.: +34 848 85 00 21



17 lagun elkartu ziren irailaren 19an Donezteben. JULEN MITXELTORENA

Elkarretaratzeekin hasi dira pentsiodunak

Ikasturte honetako bigarren elkarretaratzea urriaren 17an Lesakan egingen dute Baztan-Bidasoko pentsiodunek

TTIPI-TTAPA

«Borroka ez da gelditu». Halaxe aldarrikatu zuten Baztan-Bidasoko pentsiodunek irailaren 19an Donezteben egindako elkarretaratzea. Huraxe izan zen ikasturte honetako lehenbiziko hitzordua, eta ondoko hilabeteetan eman nahi diote segida. Baztan-Bidasoko pen-

siodunen mugimenduaren arabera, egoerak okerrera egin duelako: «Bizi duina egin ahal izateko oinarrizko baliabideen garestitzea, zaintza zerbitzuak murriztea, pribatizazio bidea indartzea, erreforma berrien mehatxuak iragarzea...». Hala, «lasaitzeko aukerarik ez» dagoela iritzita, «karrikara indar

gehiagorekin» ateratzeko deia egin dute.

Doneztebeko mobilizazioan, joan den ikasturtean egindako ekimenak oroitarazi zituzten: «banketxeen zerbitzu murrizketak direla eta udaletan onartutako mozioak, pentsioen egokitzapenak benetako KPIra egokitzeko sinadura bilketa, energia iturrien prezioen gorakaden aurkako protestak, osasun zaintza eta arreta egokia izateko baliabideak jartzeko elkarretaratzeak eta pentsiodunen aldarrikapenen aldeko bizikleta martxa». Gisa berean, «pandemia, Ukrainako gerra eta gisa honetako aitzakiez baliaturik, bizitzeko oinarrizkoak diren baliabideen gorakada eta zerbitzuen murrizketak» egin izana salatu zuten, baita «pentsioak murrizte aldera birformulatzeko iragarpena eta pribatizazio joerak, malgutu beharrean, bizitu» direla ere.

Hurrengo elkarretaratzeak

Hurrengo urriaren 17an Lesakako Plaza Zaharrean egingen dute, azaroaren 21ean Elizondoko plazan, abenduaren 19an Berako Iamotenea pareko aparkalekuan eta urtarrilaren 16an Doneztebeko eskola aitzinean; guztiak 12:00etan.

Solaslaguna egitasmoak bertze ikasturte bat abiatu du

TTIPI-TTAPA

Ez dira gutti euskaraz aritu nahi eta aukerarik ez dutenak inguruan horretarako lagunik ez dutelako. Zenbaitekeuskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko aukerarik ez dute eta egoera horretan daudenezko aukera aproposa da Solaslaguna, euskaraz aritzeko espazioak eta aukerak ematen baititu. Aurtengo ikasturte ere abiatu du Solaslagunak, eta aurpegi berriarekin gainera. Xabi Iriarte Ibarrola doneztebarra izan da ekainera arte egitasmoko dinamizatzailea. Bertzalde, norbaitek Solaslaguna egitasmoan apuntatu nahi badu, hementxe du lotura.



Eskualdeko gazteen ikus-entzunezko kontsumoa ikertu du UEMAK

TTIPI-TTAPA

Udalerrri euskaldunetako gazteen ikus-entzunezko kontsumoa ikertu du UEMAK, erdarek gazteen eguneroko ohituretan duten garrantziaz jabetzeko, LH 4. mailatik Batxilergoko 2. maila arteko 11.571 gaztekerantzun dituzte inkestak, eta tartean Baztan-Bidasoaldeko eta Leizaldeko 731 gaztek.

Hizkuntza ezaugarrien kasuan, eskualdeko gazteen % 57,3ren lehen hizkuntza euskara da; euskara eta gaztelania % 25,9rena, gaztelania % 14,1ena eta bertze hizkuntza bat % 2,7rena.

Euskaraz errazago egiten du % 55,3k, euskaraz edo gaztelaniaz berdin % 26,5ek eta gaztelaniaz errazago % 18,2k. Gainerakoan, etxean % 70,1ek egiten du euskaraz, ikasgelan % 81,6k, gelatik kanpo ikaskideekin % 72,5ek, lagunartean % 71,5ek eta eskolaz kanpoko jardueretan % 72,7k.

Euskararen erabilera

Telebista kateei dagokionez, ohiko kontsumoa hartu du UEMAK aztergai, azken hiru egunetan ikusitako kateez galdetuz. Aunitzek kate bat baino gehiago ikusi dutenez, kate guztien

kontsumoaren batura % 100 baino haundiagoa da: portzentajeak adierazten du zenbat ikaslek ikusi duten bakoitza. Hona hemen nagusienak: % 41,5ek ETB1, % 27,8k FDF, % 24,3k Clan, % 20,9k Telecinco, % 17,9k ETB2 eta % 17,6k Neox.

Ikus-entzunezko plataformen kasuan, alde haundiarekin Netflix da erabiliena, % 52,8k inkesta egin den egunetan ikusi izana onartu baitu. Amazon da bigarren ikusiena (% 27,2) eta Movistar + hirugarrena (% 19,7), baina batere ikusi ez dutenak ere ez dira gutti (% 23,9).

Sare sozialez ere aritu dira UEMAK inkestan, eta Youtube (% 81,8), Whatsapp (% 64), Tiktok (% 56,4), Instagram

(% 52,8) eta Snapchat (% 52,8) dira erabiliak. Youtuben eta Tiktoken, adibidez, batez ere gaztelaniazko edukiak ikusi ohi dituzte edo gaztelaniaz diren kontuak jarraitzen dituzte.

Musika ere aztertu dute eta gehienek Youtube (% 77,4) eta Spotify (% 62,5) bidez aditzen dute. Hizkuntzari dagokionez, % 35,6k euskaraz eta bertze hizkuntzetan berdin aditzen du, % 22,8k batez ere gaztelaniaz eta % 14k batez ere bertze hizkuntzetan. Batez ere euskaraz (% 9,9) eta beti euskaraz (% 4,4) aditzen dutenak guttiago dira.

Bideojokoen kasuan, % 37,1ek batere ibili ez izana onartu du. Baina ibiltzen direnetan, % 51,2 gaztelaniazkoetan aritzen da.

Haur eta gazteendako literatura azoka asteburuan

Ortziralean mila argitalpen baino gehiago biltzeko esperantza dute eta larunbata familiendako eguna izanen da

GANEX

Ikusi Mikusi, haur eta gazteendako literatura azoka eginen dute urriaren 7an eta 8an, ortziralean eta larunbatean, euskara hutsean. Hau bigarren edizioa izanen da. Joan den urtean egin zuten urriaren 9an eta 10ean, eta orduan bezala izanen da aurten ere.

Ortziralean, ttikienendako mila argitalpen (liburu, komiki, ikusentzuneke eta bertzelakoak) baino gehiago biltzeko esperantza dute, izan Iparraletik edo Hegoaldetik. Larunbata, berriz, familien-

dako eguna izanen da. Herriko ainitz lekutan hedatua izanen da azoka.

Kalakan eta lagunak leizean

Iraila eta urria lotu dituen asteburu honetan lezeetan izan dugu Kalakan musika talde ezaguna, baina ez da bakarrik aritu. Ortziralean, folk mirandesa egiten duen Trasga taldearekin batera aritu da, larunbatean Mongoliako Buriatiako Alexander Arkhincheev musikaria izan dute lagun eta igandean, Nayade abesbatzarekin batera jo dute.

Erretretatuen ateraldia antolatu du Herriko Etxeak urriaren 26rako

GANEX

Herriko etxeak erretretatuen ateraldia antolatu du urriaren 26an. Autobusa abiatuko da asteazkenean 08:30ean igerilekuko aparkalekutik, bidean izanen da gosaria, Bankako amuarrain lekua bixitatu, bazkaria Aldudeko Mentajartetxean

eta gibelerakoan Herriko etxeko ostatuan azken uztarra. Izena herriko etxean eman behar da urriaren 21a baino lehen (30 euro bakarka, 45 euro bikotea). «Egun horretan, norbaitek etorri behar baldin badu zure bila, abisatu izena ematean», jakinarazi dute.

Bestetako zozketako saridunak

Bestetako zozketan sarituta-koak jakinarai dituzte. Lehena, 700 euroko bidaia Zozou Argainea; bigarrena, 450 euroko bidaia Salaverria; hirugarrena, 350 euroko bidaia, Berrouet Roger. Bakoizak hautatuko du norat joan nahi duen bidaia-terako orduan.

'Maddiren Trajeria' Pastoralaren hilaren 22 eta 23an

Urriaren 15 eta 16an emanen dute *Maddiren Trajeria* Xaretako pastoralaren Zugarramurdiko lezeetan, baina Sarako plazan urriaren 22an eta 23an izanen da, 15:30ean. Sarako txartelak salgai daude Herriko etxeko edantegian eta *maddi.pastoral.eus* webgunean.



GANEX

80 urtekoen klaseko bazkaria

Buruilaren 25an, igandean, aurten 80 urte egin dituztenak elkarretaratu dira Pikasarriko jatetxean. 24 baziren eta bazkari on bat zerbizatu de Jean Jeacque sukaldariak. Izigarrizko memento ona pasatu dute, lehengo istorioak aipatuz eta arratsaldean aldatu dira elgarretarik.



Jamatite Zubiri, ikurraren garraiatzaile beteteranoekin. ARTXIBOKOA

Yaiberriko bordako Jamatite Zubiri ezaguna 85 urtetan pausatu da

GANEX

Yaiberriko bordako Jamatite Zubiri 85 urtetan hil da. Bere andre Mayie-rekin izan dituzte bi seme, Henri eta Laurent, baita Natalie alaba ere.

Bere denbora guzian laborantzian eta Larhunen egin du lan, baina bazuen bertze gauza bat izigarri maite zuena, beteteranoen ikurraren garraiatzaile izatea. Hainbat urtez egin du, Beñat Elizalde utziz geroztik, hain zuzen. Zinez ekintza hori maite zuen eta seriooki egiten zuen, beteteranoen manifesta guzietan presente izaten baitzen. Goitiko

argazkian, lehen lerroan ageri da Jamatite, eskuin aldean.

Maite zuen bere lagunaren konpainia, baita erretretatuen elgarretatzeak ere. «Bai Jamatite: huts haundia eginen duzu zure familian, baita gure artean ere. Mundu honetan hainbat baduzu egina, orai pausa zaitetzakean. Dolumin beroenak familia guziari».

BETERANOEN IKURRA GARRAIATU ZUEN YAIBERRIKO BORDAKOAK



Zuzendaritzako eta trebatzaile taldeko kide berriak. JL BESSONART

Errugbi denboraldia abian bizkarrezur berriarekin

Mikel Gerendiain eta Clément Ozkoidi bikotea zuzendaritzan jarri da eta David Gaillet eta Cyril Pamphile trebatzaile lanetan

JL BESSONART

Azken bi urtetako txapelketak lehenbailehen ahantzi behar dira, SPUC errugbi taldeak ez baitu bere irudirik onena erakutsi. Biziki kirolari gazteekin aritu dira eta esperientzia eskasa sentitu da. Hortarako aurten, taldea ongi azkarturik, buru-belarri sartu da denboraldi berrian. Zuzendaritzan bikote bat jarria da, Mikel Gerendiain eta Clément Ozkoidi, baita kirol zelaian trebatzaile lanetan David Gaillet eta Cyril Pamphile ere. Bizkarrezur honen inguruan, errugbilari adineko batzuk prest agertu dira

beren laguntza ekartzeko, hara nola Ximun Lucu profesional mailatik heldu zaukuna baita Paxkal Borthaire baloi jaurtitzalea ere. Erregional 2. mailan engaiatuak dira, herrialdeko txapelketan, 7. multzoan. Lehen partida, irailaren 18an jokatu zuten herriko kirol zelaian. Hemen aurkituko dituzte Euskal Herriko eta Biarnoko ekipak: Barthez/Lagor, Uztaritze/Jatsu, Asasp/Arros, Pontacq, Azkaine, Aspe, Nafarroa 3, Ziburu eta Billere/Lescar. Aspalditik, errugbiak leku handia ukan du kirol mailan, eta hiruetan Frantziako txapela lortu du.

Ortziralean antzerkia eta larunbatean ibilaldi kontatua Aste Urdinaren baitan

JL BESSONART

Aste Urdina. Horrela izendatua da nazional mailan, adineko eta erretreaduneri joaki den denboraldi berezi hau. Herriko etxeak ere parte hartzen du ekitaldi batzuk plantan ezarriz, hala nola ortziralean, 15:00etan, Larreko kul-

turgunean antzerkia *Adopte un jeune.com* antzerkia izanena da, belaunaldien arteko bizitza aipagai. Larunbat goizean, 10:00etan, oinezko ibilaldi kontatua abiatuko da Zaldubiko zubitik. Izena eman behar da, 05 59 54 10 19ra deituz. Bisitaren ondotik aperitifia.

Zaldubi ikastolaren 50 urteak urriaren 22an ospatuko

Zaldubi ikastolaren 50 urteak ospatuko dira urriaren 22an kirol zelaian. Gaurdanik erre-serbak eman behar dira eguerdiko bazkari/zikiroarendako, Aroberri Ostatuan urriaren 1ean eta 8an, 10:00ak eta 12:00ak artean. Xehetasunak: zaldubi.50urte@gmail.com

Union Basque txapelketan bi ekipak galtzaile

Union Basque txapelketan, Itsasun, Senpereko bi ekipek galdu egin zuten. Umetxoak A mailan Matiu Hacalak eta Martin Karrikaburuk 19-30 galdu zuten Kanboarren kontra eta helduen 1. mailan Adrien Etxeberri eta Ellande Jauregi galtzaile Itsasuarren kontra, 27-30.



Jazz musika hedatu zuen Les Haricots Rouges orkestrak Larrekon. UTZITAKOIA

Azkeneko ikuskizunak ere ederrak izan dira Larreko kulturgunean

JL BESSONART

Irailaren 16an, Dantza Maitaldiaren kari, Lorenetik etorritako balletak, dantza emanaldi goi-mailakoa aurkeztu zien ikusleei. Biharamunean, Larreko leporaino betea zen Les Haricots Rouges orkestraren entzuteko, hemen baiginen Frantzian den jazz musika mailako erreferentzia. Sekulako giroa sortu zuten. Irailaren 20an, antzerkiaren aldi zegoen, Molièren bizitza aurkeztua izan zen antzerki moduan eta jarleku guziak okupatuak ziren. Antzezlanetan Francis Huster, mundialki ezagutua da antzerkilari bezala, baita zinemako aktore bezala ere, publikoa lorietan gelditu zen.

Europako dantza lehiaketa


Aitzinera begira ere, izanena da non josta Larrekon. **Urria-**



Francis Huster aktorea. UTZITAKOIA

ren 8an, larunbatean 14:30etik 18:30era gizarte-dantzen eta show artistikoen Europako lehiaketa handia egingen dute. Sartzea hamar euro gostako da, sei euro hamabi urtez beheitikoendako.

Urriaren 16an, berriz, *Liburua familian* ekitaldiaren zazpigarren edizioa hartuko du Larrekok, Herriko Etxeak antolatuta, igandean 10:00etatik 18:00etara. Sartzea urririk izanena da.



Narbarteko Julen Iriarte eta Dabid Albiasu eta Oiartzungo Andoni Ugalde pilotariak eta Gorka Bidegain antolatzailea.

«Urrian hasi nahi dugu Bortz Kirol pilota txapelketa Donezteben»

GORKA BIDEGAIN ERREKA ELKARTEA

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako Bortz Kirol txapelketa jokatzeko lanean ari dira pilotariak, modalitate batzuk gurean ezezagunak direla kontuan hartuz. Laster hasi nahi dute

AITOR AROTZENA DONEZTEBE

Erreka Kirol Elkarteak, garai batean Mezkitzen jokatzeko Bost Kirol txapelketaren bidea segituz, gisa bereko txapelketa martxan paratuko du. Euskal pilotaren barnean pilotari emateko dauden bortz modutan jokatu da. Parte hartu nahi dutenek erreakelkatea@yahoo.es helbide elektronikora idazten ahal dute. **Nola gogoratu zaizue Erreka elkartetik Bortz Kirol txapelketa sustatzea?**

Gure artean solas egiten ari ginen, horrelako txapelketa anitz batek arrakasta izan zezakeela. Izan ere, pilotariendako erronka izan zitekeen, eta herri kirolean pentatloiak

izan duen arrakasta ikusita, txapelketa martxan jartzera animatu gara.

Mezkitzen egiten zen txapelketan oinarritu zarete, baina ego-kitu ere egin duzue...

Mezkitzeko txapelketan palak pisu handia zuen, hiru modalitatetan jokatzeko baitzuten eta gure asmoa izan da horrekin pixka bat haustea eta jokamoldeak aberastea. Horrela, pilota jotzeko bortz modu paratu ditugu: eskuz, paleta goma, xarea, erremontean jotzeko modua eskularru edo laxoa motza eta zestan bezala jotzeko joko garbia.

Dagoeneko pilotari batzuek parte hartuko dutela baieztatu dute. Nongoak dira?

Orain arte gehiengoa Baztan-Bidasokoa bada ere, Oiartzungo bat ere animatu da, eta Hazparne eta Donibane Lohizuneko pilotari batzuk ere interesa erakutsi dute.

Noizko espero duzue txapelketarekin hastea?

Urri hasieran hastekoak ginen, baina pilotariak entrenamendu gehiago nahi dituzte eta erabili beharreko piloten inguruko adostasuna bilatzen

«ZEROTIK HASI ETA PILOTARIEN BEHARRETARA EGOKITUKO GARA»

ari gara. Horrek dena gibeletan digu pixka bat, dena den urrian hasi nahiko genuke.

Entrenamendu batzuk eginak dituzue dagoeneko eta pilotariak gogotsu omen daude...

Bai, haiendako ere nolabaiteko erronka da eta gogo aunitzekin daude. Interesa erakutsi duten zortzi-hamar bat pilotari badaude dagoeneko eta aurten zerotik hasiko garen, beraien beharretara egokituko gara.

Bortz pilota modalitate uztartzea ez da erraza izanen pilotariendako. Gainera, batzuk, hemen ezezagun xamarak...

Hegoaldeko pilotariendako jokamolde gehienak ezezagunak dira, gure ingurukoek akaso eskularrua dominatzen dute, baina xare eta joko garbian hasi berriak dira. Joko garbiko erremintak prezio bat dauka, nahiko erraz hausten da... Lehenbiziko pausoa izan da tresnak eskura jartzea, Erreka inbertsioa egin du eta bi hilabete lehenagotik entrenatzeko aukera eman du, tresna horiekin trebatzeko. Iparraldekoak, oster, nik uste denetan arituak direla...

Pilotariak elkarlanean ari dira, bertzei erakusteko eta bertzetara egokitzeko prest...

Bai bai, antolakuntzak ez ezik pilotariak ere arraz argi dute txapelketak funtzionatu badu, nolabaiteko oreka bilatu behar dela. Hori dela eta, prest daude berez jokamolde batzuetan erabiltzen diren pilotak pixka bat jausteko, pilotari hasi berriei entrenamenduetan laguntzeko, araudian egin beharreko doikuntzak egiteko, beti ere oreka hori bilatze aldera. Nahi duten pilotari guztiak animatu nahi ditugu eta animatzen denak Erreka elkartearen helbide elektronikora idatz dezala.

Txapelketak segida izateko asmoarekin antolatu duzue?

Bai, Erreka epe luzerako egin dako apostua da txapelketa, materialean inbertsio koxkorra egin du, eta pilotariak ere horrela hartu dute.



Plazaz Plaza txapelketako finalistak, bertze pilotari eta laguntzaileekin batera.

Iturriaga leitzarrak irabazi du II. Plazaz Plaza txapelketa

Aldaregiarekin bikote eginez 22-20 irabazi zien irailaren 24ko Etxauriko finalean Barrocal eta Mendibururi

TTIPI-TTAPA

Uda osoan jokatu den txapelketa guztian izan den emozioa, joko ona eta maila handia agerian gelditu zen irailaren 24an Etxaurin jokaturako Plazaz Plaza txapelketako bigarren edizioako finalean. Ados pilota elkarrekin antolatuta uda osoan jokaturako partida ugarien

ondotik, final handi eta gogorren, Andrea Aldaregiak eta Iera Agirre Iturriaga leitzarrak 22-20 irabazi zieten Maddi Barrocal eta Ane Mendibururi.

Plaza irekian, euriak ere protagonismoa hartu nahi izan du eta arratsaldean pilotalekua lehortzen hasi behar izan zu-



Iera Agirre Iturriaga pilota astintzen.

ten. Partidan zehar ere tanto batzuk euripean egin zituzten eta azkenean, gogortasuna medio finala ordubete baino gehiago luzatu zenez, ilunpean bukatu behar izan zuten partida.

Astigarragako Sagar Uztan

Ados pilota elkarteko udako partidarik garrantzitsuena izan zen Plaza Plaza txapelketako finala, baina uda osoan hainbat eta hainbat partida jokatu dituzte. Urrunago joan gabe, biharamunean, Astigarragako 2022ko Sagar Uztaren baitan antolatutako partidaren ere ikuskizun ederra eskaini zuten. Arrietak eta Mujikak 22-19 irabazi zieten Irantzu Iantzi beratarri eta Orbegozori.

Nafarroako lehen mailako aizkora kanporaketa Lekunberrin

TTIPI-TTAPA

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu dute urriaren 12an, asteazkenean 17:00etan Lekunberriko plazan. Hamar aizkolari ariko dira lehian, bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat nork lehenago moztuko. Horietatik lau eskualdekoak izanen dira: Ziga-ko Joxean Etxeberria, Aresoko Asier Pellejero eta Leitzako Jon Rekondo eta Julen Olano. Bereaiekin batera, gaur egun txapeldun den Iker Vicente (Otsagabia), Eneko Saralegi (Errazkin), Julen Kañamares (Aros-tegi), Oier Kañamares (Aros-tegi, Txomin Amundarain (Arribe) eta Ibai Soroa (Arribe) ariko dira. bertz lehenbizikoek Donezteben azaroaren 18an jokatu dute finalean moztuko dute eta azken bi sailkatuek maila galduko dute. Nafarroako arpana txapelketa mistoa ere jokatu dute urriaren 1eko Igantziko kanporaketako lau bikote onenek.



XAGU-LESAKA

Patxi Mindegia lehen mailara igo da

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapeldun suertatu zen Xuban Kañamares irailaren 18an Uhartan. Patxi Mindegia zubietarra bigarren izan zen eta biek lehen mailan moztuko dute. Labaiengo Jesus Etxeberria hirugarren izan zen, Goizeder Belza laugarren eta Zubietako Mikel Indakotxea bosgarren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Organbide gogoan laxoa egunetan

Laxoa Elkarrekin antolatuta Laxoa Egunak ospatu zituzten Iruritan, Elizondoko trinketeetan eta Arraiozko pilota plazan. Jardunaldiak akitzeko, omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion Arraiozen Mikel Organbideri, otsailean istripu batean hildako Arraiozko pilotariari.



SARA Ikusi Mikusi euskal literatura azoka

Haur eta gazteentzako euskarazko argitalpenak.
Herriko aitz lekutan hedatua, urriaren 7an eta 8an.

AZOKAK

BERA

Bertako ekoizleen azoka

Beralandetan, urriaren 8an,
10:30etik 13:30era.

ELIZONDO

Baztango artisauen eta nekazarien azoka

Plazan, urriaren 8an eta 15ean,
10:00etatik 14:00etara.

ERRATZU

Artisauen azoka

Plazan, urriaren 9an, 11:00etatik
15:00etara.

LESAKA

Artisauen azoka

Behoko plazan, urriaren 16an,
10:00etatik 14:00etara.

ZINEMA

BERA

'Tipularen sehaska kanta'

Kultur etxean, urriaren 7an,
18:30ean.

IRURITA

'Ardiak, ezkontza eta kontrabandoa'

Gizarte Bilgunean, urriaren
14an, 19:00etan.

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, urriaren 15ean
eta 16an, 16:30ean 'Minions. El
Origen de Gru' eta 19:00etan 'La
Vida Padre'.

IKUSKIZUNAK

SENPERE

'Adopte un jeune.com' antzerkia

Larrekoan, urriaren 7an,
15:00etan.

BERA

Gure Zirkua

Agerrako futbol zelaian, urriaren
7tik 15era. Sarrerak 13 eurotan.

ETXALAR

Benantzi Bilbaoren organo kontzertua

Elizan, urriaren 8an, 19:00etan.

LEITZA

'Kaskarot' antzerkia

Atx Teatroaren eskutik.
Herri Aretoan, urriaren 9an,
18:00etan. Sarrerak 6 eurotan.

ZUGARRAMURDI

'Maddiren trajeria' pastoralak

Lezean, urriaren 15ean eta
16an, 15:30ean.

BERROETA

Baztan Kantuz

Plazan, urriaren 16an,
12:00etan.

JARDUNALDIAK

ZUBIETA

Euskararen Eguna

Pintxo lehiaketa, trikipotea,
eskulangileen azoka, joaldunak,
dantzak, kirol saioa, bazkaria,
jokoak eta dantzaldia.
Urriaren 7an eta 8an.

URDAZUBI

Kontrabandisten Lasterketak

Urriaren 8an Gaueko Lanak eta
9an maratoi erdia.

SARA

Ikusi Mikusi literatura azoka

Haur eta gazteentzako.
Urriaren 7an eta 8an.

ETXALAR

Usategietako Igandea

Mus eta partxis txapelketa,
patata tortilla lehiaketa, musika,
taloak eta ostatua.
Urriaren 15ean eta 16an.

LEITZA

Oinatz Bengoetxearen agurreko partida

Plazan, urriaren 15ean,
11:00etatik aurrera.

SOLASALDIAK

LEITZA

Hipopresiboen tailerra

Kiroldegian, urriaren 6an,
11:00etatik 12:00etara.
Izen-ematea 948 510 719.

Zaintza(k)

Atekabeltzen, urriaren 6an,
19:00etan.

ELIZONDO

'Sendabellarrek dakitena' liburuaren aurkezpena

Garbiñe Larrearekin.
Arizkunenean, urriaren 7an,
18:00etan.

SENPERE

Oinezko ibilbide kontatua

Zaldubiko zubitik, urriaren 8an,
10:00etan. Izen-ematea 05 59
54 10 19 telefonoan.

ARANTZA

Gaztainen buruzko topaketa

Aterpeko aretoan, urriaren 11n,
09:30etik aitzinera.

BERA

Kauleko larraina ezagutzeko solasaldia eta ibilaldia

Paul Badiolarekin.
Urriaren 14an eta 15ean.

«Telebistan lanean aunitz ikasten da hainbat gairi buruz»

ANDREA AMORENA URTEAGA ELIZONDOKO GAZTEA



«Baztango 21 urteko neska arrunta» da Andrea Amorena, «beti ikasteko eta gauzak egiteko gogoarekin». Iruñean bizi da lanagatik, baina ahal duenetan etxera bueltatzen da «gurasoak, aitatxi eta amaxi eta betiko lagunak ikustera». Zinea du gustuko, «erne egoten naiz ikusgai dauden pelikulak ezagutzeko», eta zinema areto tikiak nahiago ditu, «film komertzial handiez gain, bertzelako pelikulak ere jartzen dituztelako».

Afiziotik ofiziora

Batxilergoa akitzean goi mailako gradu bat egitea erabaki zuen, «beti aditu izan dut gustuko duzuna zure lanbide bihurtu behar duzula, eta zinea eta serieak gustatzen zaizkidanez, Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioa ikasi nuen».

Ikasketak egiten ari zela Tafallako ekoiztetxe batean hasi zen lanean; «hasieran *streaming* bidezko futbol partiduak eta horrelakoak emititzen genituen eta gero Navarra TVko albistegia grabatzen hasi ginen». Urtebetez aritu zen lanean eta «esperientzia polita» izan zen, «goi mailak praktikoak badira ere, lanean esperientzia gehiago lortzen da. Egunero lan desberdinak egiten genituen eta hainbat gauza egiten ikasi dut; telebistarako albisteak nola egin eta grabatu, zein plano erabili, mikroarekin nola jarri...».

«BETI ADITU DUT GUSTUKO DUZUNA LANBIDE BIHURTU BEHAR DUZULA»

Kamararekin karrikara ateratzean «jendeak nola erreakzionatzen duen ikusten duzu. Aunitzetan zaila da jendeak galderei erantzutea kamararen aitzinean. Egunero albiste desberdinak genituen, batzuetan interesgarriagoak eta bertzeetan aspergarriagoak, baina horrek balioa ematen dio lanari, aunitz ikasten baita hainbat gairi buruz».

«Lan guzietan bezala», ogibide honetan ere «jendeak ikusten ez duen kristoren lana dagoela gibeletik» dio Amorenak, «bi minutuko albiste bat egiteko goiz osoa behar duzu; albistea atera, kazetariarekin eta elkarrizketatuarekin gelditu, galderak prestatu, elkarrizketa eta bertzelako planoak grabatu... eta bulegora bueltatzean irudiak ordenagailura pasatu, editorean muntatu eta bidali behar dira, dena eguerdiko albistegirako».

Gaur egun EITBn egiten du lan, mantentze-lanetan; «zerbait hausten bada edo ez badabil, nik konpontzen dut, edo saiatu bederen: irratiko mahaiak, platoko fokuak, konexioak, Interneta...». Baina Amorena ez da ikus-entzunezkoen munduan bakarrik aritzen.

Eszenatokiaren gibelean

Klasean «lagun aunitz eta arras onak» egin zituen, «eta horietako bat, Jose, teknikari lanean aritzen zen *Teatro en la Chácena* antzerki taldean. Teknikariak behar zituzten, eta lagun bat eta biok sartu ginen». Iruñeko gazteen antzerki talde amateurra da eta «hobby gisa» aritzen dira bertan, «baina urte dezente darate

mate antzerki munduan eta sariak irabazi izan ditugu».

Argi teknikari lanean aritzen da; «antzezlanaren argi diseinua egiten dut, zein argi paratu, nola aldatu eszena bakoitzean, zein sentsazio eman behar duten, argi trantsizioak... aktoreak ikus daitezten behar den argiztapena eta atmosfera sortzen ditut. Hala ere, teknikariok elkarri laguntzen diogu, hasiberriak baikara».

Argi diseinua egiteko, «emaldia non izanen den jakitean *raider* izeneko orri bat ematen didate, antzokiko informazio teknikoarekin; zenbat foku dituen, nolakoak... horrekin nire ideia plano batera erabaten dut». Emanaldiaren egunean ere «lan aunitz» egin behar da, «goizean goiz joaten gara fokuak muntatzera, konexioak egitera eta 'memoriak' grabatzera. Eta gero emanaldiko lana dago».

20 lagun inguruk osatzen dute antzerki taldea, «baina kopurua aldatuz doa. Orain bi taldetan banatu gara bi antzezlan egiteko, baina teknikariak bietan aritzen gara». Haurrendako zein helduendako lanak aurkeztu izan dituzte; «orain haurrendako *Otro cuento* izeneko lanarekin ari gara eta Frantziako Iraultzaren inguruko 1789 izeneko antzezlanaren muntaian gaude».

Etorkizunera begira

Momentuz, «EITBn lanean segitzeko» asmoa du, «eta ahal dudan guziaz ikasten segitu nahiko nuke, ikastaroak egiten edo nire kontu. Teknikari gisa ere gehiago ikasi nahi dut eta lagunekin ikus-entzunezko proiektu pertsonalak egitea gustatuko litzaidake».

Azkenik, jendea kultura kontsumitzera animatu du; «zinea, antzerkia, dantza... batez ere talde amateurak. Profesionalendako zaila da batzuetan aretoa betetzea, eta amateurrendako oraindik zailago».

«LAGUNEKIN IKUS-ENTZUNEKO PROIEKTUAK EGIN NAHIKO NITUZKE»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



IGANTZI. 85 m²ko pisu zaharberri-tua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajea-ekin. Argitsua. Interesatuek goiz eta arratsaldean deitu. ☎649 11 06 11.

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan apartamentua salgai, igogailuarekin. Sukaldea, egongela, jangela, bainugela eta bi logela erreka eta mendi aldera bistekin. 25 m²ko ganbara, barnetik apartamentuarekin lotuta dagoena. Prezioa: 100.000 euro. ☎678 26 84 44.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gauez. ☎647 58 81 63.

ERRENTAN EMATEKO

ITUREN. Etxea errentan emateko. Bi logela eta bi bainugela ditu. ☎620 25 42 03.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

Etxea egiteko baimena duen lur partzela salgai, 10.000 metro karratuko. Iruritatik 10 minutura eta argia eta ura 100 metrotara duena. ☎669 00 62 38.

LANA

ESKAINTZAK

ARANTZAKO Aterpean sukaldari laguntzailea behar dute urrian lanean hasteko. Interesatuek bidali curriculum aterpe@arantza.net helbidera.

Frantsesa dakien pertsona bat behar da emakume batekin ibiltzen den bitartean elkarrizketa berrikusteko. Egunean ordu bat eta astean 3-4 egun gutxienez. Azarotik aurrera. Goizez. ☎669 33 61 88.

ARIZKUN. Betiko lantegian, langileak behar dituzte fabrikari aritzeko. Deitu edo idatzi produccion@betikopvc.com helbidera. ☎659 74 67 95.

ESKARIAK

Emakume bat lan bila. Adinekoak zaintzen eta ostalaritzan aritua. ☎643 04 37 34.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Txakurra oparitzeko. 3 urteko setter arra oparitzeko. Zaintzeko denbora faltagatik. Zuria eta beltza, oso polita. ☎661 15 70 54.

Bi hilabete eta erdiko katakume batek etxea behar du. ☎650 79 76 69.



Katakumeak opari. Katakume biziak eta maitagarriak etxe bila. Zurekin eramanen? ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

SALGAI



LESAKA. Setter arrazako bi zakur eme salgai, 2021eko urtarrilean jaiotako. Oilagorretan ibiliak. ☎677 59 48 92.



Baserrian jaiotako oilandak eta oilaskoak salgai, kanpoan ibilitakoak. ☎671 75 90 52.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,94 €
- 1.koa 4,82 €
- 2.koa 4,70 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,05 €
- 1.koa 4,91 €
- 2.koa 4,80 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00 €
- Idixkoak 160,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,93/4,33 €
- Zaldi-behorrak: 1,90/2,07 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,30/9,40 €
- 8-10 kilokoak: 7,40/8,10 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,722 €

Zerramak 0,810€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ARANTZA. 15 ardi latxa muturgorri salgai. ☎680 52 44 90.

Txerrikumeak salgai bizirik edo labean erretzeko prestatuta. Informazio gehiago Whatsapez edo telefonoz. ☎690 98 61 18.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



Furgonetarako bizikleta eramateko salgai. Oso gutxi erabilia eta egoera bikainean. Mercedes markakoa. ☎683 27 31 65.



Altzaria salgai. 87 zentimetroko altuera, 111 zentimetroko luzera eta 50 zentimetroko sakonera. ☎637 11 59 31.



744 484 361

ttipi-ttapa



Lau gurpil salgai. Berriak. Neurriak: 205/70/R15/63. ☎630 71 78 30.



Bizikletako kasko integrala salgai. S1X S1X ONE marka, M neurria. Berria, estreinatuta gabe. 155 eurotan. Kaskoaren funda opari. ☎606 04 25 11.



Bizikletako kasko integrala salgai. GIRO marka, S neurria. GOPROren-tzakako euskarriarekin. Oso egoera onean, gutxi erabilia. 85 eurotan. Kaskoaren funda opari. ☎606 04 25 11.

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

TOYOTA RAV4 (9167)

SUZUKI GRAND VITARA (2410)

www.mendaurmotor.com

SANTESTEBAN TAILERRAK

DACIA JOGGER EXTREM TCE 110 CV

Nabigatzailea, aire-giroailua, aparkatzeko radarra, 7 PLAZA MATRIKULATU BERRIA - KILOMETRO 0

www.bileressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@bileressantesteban.com

HILBERRIAK

- **Manuel Sarobe Bereau**, Lesakakoa, irailaren 1ean.
- **Mia Taberna Mindegia**, Doneztebekoa, irailaren 14an.
- **Regina Ibarra Espelosin**, Etxalarkoa, irailaren 14an, 100 urte.
- **Juraj Mikula**, Igantzikoa, irailaren 14an.
- **Mertxe Retegi Albistur**, Berakoa, irailaren 15ean, 77 urte.
- **M^a Teresa Arriada Goñi**, Elizondokoa, irailaren 15ean, 94 urte.
- **Paulino Sebastian Quirce**, Berakoa, irailaren 15ean, 92 urte.
- **Asun Elizalde Danboriena**, Etxalarkoa, irailaren 17an, 104 urte.
- **M^a Luisa Villabona Saralegi**, Leitzakoa, irailaren 18an, 90 urte.
- **M^a Carmen Igarzabal Telletxea**, Lesakakoa, irailaren 21ean, 91 urte.
- **Boni Juanikotena Urrutia**, Elizondokoa, irailaren 25ean, 88 urte.
- **Jose Ramon Huizi Lujanbio**, Goizuetakoa, irailaren 27an, 95 urte.

URTEBETETZEAK



Aiane eta **Itzea** etxeko bi sorgintxoek urtebetetze egunak irailaren 27an eta urriaren 2an izan ziren. Zorionak!



Narao eta **Oihan** lehengusuek irailaren 20an eta 25ean 8 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu handi bana Arantza, Urroz eta Beintza-Labaiengo familiaren eta bereziki Oier, Iraia eta Eriken partez.



Eider Legarreak 8 urte bete ditu irailaren 25ean. Aunitz urtez *pollite!* Alimaleko besarkada eta aunitz maite zaitugu!! 8 muxu hauuuundiiii!!



Mattin Legarreak 42 urte bete ditu irailaren 23an. Zorionak aitaxo! Muxu bat eta urte aunitzeta etxekoan eta bereziki Eider eta Unaxen partez!



Amaiurko **Goren Mujika Elizalde**k urriaren 6an 5 urte beteko ditu! Muxu handi bat guapo!!



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** 8 urte bete ditu urriaren 1ean. Zorionak eta aunitz urtez aitaren eta amaren partetik!!!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita; Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapp**ez 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta; kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

EZKONTZAK

- **Xabier Ameztoui** eta **Argitxu Gerard**, irailaren 17an Saran.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 edo 744 48 43 61 telefonoetara deitu edo idatzi, edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

OROIGARRIA

**Asun
ELIZALDE DANBORIENA**

Etxalarren, 2022ko irailaren 17an, 104 urte zituela

*Ederra da maitasunez betetako bizitzek
uzten duten arrastoa.
Hoberena eman zenigun
eta grabatua gelditu da gure bihotzean.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



ILOBAK, LEHENGUSUAK ETA GAINERAKO SENIDE ETA LAGUNAK

URTEURRENA

**Beñat
ETCHART VERDU**

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an
XI. URTEURRENA

*Zure irribarrearen oroimenak
gure bihotzak
maitasunez betetzen ditu.
Maite zaitugu.*



AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA

URTEURRENA



**Juan Mari
ZALDAIN MAISTERRENA**

Amaiurren, 2016ko urriaren 1ean
VI. URTEURRENA

*Urteen pasatzea da bizi legea
baina atzentzen ez denak
ez du inoiz hiltzea.
Hortaz, pizturik darrai gugan
zure argiak,
gure bidelaguna,
zure memoria.
Maite zaitugu.*

EMAZTEA ETA SEME-ALABA

OROIGARRIA

**Mertxe
RETEGI ALBISTUR**

Beran hil zen 2022ko irailaren 15ean,
77 urte zituela

*Zure irria gure baitan
atxikiko da seguru
Ez zara gehiago gurekin baina
betiko maite zaitugu.*



ZURE FAMILIA

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



 **KULTURKARI**
Diseinu grafikoa | Publikazioak
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58


BAZTAN BIDASOA
Heriotza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es


IZARRA
HERIOL ZURE OROIMEN ARRAIA ETXERAKO



Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

 24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Kattalinentzat' ala 'Kattalinendako'?

Norendako kasua norentzat kasuaren baliokidea da, eta haren formak bezain zuzenak dira norendakorenak. Eskualdean, gainera, Baztanen eta Malerrekako zenbat herritan, adibidez, *-endako* erabiltzen da, ez *-entzat*. Hortaz, Kattalinentzat eta Kattalinendako, biak zuzenak dira.

Eta horrekin batera zuzenak dira ondoko hauek ere:

- zeinentzat = zeinendako
- honentzat = honendako
- zuretzat = zuretako
- Intzarentzat = Intzarendako
- Mendiarentzat = mendiarendako

Osatu bikoteak

Zanpa-zanpa

Usain

Zitu

Ahul

Pareta

Usaia

Kario

Etengabe

Ohitura

Uzta

Horma

Horma

Urrin

Izotza

Herbal

Garesti

-Asmatu al zenuen aitzineko zenbakiko erran zaharra? **Onddo urte, elur urte.**
Aurtengoa onddo urtea izan da,
erranak dioen bezala,
elur urtea izanen ote da?

Zein da zuzena



'*Tortilla patata' ala 'Patata tortilla'?

Hegoaldean erabiltzen den hitza da *tortilla*, duela zenbait aldizkari oroitarazi genuen bezala, *eliez* (II) idatzi beharrekoa. Haren sinonimoa Iparraldean *moleta* da, eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, *arrautzopil* da euskal jatorriko hitza, Hegoalderako zein Iparralderako egokia.

Herriko besten harira, azken aldiaren behin baino gehiagotan ikusi dugu **tortilla patata* egitarauetan. Ba, ez, *patata tortilla* da egokia eta ez **tortilla patata*.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

PLAZAN BAZAN



PUZZLEA

Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubedia (Aizurri)



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Haral Jauzi batetik bestera lau gauza galdu ditu Maripurtzilek. Gainera, elementu berri bat agertu da. Ikusten al dituzu?

JAUZIAK



1

2

3

4

ZENBAT?

Etxeko patata-tortillarik onenek Pellozirik egiten ditu. Hiru patata, lau arrautza, olio, gatz eta tipula behar ditu tortilla bakoitzeko. Hemen dauzkan gaien arabera, zenbat tortilla aterako zaizkio?



LURRAREN EGUNA

2022
URRIAK 23

NAFARROA
BERA

Urriaren 22a Larunbata 15,30tan (Iamotenean) Tókien Lasterketa eta 17tan Lizuniagako Igoera Lasterka / 17,30tan Bera Kantari eta IRATS Trikitilariak kalejiran / 18tan (Labiaga Ikastolan) Areto Nagusiko erakusketa berriaren irekiera / 19tan (Kultur Etxean) Berako musikanei buruzko liburuaren aurkezpena /

Urriaren 23a Igandea 10etan (Altzaten) Eskulangileen eta Elikadura Azoka Barazki Erakusketa, Olakoren Erakusketa, Tailerrak / Zubietako joaldunak iamoteneatik abiatuta / 10,30tan (Alzateko Eskenatokian) Txalapartariak eta IRATS trikitilariak / 11tan (R.Baroja eskolan) Bortzinetako 34. Gasna Lehiaketa eta IRATS trikitilariak kalejiran / Eguerdian (Kamaxenean) 23. Sagardo Lehiaketa / 12tan Musika Eskolako Txistularien eta trikitilarien kalejira / 12,45etan Musika Eskolako Talde instrumentalaren eta Bandaren kalejira /

Arratsaldeko 17etan Bertsolariak zuzendutako sari banaketa / 18tan Muxikoak Txarangarekin / 19tan IRATZAR taldearekin erromeria / Egun guzian zehar talo, jaki eta edan dastatzeak / * Goizeko 8etatik 9arte; Erakusketarako barazkiak llekueta aldean dagoen Merkatu plazara ekarri behar dira. Gaztak eta sagardoak, berriz, R. Baroja eskolara goizeko 10etarako.

ANTOLATZAILEAK: Berako Kultur Batzordea, Gure Txokoa eta Berako Ikastetxeak

